


URTEKO TXOSTENA

2009



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

20



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

NAFARROAKO
FORU KOMUNITATEKO
ARARTEKOA

URTEKO TXOSTENA
2009

Izenburua: **2009ko urteko txostena**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2010ko, Apirila

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege gordailua:


%100 birziklatua, erabat klororik gabea eta bizi ziklo osoan ingurumen inpaktu gutxikoa den paperean inprimatua, ondoko ziurtagiriak dituena: Blauer Engel, Nordic Swan eta Europako Batasuneko etiketa ekologikoa.



aurkibidea

2009

aurkibidea



2009

AURKEZPENA.....	13
-----------------	----

SARRERA.....	23
--------------	----

I. KAPITULUA KEXEN ESTATISTIKA OROKORRA.....	27
--	----

1.1. Datu orokorrak.....	27
1.2. Onartutako kexak.....	31
1.3. Beste Parlamentu batzuetako goi ordezkarietara helarazitako kexak.....	34
1.4. Baietsitako kexak.....	34
1.5. Kexen benaketa, gaiaren arabera.....	36
1.6. Kexak sorrarazi dituzten Administrazio Publikoak.....	38

II. KAPITULUA KEXEN EBALUAZIOA.....	47
-------------------------------------	----

2.1. Aitzinsolasa.....	47
2.2. Aurkeztutako kexak, gaiaren arabera.....	48
2.2.1. Nekazaritza.....	48
2.2.2. Gizarte ongizatea.....	49
2.2.3. Kontsumoa.....	54
2.2.4. Kultura.....	56
2.2.5. Hezkuntza eta irakaskuntza.....	56
2.2.6. Atzerritarrak.....	62
2.2.7. Funtzio publikoa.....	62
2.2.8. Herritarrek administrazio prozesuetan dauskaten bermeak.....	69
2.2.9. Ogasuna.....	72
2.2.10. Industria.....	74
2.2.11. Barne arloa.....	74
2.2.12. Justizia.....	77
2.2.13. Gazteria eta kirola.....	79
2.2.14. Ingurumena.....	80
2.2.15. Herri lanak.....	83
2.2.16. Osasuna.....	84
2.2.17. Gizarte segurantza.....	88
2.2.18. Servitzu publikoak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.....	90
2.2.19. Lana.....	92
2.2.20. Trafikoa.....	94
2.2.21. Hirigintza.....	95
2.2.22. Euskara.....	98
2.2.23. Etxebizitza.....	100
2.2.24. Besterik.....	106

III. KAPITULUA. EBAZPENAK	111
3.1. Balorazio orokorra	111
3.1.1. Emandako ebazpenak	111
3.1.2. Administrazio publikoen onarpen-maila, arartekoaren ebazpenak direla eta	113
3.2. Onartu diren ebazpenak	118
3.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onartutako ebazpenak	118
3.2.2. Nafarroako toki entitateek onartutako ebazpenak	137
3.2.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuek onartutako ebazpenak	155
3.3. Onartu ez diren ebazpenak	156
3.3.1. Administrazioak erakunde honen ebazpena ez onartzea justifikatu duen kasuak	156
3.3.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa	156
3.3.1.2. Nafarroako toki entitateak	157
3.3.2. Administrazio publikoek onartu ez dituzten ebazpenak	158
3.3.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa	158
3.3.2.2. Nafarroako toki entitateak	165
3.4. Beste arrazoi batzuegatik 2009an itxitako ebazpenak	169
3.5. 2009ko abenduaren 31n erantzun gabe zeuden ebazpenak	170
3.5.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa	170
3.5.2. Nafarroako toki entitateak	179
3.5.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuk	188
3.6. 2008ko abenduaren 31 baino lehen emandako ebazpenak, administrazioaren erantzunaren zain geratu zirenak	188
3.6.1. Onartu diren ebazpenak	189
3.6.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa	189
3.6.1.2. Nafarroako toki entitateak	194
3.6.1.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuk	203
3.6.2. Onartu ez diren ebazpenak	204
3.6.2.1. Administrazioak erakunde honen ebazpena ez onartzea justifikatu duen kasuak	204
3.6.2.2. Administrazioak onartu ez dituen ebazpenak	204

IV. KAPITULUA. ERAKUNDEAK BERE KABUZ EGINIKO IKERKETAK...211

4.1. Erakundeak bere kabuz eginiko jarduerak	211
4.2. Gaien araberako laburpena	222
4.3. Laburpena, administrazio publikoen arabera	225
4.4. Nafarroako haurren eta nerabeen egoerari buruzko informazioa	227

V. KAPITULUA. ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

5.1. Herritarren proposamenak	239
5.2. Proposamenak sorrarazi dituzten administrazio publikoak	245

VI. KAPITULUA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN NAGUSIAK.....249

6.1. Aitzintsolasa	249
6.2. Gomendioak eta iradokizunak arloka	250
6.2.1. Nekazaritza	250
6.2.2. Gizarte ongizatea	252
6.2.3. Hezkuntza	259
6.2.4. Funtzio publikoa	265
6.2.5. Herritarren bermeak administrazio prozesuetan.....	272
6.2.6. Ogaun publikoa	276
6.2.7. Barne arloa.....	277
6.2.8. Justizia	279
6.2.9. Ingurumena	279
6.2.10. Herri lanak	282
6.2.11. Zerbitzu publikoak	283
6.2.12. Osasuna	284
6.2.13. Lana	287
6.2.14. Trafikoa	287
6.2.15. Hirigintza	289
6.2.16. Euskara	291
6.2.17. Etxebizitza	292

VII. KAPITULUA. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NAFARROAKO ARARTEKOAREKIN LANKIDETZAN JARDUETA.....297

7.1. Nafarroako administrazio publikoek atartekoati laguntzeko duten betebeharra	297
7.2. Laguntzeko betebeharraren betetze maila.....	298
7.2.1. Ikerketa-fasean Arartekoaren eskakizunei erantzun ez dieten edo eskatutako informazioaren bidalketan geroratu diren administrazioak	299
7.2.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.....	299
7.2.1.2. Nafarroako toki entitateak	299
7.2.2. Gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazazpenei erantzun ez zieten administrazioak	300
7.2.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.....	300
7.2.2.2. Nafarroako toki entitateak	300

VIII. KAPITULUA. NAFARROAKO ARARTEKOAREN TXOSTENAK305

8.1. Aitzintsolasa	305
8.2. Txosten bereziak.....	305
8.3. Nafarroako Parlamentuak eskatutako txostenak	306
8.4. Foru Parlamentariak eskatutako txostenak	309

IX. KAPITULUA. ERAKUNDEAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN IZAN DUEN ZUZENEKO HARREMANA.....	313
9.1. Informazio bulegoa.....	313
9.2. Gizarte zibilarekin izandako harremana	318
X. KAPITULUA. ERAKUNDEAREN KALITATEARI BURUZKO EBALUAZIOA	321
10.1. Herritarrek erakundearen baliagarritasunari eta etaginkortasunari buruz duten iritzia	321
10.2. Kexak izapidetzeko batez besteko epeak	326
ERANSKINA	329
I. Erakundearen 2009ko aurrekontuaren likidazioa.....	329
II. Erakundearen lan-talde organikoa eta langileak.....	338

aurkezpena

2009

aurkezpena

2009



Francisco Javier Enériz Olaechea

Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

13

Herriarren eskubideak eta askatasunak defendatzea xede duen eta zuzentzeko ohorea dudan erakundearen bederatzigarren urteko txostena Nafarroako Parlamentuan azaltzeko aukera eta pribilegioa daukat. Txosten honen bidez, Nafarroako herria ordezkatzen duen foru erakundeari jakitera ematen zaio Nafarroako Arartekoak Nafarroako administrazio publikoen jarduera ikuskatzearen arloan egin duen lana.

Hori dela eta, iragan den 2009. urtean garatutako eginkizunaren laburpena aurkeztu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet bai Nafarroako Parlamentuari, bai Nafarroako administrazio publikoei beste urte batez erakunde honekiko erakutsi duten jarrera onarengatik eta lankidetzarengatik; halaber, herritarrei eskerrak eman nahi dizkiet erakunde honetan lan egiten dugunongan jartzen duten konfiantzarengatik, hari kexak eta ekimenak aurkezten baitizkiote. Denon xedea baita, izan ere, gure erkidegoko zerbitzu publikoak hobetzea. Horixe da, hain zuzen ere, erakunde honek, azken batean, bilatzen duen helburua: alde batetik, herritarren eskubideak bermatzea; eta beste aldetik, aldi berean, pertsonak jasotzen dituzten zerbitzu publikoen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.

2009an, zalantzarik gabe, jarduera trinkoa izan du erakundeak. Honakoek islatzen dute hori: 1.069 kexa izapidetu dira (horietatik, 901 kexa urtean zehar aurkeztuak), 1080 kontsultari erantzun zaie, ofiziozko hogeita hamar jarduera zabaldu dira; zerbitzu publikoak hobetzeko berrogeita hamar proposamen izapidetu dira; eta Nafarroako Parlamentuari sei txosten monografiko aurkeztu zaizkio.

Agian, ekitaldiko daturik aipagarriena izan da herritarrek aurkeztutako kexen kopuruak gora egin duela. Adierazi bezala, 901 kexa erregistratu dira, hain zuzen ere 2008an aurkeztutakoak (647 kexa) baino % 39 gehiago, eta 2007an aurkeztutakoak (447 kexarekin itxi zen) baino % 101 gehiago –bikoitza, alegia–. Datu horiek bidea ematen dute ondorioztatzeko herritarrek gero eta hobeki ezagutzen dutela erakunde hau, eta erakundeak haien konfiantza eta laguntza lortu duela; horrekin, izan ere, foru erakundeen osotasunean finkaturik ageri da, erakunde gaztea izanda ere.

Herritarren kexen kopuruak gora egiteak arlo gehienetan izan du eragina. Arlo jakin batzuk salbuespena dira; honakoak hain zuzen: ogasuna, gizarte segurantza, atzerriartasuna, administrazio publikoek herritarrei tratu egokia ematearen bermea, nekazaritza, kultura, industria eta turismoa. Gainerako arloetan, ordea, kexen igoera da ezaugarrietako bat.

Erakundearen bilakaeran, lehendabiziko aldiz kea gehienak herritarrak hizkuntza-eskubideez baliatzeari buruzkoak izan dira, hain zuzen ere Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean aitorturiko eskubideez. Horren zuzeneko arrazoia da Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazio pribatuak gure erakundera igortzen dituela administrazio publikoekiko harremanetan euskararen erabilera dela-eta herritarrengandik jasotzen dituen erreklamazioak.

Beheranzko hurrenkerari jarraituz, aurkezturiko kexen kopuruari dagokionez, arloen bigarren eta hirugarren multzoa funtzio

publikoari eta gizarte ongizateari buruzko gaiak betetzen dute, hurrenez hurren. Lehendabiziko gai horretako kexen igoera % 30ekoa izan da; bigarren arloan, berriz, % 28koa izan da igoera. Litekeena da horrek aditzera ematea krisi ekonomikoak herritarrentzat hain sentikorrek diren bi arlo horietan eragina izan duela; alegia, enplegu publikorako sarbidean eta prestazio sozial publikoak lortzean.

Hezkuntzari buruzko kexek laugarren tokia betetzen dute. Arlo horretan % 100eko hazkunde nabarmena gertatu da, eta horrek erakusten du arlo horrek gizartearentzat garrantzi handia izaten jarraitzen duela.

Kopuruari dagokionez, bosgarren tokiari eusten diote, administrazio publikoek informazioa eman eta espedienteak legediak xedatzen duen epean ebazteko betebeharrari buruzko eta tratu txarra edo deskortesia jokabide zehatzei buruzko kexek.

15

Seigarren tokian, etxebizitzarako eskubidearekin lotutako kexak ageri dira: aurreko urtekoen aldean % 32ko hazkundera izan da arlo honetan. Zazpigarren tokian, osasunari buruzko kexak daude, zeinek % 12 egin baitute gora aurreko urtearekin alderatuta.

Erregistratutako kexen guztizkoan, ezin da ondorioztatu zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa osatzen duten Nafarroako botere publikoei dagozkien egitekoetan egiturazko akatsik dagoenik. Are gehiago, ondoriozta daiteke herritarren kexek agerian jartzen dituzten akats jakin batzuk salbuetsita, Nafarroan estatu molde hain aurreratu horrek ongi funtzionatzen duela, nota oso onarekin funtzionatu ere. Funtzionatzen dute osasunak, hezkuntza, gizarte politikek, politika aktiboek, ogasunak, herritarren segurtasunak, obra eta zerbitzu publikoek eta abarrek, bai foru administrazioek, bai toki administrazioetakoek ere. Hori, noski, ez da eragozpena zerbitzu publikoak hobetu behar izateko, akats puntualak edo zabarkeriak atzematen direnean.

Kudeatutako kexei erreparatuta, erakundeak hamarretik bederatzi onartu ditu, herritarrak helarazitako gaiaren sakoneko aldea aztertzeko. Ehuneko hain altu horren arrazoia da herria –hau da, herritarren eskubide eta askatasun publikoen gauzatzea– defendatzeko xedea duenak ezin duela horma formalista eta burokratikorik eraiki oztopatuko duena herritarrak eskubideak bermatzeko eta administrazioaren jarduera ikuskatzeko eginkizunera irits daitezzen. Kasuen % 11n ez da iristen Administrazioari informazioa eskatzera; izan ere, halakoetan, zuzenean erantzuten zaio herritarrari, erakundeak ongi ezagutzen baitu planteaturiko gai zehatzean legearen eta hura interpretatzen duen jurisprudentziaren aurrean herritarra zein egoeratan dagoen.

Gainera, onartutako bederatzi kexetatik, bat beste legebiltzar autonomikoren bateko ordezkariari igorri zaio edo, nagusiki, Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari, haien eskumeneko gai bat delako. Puntu horretan, nabarmendu beharra dago erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarrekiko laguntza egokiak eta leialak direla; are nabarmenagoa da hori Estatuko Arartekoaren kasuan.

Onartu ez diren kexak gehienetan ez dira onartu azaldutako gaiak izaera juridiko pribatua duelako, epailearen erabakiaren zain dauden auziak direlako edo, kasu gutxi batzuetan, aurretik Administrazioari aurkeztu ez zaion gai bati buruzko kexak direlako.

Izapidetzeko onartu diren bi kexetatik bat guztiz edo zati batean baietsi du erakundeak. Hori dela eta, baietsitako kexen ehuneko aurreko urteetako maila berean dago.

Kexak direla eta, 332 ebazpen eman dira. Kopuru horrek % 37,8ko igoera erakusten du aurreko urteko datuekin alderatuta, eta horrekin atzeman daiteke erakundeak 2009an jarduera handiagoa izan duela.

Emandako kexen eta ebazpenen kopuruan izandako igoera horrek eragin negatiboa izan du Nafarroako administrazio publikoek Nafarroako Arartekoak aztertutako gaietan eman dituen erabaki eta bitartekaritzak onartzeko garaian. Onarpen hori, izan ere, % 82koa da, baina hobeki ehuneko altuagoak iritsi izan balira, zeren eta horrek herritarren eskubideen aldeko jarduera argiagoa erakutsiko bailuke.

Kexak alde batera utzita, 2009an, Nafarroako Arartekoak hogeita hamar ofiziozko jarduera egin ditu. Horietatik gehienak honako arloetakoak izan dira: gizarte gaiak (arlotan, izan ere, Arartekoaren eginkizuna nabarmenagoa da, pertsona zaurgarrienen eskubideak defendatu behar baititu), hezkuntza, osasuna eta zerbitzu publikoak.

Herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko aurkeztu dituzten proposamenei dagokienez –horrekin, herritarrek gai publikoetan parte-hartze zuzenagoa izan dezaten bideratu da–, berrogeita hamar proposamen aurkeztu dira. Proposamenean honako gaiak jorratu dira, besteak beste: gizarte laguntza, hezkuntza, osasunaren babesa, toki entitate mankomunatuaren kudeaketa, ogasuna, ingurumenaren babesa eta obra eta zerbitzu publikoak hobetzea. Nabarmendu beharra dago administrazioek eta Nafarroako Parlamentuak proposamen horiek hein handi batean onartu dituztela, eta horietako batzuk lege- eta erregelamenduxedapenetan jaso ere egin dituztela. Zalantzarik gabe, Nafarroak horrela bere biztanleen kultura maila handia erakusten du, bai eta gai publikoak direla-eta herritarrek erakusten duten kezka eta botere publikoek beren herritarren kezkei eskaintzen dioten arreta ere. Horrek guztiak, izan ere, demokrazia parte-hartzailearen adibide erreal horretan esku hartzen duten guztiak oharatzen ditu.

Sei izan dira Nafarroako Arartekoak egin dituen eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu dituen gai bakarreko txostenak: a) bi, erakundearen beraren ekimenez: horietako bat, Nafarroako Osasun Sistema Publikoko zerbitzuen zorroari buruzkoa, eta

bestea edari alkoholduen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboek buruzkoa; b) hiru, Nafarroako Parlamentuko organoek eskatuta; horietan, aztertu da Nafarroako Arartekoaren erakundearen eskumenak zabaltzeko aukera, adingabeak babestearen arloan, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren arloan, eta atzerritarren eta immigranteen eskubideen arloan; eta c) azkenik, txosten bat egin da foru parlamentari batek eskatuta, hain zuzen ere laguntza mediko espezializatuko kontsultak eta probak egiteko anezka erako garraio-zerbitzu kolektibo eta egokituari buruzkoa.

Erakundearen Informazio Bulegoak –haren eginkizuna da babesa eta aholkua emanaz laguntza zuzena eta batere formalista ez dena ematea bertara jotzen duten herritar ugariei– jardueran gora egin du, kexa-idazkiak itxuratzeko lanari eta idatzizko kexak hartzeari dagokienez; bestalde, behera egin dute bulego horretan eginiko kontsulten kopuruak, 2008an 1.529 izatetik 2009an 1.080 izatera pasa baitira. Herritarrek gero eta hobeki ezagutzen dituzte beren eskubideak, eta zuenean jotzen dute kexa aurkeztera, kontsultaren tarteko izapidea bete gabe.

Gainera, 2009an, 122.811 sarrera kontabilizatu dira erakundearen webgunean. Herritarrek gure erakundearen baliabide telematikoak erabili dituztenean, helburu izan dute bai kexak aurkeztea, bai kontsultak egitea edo zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak aurkeztea, bai erabiltzaileei erakundearen jardueraren arlo guztiei buruz eskaintzen zaien informazioa –etengabe gaurkotzen dena– kontsultatzea (informazio horretan jardueraren kalitateari buruzko adierazleak ere ageri dira).

Laburbilduz, erakundeak jaso dituen kexen kopuruari dagokionez 2009. urtea bereziki trinkoa izan da. Izan ere, 2.067 izan dira guztira egin diren jarduerak (alde batera utzita jardunaldi, ikastaro, hitzaldi edo mintegietara joatea edo komunikabideei arreta egitea, iritzi publikoaren eramaileak eta adierazpen

askatasunaren aldeztaleak baitira...). Eta botere publikoei egin zaizkien legezko betebeharren gogorazpenak, gomendioak era iradokizunak 467 izan dira (aurreko urtean baino % 5 gehiago). Hori guztia beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta populazio txikia duen lurralde batean, Nafarroan. Horrek, izan ere, erakusten du gizarteak gero eta gehiago jokutzen dutela erakunde honekiko lankidetzan; eta gizarte horrexek, hain zuzen ere, eginiko balorazioaren arabera, Nafarroako Arartekoak kasuan kasuko arazo partikularretan izandako esku-hartzeari 8 eta 10 bitarteko nota dagokio.

Erakundearen austeritateari eta efizientziari dagokionez, nabarmendu beharra dago emaitza horiek guztiak lortu direla erakundearen aurrekontu publikoan % 17 aurreztuta. Jokaera hori, izan ere, 2007ko eta 2008ko ekitaldietako aurrezpenaren ildoan dago.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet erakundearen lan egiten duten pertsona guzti-guztiei, beren ahalegin, konpromiso eta dedikazioarengatik. Guztien artean herritarrei zerbitzatu diete eta zerbitzatzun diete, eta egiazki defendatzen dute legeek herritar horiei aitorturiko eskubideak egiaz gauzatu ahal izatea.

Guzti-guztiei, herritarrei, haien elkarteei, botere publikoei eta erakundeko langileei, eskerrak eman nahi dizkiet hainbesteko jarduera trinkoa izan dugun 2009. urtean egindako lanarengatik.

Iruñean, 2010eko martxoaren 1ean

Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

aitzinsolasa

2009

aitzinsolasa

2009

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36. artikulua ezartzen du Arartekoak urtero emanen diola egindako kudeaketei buruzko txostena Nafarroako Parlamentuari eta txosten hori ohiko bilkura-aldian aurkeztu beharko diola erakunde horri.

Bestalde, foru lege horren 37.1 artikulua zehazten du urteko txostenean Nafarroako Arartekoak azalduko dituela aurkeztutako kexen kopurua eta motak, eta horietatik zenbat utzi diren alde batera eta zergatik; baita zenbat gai ikertu diren eta ikerketa horien emaitzak ere. Gainera, Nafarroako administrazio publikoek onartu dituzten ohar, iradokizun, gogorazpenak edo gomendioak zehaztuko ditu.

Agindu horiek betetzeko, urteko txosten honetan Nafarroako Arartekoaren erakundeak 2009an zehar garaturiko jarduerari buruzko datuak jaso ditugu.

Txostena hamar kapitulutan banatuta dago.

23

Lehendabiziko kapituluan, aurkeztutako kexen kopuruari eta motari buruzko datuak eskaini dira. Kexen arloz arloko sailkapena, ukitutako administrazio publikoak eta eginiko ikerketen emaitza ere jaso dira.

Bigarren kapituluan, azaldu eta aztertu dira herritarrek beren kexetan planteatzen dituzten sakoneko arazoak. Kapitulu hori arloz arlo aurkeztuta ageri da, eta hartan, laburbilduta daude herritarrek aurkezturiko kexei dagozkien gaiak.

Hirugarren kapituluan, kexa-espedienteetan emandako ebazpenei buruzko informazioa eman da. Halaber, egindako gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenen kopurua azaldu da, bai eta Nafarroako administrazio publikoek haiek noraino onartu edo errefusatu dituzten ere. Ez dugu bertan jaso emandako ebazpenen eduki osoa, erakundearen web

atarian <http://www.defensornavarra.com> eskuratu baitaiteke, “Ebazpenak” izeneko atalean.

Ofizioz eginiko jarduerak eta ikerketak, berriz, laugarren kapituluan jaso ditugu. Gainera, haurren eta nerabeen egoerari buruzko balorazioari buruzko datuak eman ditugu, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikuluan ezarri bezala.

Bosgarren kapituluan, herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko egin dituzten proposamenak jaso dira.

Seigarren kapituluan, administrazio publikoei, kexen, ofiziozko jardueren eta herritarren proposamenen ondorioz, egindako gomendio eta iradokizun nagusiak jaso dira.

Zazpigarren kapituluan, kasu zehatz batzuk jaso dira, non administrazio publikoek ez duten agertu legeak eskatzen duen lankidetzeta-maila.

2009an eginiko txosten bereziak zortzigarren kapituluan aipatzen dira.

Bederatzigarren kapituluan, herritarrek Informazio Bulegoaren laguntza eskatu duten kontsultak eta arloak jaso dira. Halaber, erakundearekin hartu-emanak izan dituzten gizarte zibileko organismoak aipatzen dira.

Hamargarren kapituluak herritarrek, inkesta anonimoen bitartez, erakundea dela-eta egiten duten balorazioa islatzen du.

Azkenik, txostenak eranskin bat dauka, non aurrekontuaren likidazioa eta erakundearen lan-taldea jaso baititugu, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak ezartzen duen moduan.

1 _ kexen estatistika orokorren

2009

1 _ kexen estatistika orokorren



2009

I. KAPITULUA

KEXEN ESTATISTIKA OROKORREN

1.1. DATU OROKORRAK


Kapitulu honen bidez kexen analisi estatistikoa egingen dugu baina, aurrez, adierazi beharra dago datuen azterketa Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak kexen inguruan erabiltzen duen definizioan oinarritzen dela. Zehatz-mehatz, 4/2000 Foru Legearekin bat, herritarrek Administrazio Publikoaren jardueraren edo jarduera-ezaren aurka aurkezten dituzten erreklamazioak hartu behar dira kexatzat.

Ñabardura esanguratsua da hori. Izan ere, Arartekoaren ohiko jarduna, herritarren kexak aztertzeaz gain, bere kabuz ikertzea ere bada, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako administrazio publikoen eskaerari jarraiki besteak beste. Bestalde, Arartekoaren beste egiteko bat da herritarrek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzu publikoak hobetzeko aurkeztutako proposamenak aldezte. Hain zuzen ere, kexen esparruaz kanpoko esku-hartzea txosteneko IV. eta V. kapituluetan landuko dugu.

Honako hauek dira kexei buruzko daturik nabarmengarrienak:


1. Herritarrek 2009an **aurkeztutako kexen kopurua** 901ekoa izan da. Hau da, % 39ko hazkundera izan da 2008aren aldean, 647 kexa aurkeztu baitziren orduan, eta % 101eko hazkundera 2007aren aldean, 447 kexa aurkeztu baitziren urte hartan. Gainera, 2009a izan da erakundera sortu zenetik, zenbaki absolututan, kexa gehien aurkeztu diren urtea. Erakundeetan, lanean eman dituen zortzi urtetan, lau mila eta hirurehun kexa aurkeztu dira guztira.

Urteko kexak 2009-2008




2. Erakundeak 2009an **kudeaturiko kexen kopuruari** dagokionez, 1.069 izan ziren guztira; izan ere, 2009an aurkeztutakoez gainera, aurreko urteetako 168 kexa izapidetu baitziren.

Kudeatutako kexak 2009-2008



2009ko abenduaren 31n, 859 espediente **ebatzita zeuden**; hau da, kudeatutakoen % 80.


2009ko abenduaren 31n –ekitaldia ixteko data–, gainerako 210 kexak ebazteko daude.



3. Herritarrek **kexak aurkezteko gehien erabilitako bidea** zuzenean aurkezteak izaten jarraitu du, beste behin: kexen % 44 Nafarroako Arartekoaren bulegoan zuzenean aurkeztu ziren. Kexen % 30 posta arruntez igorri ziren, eta % 23, berriz, posta elektronikoz edo erakundearen webgunearen bitartez aurkeztu ziren. Kexen % 3 fax bidez aurkeztu ziren.

Ikus daitekeen bezala, kexak zuzenean aurkeztea da gehien erabiltzen den bidea. Hala eta guztiz ere, datu hauek 2008an lortutakoekin alderatuz gero, egiazta daiteke kexak zuzenean aurkezteko bidea 2008an % 54 izatetik 2009an % 44 izatera pasa dela. Halaber, posta arruntez aurkeztutakoek eta bide elektronikoen bidez aurkeztutakoek gora egin dute.


Kexak aurkezteko modua



- Aurkeztutako 901 kexetatik, 696 **banakakoek** aurkeztu zituzten, eta 203, aldiz, **talderen batek**, pertsona multzo batek alegia. Gainera, izenik gabeko 2 kexa aurkeztu ziren.
- Kexa sustatu duen pertsonaren profilarri dagokionez, **gizonezko** gehiago daude **emakumezko** baino, alde txikiz bada ere. Zehazki, banakoen kexen % 51 gizonezkoek aurkeztu zituzten, eta % 49, aldiz, emakumezkoek.
- 2009an, gora egin zuen euskaraz edo elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz) aurkeztutako kexen kopuruak. 138 kexa aurkeztu ziren euskaraz (% 15); 2008an, berriz, 53 baizik ez ziren izan.

1.2. ONARTUTAKO KEXAK

Onartutako kexak (herritarrak aurkeztutako sakoneko gaiari buruz erakundeak alde bateko zein besteko iritzia eman zuenekoak) 876 izan ziren. Kudeatutako kexa guztien (1.069) % 82 egiten dute.



31

2009an 117 izan ziren izapidetzeko onartu ez ziren kexak. % 11 egiten dute kudeatutako kexen guztizkoan. Horrenbestez, hamar kexa bakoitzeko bat ez zen izapidetzeko onartua izan.

Kasuen % 20an (24 kexa), izapidetzeko ez onartzea arrazoi subjektiboengatik izan zen. Esate baterako, kexa-egileak datuak ez ematea (hamabi kasutan); interesdunak berak kexa bertan behera uztea (bederatzi kasutan); kexa izenik gabekoa izatea (bi kasutan); eta interes legitimorik ez izatea (kasu batean).

Nabarmentzekoa da, kexa bat horietako arrazoiren bat dela-eta (bereziki, daturen bat ez emateagatik edo Nafarroako Foru


Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak forma aldetik xedatzen duen eskakizunen bat ez betetzeagatik) ez onartzea erabaki aurretik, erakundeak antzematen duen gabezia betetzeko askotariko aukerak ematen dizkiela herritarrei, hainbat bidetatik gauza ditzaten. Alde horretatik, Arartekoa formalismoaren kontrakoa da berez eta ez da oso burokratikoa baina, zenbaitetan, ahaleginak ahalegin, herritarrek ez dituzte ematen espedienteak bideratzeko beharrezko datuak eta, hortaz, amaitutzat eman behar dugu.

Arrazoi subjektiboez gain, badira arrazoi objektiboak direla-eta onartzen ez ditugun kexak. 2009an, esaterako, 93 kexa ez genituen onartu arrazoi horiengatik, eta egileak aholkatu egin genituen aurrez.

Arrazoi objektibo horien artean honakoak daude, besteak beste: kexa garaiz kanpo aurkeztea, hura aurkezteko urtebeteko gehieneko epea iraganik egoteagatik (zazpi kasutan); Arartekoak ebazteko proposatzen den auzia ezin ikertzea, dela alor juridiko pribatukoa delako (hogei kasutan), dela epaitegietako prozedura baten gaia delako (hamabost kasutan), dela helburu jakinik ez duelako (zazpi kasutan) edo dela auzia administrazio eskudunari planteatzeko betebeharra bete ez eta zuzenean Arartekoari planteatu zaiolako (hamaika kasutan).


Azkenik, bederatzi espediente ez genituen onartu amaitutzat emandako gai bati buruzkoak zirelako, eta beste hogeita lau, Arartekoak ez zuelako haiek bideratzeko eskumenik.

Arrazoi subjektiboengatik



- Izen gabea
- Ez ditu datuak osatu
- Atzera egitea
- Interes legitimorik gabe

Arrazoi objektiboak, aholkuarekin



- Juridiko-Pribatua
- Uttebete baino gehiako
- Hirugarrenetzako Kaltea
- Eskumenik ez
- Epaiaketaren zain
- Asmorik gabe
- Administrazioan errekurtsoa aurkeztu gabe
- Bukatua, gaia aztertua

1.3. BESTE PARLAMENTU BATZUETAKO GOI ORDEZKARIEI HELARAZITAKO KEXAK

2009an, 76 kexa (Nafarroako erakundeak kudeatutako guztien % 7) helarazi genizkien guztira Nafarroaz kanpoko parlamentuek herritarren eskubideak babesteko izendatutako goi ordezkariari.

76 kexa horietatik 71 Gorte Nagusiek hautatutako Arartekoari igorri genizkion, eta lau, berriz, beste autonomia erkidego batzuetako arartekoei; kexak banatzeko, berriz, honako irizpidea izan genuen: gaia aztertzeko eskumena zeini zegokion, harixe bidali genion.

Datu horrek bidea ematen du baieztatzeko Nafarroako herritar gehienek zuzenean jotzen dutela foru erakundera, eta erakunde horren eskumenen esparruaren jakitun direla.


1.4. BAIETSITAKO KEXAK

Onartutako kexen azterketa eta analisia egin ondoren, espedienteen % 50ean arrazoa eman zaio erreklamazioa aurkeztu duenari (440 kasutan).

Aipatu 440 kasuetatik, ikuskatutako administrazio publikoak hirutik bitan (300 espediente) erakundearen erabakia onartu zuen, eta 66 aldiz, berriz, ez zuen onartu. Abenduaren 31n, Nafarroako Arartekoak baietsitako 74 kexa-espedientetako erantzunak, Nafarroako administrazio publikoenak, jaso gabe geunden.

Hartara, erantzun gabe dauden espedienteak kenduta, Nafarroako administrazio publikoek kasuen % 82an onartu dituzte Nafarroako Arartekoak hartutako erabakiak.

Onartutako beste 293 espedientetan –guztizkoaren % 33an–, erreklamazioa arrazoiak emanez ezetsi zen, aztertu eta ondoren.



1.5. KEXEN BANAKETA, GAIAREN ARABERA

Arloei erreparatuta, 2009an aurkeztutako kexak honela bana daitezke:

Alorrak	2009		2008		Aldaketa	
Euskara	136	15,09%	37	5,72%	99	267,57%
Funtzio publikoa	85	9,43%	65	10,05%	20	30,77%
Gizarte ongizatea	77	8,55%	60	9,27%	17	28,33%
Hezkuntza eta irakaskuntza	68	7,55%	34	5,26%	34	100,00%
Herritarren bermeak						
prozedura administratiboetan	68	7,55%	70	10,82%	-2	-2,86%
Etxebizitza	65	7,21%	49	7,57%	16	32,65%
Osasuna	55	6,10%	49	7,57%	6	12,24%
Hirigintza	39	4,33%	25	3,86%	14	56,00%
Inguirumena	38	4,22%	26	4,02%	12	46,15%
Trafikoa	35	3,88%	32	4,95%	3	9,38%
Ogasuna	33	3,66%	36	5,56%	-3	-8,33%
Barne arloa	33	3,66%	25	3,86%	8	32,00%
Justizia	29	3,22%	13	2,01%	16	123,08%
Zerbitzu punlikoak	27	3,00%	23	3,55%	4	17,39%
Herri lanak	22	2,44%	15	2,32%	7	46,67%
Merkataritza	17	1,89%	11	1,70%	6	54,55%
Lana	16	1,78%	4	0,62%	12	300,00%
Gizarte segurantzza	15	1,66%	28	4,33%	-13	-46,43%
Bestelakoak (toki entitateen						
funtzionamendua)	12	1,33%	8	1,24%	4	50,00%
Bestelakoak						
(juridiko-pribatuen)	12	1,33%	3	0,46%	9	300,00%
Nekazaritza	8	0,89%	17	2,63%	-9	-52,94%
Atzerriartasuna	5	0,55%	9	1,39%	-4	-44,44%
Gazteria eta kirola	3	0,33%	2	0,31%	1	50,00%
Kultura	2	0,22%	2	0,31%	0	0,00%
Industria	1	0,11%	3	0,46%	-2	-66,67%
Turismoa	0	0,00%	1	0,15%	-1	-100,00%
Guztira	901	100,00%	647	100,00%	254	39,26%

Aurkeztutako kexa gehienak lotuta daude administrazio publikoetan **euskara** erabiltzeko eskubideaz baliatzearekin. Arlo horretan erregistraturiko kexek urteko kexa guztien % 15 egiten dute. Hazkunde horren arrazoia da Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazio pribatuak Arartekoari igortzen dizkiola herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea dela-eta Nafarroako administrazio publikoek eginiko balizko urratzei buruz jasotzen dituen kexak.

Funtzio publikoaren arloko kexek bigarren tokian jarraitzen dute. 2008ko termino berdinetan mantentzen dira, betetzen duten tokiari dagokionez.

Kexen hirugarren multzoa **gizarte ongizatearen** arlokoek betetzen dute: % 9,3 izatetik % 8,5 izatera pasatu dira.

Hezkuntzaren arloko kexek gora egin dute 2008. urtearekin alderatuta, eta arloetako laugarren tokia betetzen dute. % 7,5 egiten dute guztizkoan; 2008an, berriz, % 5,3 baizik ez zuten egiten.

Bosgarren tokian, administrazio publikoek **informazioa eman eta espedienteak legediak xedatzen duen epean ebazteko betebeharrari buruzko** eta tratu txarra edo deskortesia jokabideei buruzko kexak daude. Kexa horiek 2008an ugariago izan ziren. 2009an, bosgarren tokia hartzen dute eta guztizkoaren % 7,5 dira; aurreko urtean, aldiz, % 10,8 egiten zuten.

Etxebizitzari buruzko kexak aurreko urteko antzeko kopuruan mantentzen dira, % 7,5 baitira.

Osasunari buruzko kexen kopuruak behera egin du, ehunekoari erreparatuta, aurreko urtearen aldean. Izan ere, orduan erregistratutako guztien % 7,6 ziren eta orain, berriz, % 6,1 dira.

Gainerako arloak ez dira aurkeztutako kexa guztien % 5era iristen.

1.6. KEXAK SORRARAZI DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

2009an aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aurkeztu zitzaizkion, beren departamentu edo erakunde publikoen jardunarengatik. Horixe da 481 kexaren kasua –guztizkoaren % 53 egiten dute–.

Toki entitateen jardunari buruz, berriz, 284 kexa aurkeztu ziren –guztizkoaren % 31,5–.

Nafarroako Parlamentuaren administrazioa dela eta, bi kexa aurkeztu ziren. Beste bik Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua izan zuten xede.

Estatuko Administrazioa dela eta, hirurogeita hamahiru kexa aurkeztu ziren.

Administrazio judizialari buruz, berriz, hamasei kexa aurkeztu ziren.

Beste hamalau kexa sozietate publikoen eta lanbide elkargoen jardunari buruzkoak izan ziren.

Bi kexa hauteskunde-administrazioari buruzkoak izan ziren.

Beste hamar kexa Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzkoak izan ziren.

Lau kexa aurkeztu ziren administrazio autonomikoei eta nazioarteko administrazioari buruz.


Azkenik, hiru kexa ente pribatuei eta zehaztu gabeko beste subjektu batzuei buruzkoak izan ziren.

KEXEN BIDEZ GAITZETSITAKO ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDE PUBLIKOAK

	Kexa kop	%
Foru administrazioa	481	53,4%
Toki administrazioa	284	31,5%
Estatuko administrazioa	73	8,1%
ADM. Judiziala	16	1,8%
Sozietateak + lanbide elkargoak	14	1,6%
Nafarroako Unibersitate Publikoa	10	1,1%
Autonomia erkidegoetako eta nazioarteko administrazioa	4	0,4%
Nafarroako Parlamentua	2	0,2%
Nafarroako ikus-entzunezkoen kontseilua	2	0,2%
Hauteskunde administrazioa	2	0,2%
Besterik/beste batzuk	13	1,4%
Guztira (*)	901	100,00%

* 4 kexa badaude aldi berean eragina dutenak Foru Komunitateko Administrazioan eta toki entitaterean batean.


Kexen Bidez Gaitzetsitako Administrazio edo Erakunde Publikoak



Honakoa izan zen **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuei** zuzendutako kexen kopurua, haien gaia zein den alde batera utzita:

DEPARTAMENTUAK	Kexa kop.	%
Osasuna	92	19,17%
Hezkuntza	90	18,75%
Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaiak	77	16,04%
Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	69	14,38%
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	65	13,54%
Ekonomia eta Ogasuna	32	6,67%
Landa Garapena eta Ingurumena	17	3,54%
Herri-lanak, Garraioa eta Komunikazioak	17	3,54%
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	14	2,92%
Toki Administrazioa	4	0,83%
Kultura eta Turismoa - Vianako Printzea Erakundea	2	0,42%
Erakundeen arteko harremanak	1	0,21%
Guztira	480	100,00%

* Departamentuen jarduerari buruzko 480 kexa horiei gehitu behar zaie oro har Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa den beste kexa bat, zeinak ez baitu eragin berezirik inongo departamentutan.



Toki entitateei erreparatuta, honakoak izan ziren hamar kexa baino gehiago jaso zituztenak: Iruña (94 kexa), Tuteran (14) eta Barañain (10).

Kontzejuen jokabideei buruz, berriz, 5 kexa aurkeztu ziren.

Mankomunitateen jarduera eta kudeaketa direla eta, 20 kexa aurkeztu ziren.

Xehetasun gehiago izateko, hona datuei buruzko taulak eta grafikoak.

NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI BURUZKO KEXAK

UDALAK	GUZTIRA
ABÁRZUZA	1
ABAURREGAINA-ABAURREA ALTA	1
ADIÓS	1
AGUILAR DE CODÉS	1
AIBAR	1
ALTSASU - ALSASUA	1
ANSOÁIN	4
ANUE	1
AÑORBE	1
ARAKIL	2
ARANGUREN	5
ARBIZU	1
ARRUAZU	1
ARTAZU	1
ATEZ	1
BARAÑÁIN	10
BARÁSOAIN	1
BARGOTA	1

BARILLAS	2
BAZTAN	5
BERIÁIN	2
BERRIOPLANO	3
BERRIOZAR	3
BIURRUN - OLCOZ	1
BURLADA	7
CADREITA	1
CAPARROSO	2
CÁRCAR	3
CASCANTE	1
CÁSEDA	1
CINTRUÉNIGO	1
CIRIZA	1
ZIZUR MAYOR - ZIZUR NAGUSIA	2
CORTES	2
DESOJO	2
DONEZTEBE - SANTESTEBAN	2
EGÚÉS	9
ESTELLA	9
ESTERIBAR	1
ETAYO	1
ETXARRI - ARANATZ	1
FALCES	1
FITERO	3
FONTELLAS	2
HUARTE	2
IRURTZUN	2
LEGARDA	2
LEITZA	1
LESAKA	1
LÓNGUIDA	1
MENDAVIA	1
MILAGRO	2
NAVASCUÉS	2
NOÁIN	4

OBANOS	2
OLAZTI - OLAZAGUTÍA	1
OLITE	5
OLLO	1
OLZA	1
PAMPLONA - IRUÑA	94
PERALTA	2
PITILLAS	2
PUENTE LA REINA	1
SAN MARTÍN DE UNX	1
SANGÜESA	2
TAFALLA	1
TUDELA	14
UJUÉ	1
ULTZAMA	3
URDAZUBI - URDAX	1
VALTIERRA	1
VIANA	1
VILLATUERTA	1
VILLAVA	2
YERRI	1

UDALAK, GUZTIRA	259
------------------------	------------

KONTZEJUAK

ARLEGUI	2
ARTAZA	1
AZANZA	1
LEGASA	1

KONTZEJUAK, GUZTIRA	5
----------------------------	----------

MANKOMUNITATEAK

BEIRE ETA PITILLASKO UDALEN MANKOMUNITATEA	1
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	8
MAIRAGAKO MANKOMUNITATEA	1
JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA	1
ERRIBERAKO HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA	3
ANTSOAINGO, BERRIOBEITIKO ETA BERRIOZARKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	1
ZARRAKAZTELU ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	1
SAKANAKO MANKOMUNITATEA	3
ELIZAGORRI, LODOSA, MENDABIA, SARTAGUDA ETA SESMAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	1
MANKOMUNITATEAK, GUZTIRA	20
GUZTIRA	284

(*) 284 kexetatik, kexa bat badago Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ere eragina duena

2 _ kexen ebaluazioa

2009

2 _ kexen ebaluazioa



2009

II. KAPITULUA KEXEN EBALUAZIOA

2.1. AITZINSOLASA

2009. urtean, herritarrek aurkezturiko kexen kopuruak % 39 egin du gora 2008. urtearekin alderatuta.

Urteko analisiaren ondorengo datuek agerian uzten dute kexen kopuruak gora egin duela ia gai edo arlo guztietan, bereziki administrazio publikoek euskara erabiltzeari dagokionez (37 kexa izatetik 136 kexa izatera iritsi gara). Aitzitik, beste arlo batzuetan, kexen kopuruak behera egin duela atzeman dugu. Izan ere, horixe gertatu da honako arlo hauetan: ogasuna, gizarte segurantza, atzerriartasuna, administrazio publikoek herritarrei tratu egokia emateko bermea, nekazaritza, kultura, industria eta turismoa.

47

2009an aurkezturiko kexei buruzko informazioa hobeki emateko, kexak gaiaren arabera antolatu ditugu, erakunde honek kexa-espedituetan egin dituen iradokizunak eta legezko betebeharren gogorarazpenak aipatu gabe, horiei buruzko informazioa III. eta VI. kapituluetan ematen baitugu.

Azken batean, helburua da ezagutzera ematea herritarrek planteatzen dituzten arazoak, alde batera utzita erakunde honek kasu zehatz bakoitzean esku hartzeko dauzkan aukera errealak, eta alde batera utzita, halaber, zein izan den kexa bakoitzari eman zaion tramitea edo gure jardunak amaieran zein emaitza izan duen. Bilatzen duguna da informazio hori baliagarria izatea Nafarroako Parlamentuari, administrazioei eta, kasua bada, komunikabideei –iritzi publikoaren isla direlako–, bai eta txosten irakurtzen duten guztiei ere, modu eraginkorrean transmititzeko nolako kezkak dituen Nafarroako gizartearen zati batek.

Gaiaren araberako aurkibidea ordena alfabetikoan ematen dugu, kapitulu honen kontsulta errazteko.

2.2. AURKEZTUTAKO KEXAK, GAIAREN ARABERA

2.2.1. Nekazaritza

2009an 8 kexa aurkeztu ziren nekazaritzaren arloari buruz; 2008an, berriz, 17 izan ziren.

Osotara, kexa horiek ez dira iristen guztira erregistratutako kexen % 1era ere. Hain zuzen ere, ehuneko hori txikiagoa da 2008koa baino, urte horretako kexek % 2,6 egiten baitzuten. Horrenbestez, esparru horretan ez dago erakunde honek esku hartzeko eskari handirik.

Aurreko urtean bezalaxe, kexa ia guztiak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari buruzkoak izan dira.

Honako hau da kexa aipagarrien aurkibidea:

- Zenbait abelbide ixtearekin ados ez egotea.
- Desadostasunak eta erreklamazioak lur sailen berrantolamenduko prozesuetan adjudikatutako ordezeko finkengatik edo haien azalerarengatik.
- Ezarri beharreko ureztatzeko programa batean ureztalurrei buruz eginiko mugaketarekin ados ez egotea.
- Ikuskapen administratibo baten emaitzarekin eta oihanberritze prozesu batean eginiko errekerimenduarekin ados ez egotea.

- Herrilurren banaketa-hitzarmenekin ados ez egotea.
- Transgenetikoki aldarazi gabeko produktu eta elikagaien landaketa eta kontsumoa arau bidez erregulatzeko beharra.

2.2.2. Gizarte ongizatea

2009an, 77 kexa aurkeztu ziren; 2008an, berriz 60 izan ziren. Kexa horiek guztizkoaren % 8,5 egiten dute; aurreko urtean, berriz, guztizkoaren % 9,3 egiten zuten. Ondoko gaien buruzko kexak izan dira: adingabeei laguntzeko eta babesteko premiari buruzko 18 kexa; gizarte laguntzak emateari eta ukatzeari buruzko 15 kexa; ezgaitasunari buruzko 14 kexa; Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen (Mendetasunari buruzko Legea) aplikazioaren gaineko 10 kexa; pertsona zaharrei laguntzeko eta babesteko premiari buruzko 8 kexa; eta gizarte premiako beste egoera batzuei buruzko 4 kexa.

49

Honako hau da kexen aurkibidea, gaiaren arabera:

A) Adingabeak

- Adingabeak esku hartzeko beharra adingabeak babesgabetasuneko egoeran dauden kasuetan.
- Ados ez egotea adingabeen zaintza eta babespeari buruz hartu diren erabaki judizial batzuekin eta seme-alabaren zaintza eta babespea ez duen aita-amarentzat erabaki den bisiten araubidearekin.
- Ados ez egotea ezezkoa eman izatearekin adingabe batzuen babesgabetasun egoera dela-eta izapidetutako espediente administratiboa eskuratzeari.

- Ados ez egotea adingabeak babesteko zentroetan hartzen diren neurrietako batzuekin; zehazki, medikazioa erabiltzearekin.
- Ados ez egotea adingabeak hartzeko zentro batean ezarritako bisiten araubidearekin.
- Ados ez egotea adingabe bat aurrena harrera-zentro batean sartzearekin eta hurrena jokabide arazoak dituzten adingabeentzako zentro batean sartzearekin.
- Ados ez egotea beste pertsona batzuek beren ilobak harrera-araubidean hartzearekin.
- Botere publikoek esku hartu behar izatea bere aitak Espainiatik Algeriara eraman dituen bi adingabeen bahiketa kasu batean.
- Familia-harremanei buruzko araudia aldatzeko beharra, ez aita biologikoa ez adopziozko aita ez den izatezko bikoteko kidearen aldeko bisita-eskubideak aitortzeko, bikotekide ohiaren seme-alabekin lotura afektiboa ezarri denean.
- Ados ez egotea adingabe bat bilduta zegoen babes-programa batetik kanpo uztearekin, adinduna izatera iritsi denean.
- Ados ez egotea adingabe baten babesgabetasunean atzera egitearekin, eta adingabe hori jatorrizko familiara itzultzearekin.
- Publizitate neurri egokiak ezartzeko beharra, zezen-ikuskitzen edukiari buruz, adingabeak babeste aldera; zehazki, ikuskizunak zezenkoaren heriotza dakarrenean.

- Telebista programek haurrentzako ordutegian duten edukia babesteko eta kontrolatzeko tresnak ezartzeko beharra.

B) Laguntza publikoak

- Ados ez egotea oinarrizko errenta ukatzearekin edo eginiko eskabideei erantzun espresik ez ematearekin.
- Ados ez egotea Elikagaiak Ordaintzeko Berme Funtzaren laguntzak ukatzearekin, eskatzailearen diru-sarrerak direla eta. Funtz hori abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuaren bidez arautu ziren.
- Ados ez egotea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako jasotako diru-sarrerak baloratzearekin, zenbait laguntza edo zerbitzu publiko eskuratzeko elementu erabakigarri moduan.
- Ados ez egotea laguntza behar duen pertsonatzat hartua izateari ezezkoa ematearekin eta, horrenbestez, laguntzak ukatzearekin.
- Ados ez egotea unibertsitate-ikasketak egiteko gastuak itzultzeko eskariari emandako ezezkoarekin, ezgaitasuna eragiten dion gaixotasun bat daukan pertsona baten kasuan.
- Ados ez egotea larrialdiko laguntza bati ezezkoa ematearekin.
- Administrazioak ezez ez egitea familia baten premia larriko egoera baten aurrean.
- Ados ez egotea laguntza ukatzearekin erroldatuta ez egotearen ondorioz, eta erroldatzeko zailtasunak izatearekin.

- Ados ez egotea oinarrizko gizarte zerbitzuak laguntzak ukatzearekin.
- Premia biziko ondasun bat erosteko laguntza ukatzea.

C) Ezgaitasuna

- Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako garraio egokiturik ez egotea.
- Ezgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuneko oinarrizko baldintzak ez betetzea.
- Ados ez egotea Ezinduek Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen babesean jasotako prestazioak amaitzearekin.
- Desadostasuna aitortutako minusbaliotasun gradua-rekin edo haren berrazterketarekin.
- Senide ezgaituei laguntzeko behar den aparkatzeko txartela ukatzea.
- Ados ez egotea gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntza amaitzearekin.
- Ezgaitasunarengatik aitorturiko prestazioen ordainketan atzeratzea.
- Buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egoitzetan sartzeko eta egoteko baldintzak hobetu behar izatea.

D) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen (Mendetasunari buruzko Legea) aplikazioa.

- Aitorturiko prestazioen ordainketan atzeratzea.
- Ados ez egotea laguntzak ukatzearekin edo emandako laguntzekin.
- Ados ez egotea laguntzak aitortzeko eginiko balorazioekin.
- Nafarroako Mendekotasun Agentziaren funtzionamendu okerra diru-laguntzak eta laguntzak kudeatzerakoan.
- Mendetasun gradua berrikusteko eskaria.
- Egoitza publikoetan mendetasuna duten pertsonentzako tokiak behar izatea.
- Ados ez egotea emandako laguntzak aldatzearekin.

E) Familia eta familia eta lana bateragarri egitea

- Ados ez egotea familia ugaria izateagatik jaso daitezkeen laguntzak gutxitzearekin.
- Ados ez egotea hiru urtetik beherako haurrak dituzten emakume langileek laguntzak jasotzeko errenta-mugak ezartzearekin.
- Ados ez egotea familia ugariaren baldintza ukatzearekin.
- Generoko indarkeriaren biktimentzako laguntzak oker izapidetzea.
- Udaletako kirol instalazioak erabiltzerakoan familia ugariarentzako deskontuak ez aplikatzea.

- Ados ez egotea familia eta lana bateragarri egiteko laguntza ekonomiko bat ukatzearekin.

F) Hirugarren adina

- Ados ez egotea zaharrentzako egoitza batean eginiko ikuskapenarekin eta hartatik eratorri den zehapen-espeditentea abiatzearekin.
- Zaharrentzako zentro bateko egonaldian sorturiko zorra ez jakinaraztea.
- Zaharrentzako zentroetan egoiliarrei arreta desegokia ematea.

G) Gizarte gaiei buruzko beste kexa batzuk

- Ados ez egotea publizitate iragarki bateko tratuko bereizkeriarekin, gizonezkoentzat baztertzaila dela jotzen baita.
- Ados ez egotea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluko kideak izendatzeko prozedurarekin.
- Artzapezpikutzaren artxiboetako dokumentazioa eskuratzeko zailtasunak.
- Ados ez egotea udal zerbitzu baten kudeaketarekin.

2.2.3. Kontsumoa

Kontsumoaren arloa dela-eta 17 kexa aurkeztu dira 2009an (% 1,9); 2008an, berriz, 11n izan ziren (guztizkoaren % 1,7).

Kexen edukian kontsumitzailearen babesarekin loturiko gaiak azaltzen dira:

- Telefonia konpainia batek fakturazioa behar bezala ez egitea.
- Zenbait konpainia elektrikok fakturazioa behar bezala ez egitea.
- Bidaia-konpainia baten kudeaketa txarra, ikasketa-bidaia baten kontratu bati dagokionez.
- Aseguru-enpresa bati kalteak erreklamatzeari.
- Banku entitate batek emaniko informazio okerrarengatik erreklamazioa.
- Katalogo bidezko salmentetan gertaturiko irregulartasunak.
- Entitate pribatu batek erantzunik ez ematea behar bezala ordaindu ez zen diru-kopuru bat itzultzeko erreklamazioari.
- Ados ez egotea gas-konpainia batek kontsumoarengatik eta ikuskapenengatik fakturatutako kopuruarekin.
- Banku-entitate batek izenpetutako kontratuaren kopia bat ez ematea.
- Ordenagailu eramangarri bat erosteko laguntza ukatzea.
- Kontsumoaren arloko departamentu eskudunak arretarik ez ematea.

- Ados ez egotea San Fermin jaietan salmenta postu finkoak ezartzeko baimenak emateko onetsitako baldintzen sortarekin.

2.2.4. Kultura

2009an, bi kexa aurkeztu dira arlo honetan: bata, bi toki entitatek liburutegietarako egunkariak erosteko erabilitako irizpideei buruzkoa, eta bestea partikular bati liburu baten aurkezpena egiteko udalaren lokal bat ez uzteari buruzkoa.

2.2.5. Hezkuntza eta irakaskuntza

Arlo honetan, 68 kexa aurkeztu ziren 2009an; 2008an, berriz, 34 aurkeztu ziren. Guztira aurkeztutako kexen % 7,5 egiten dute; joan den urtean, berriz, % 5,2 egiten zuten.

56

Eduki zehatzari dagokionez, honakoa da gaien aurkibidea:

A) Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak (0 - 3 urteko zikloa)

- Bazterketa, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe publikoetan ikasleak onartzeko prozesuarekin, apiriletik aurrera jaiotzen diren haurrei dagokienez, zeren eta ez baita tokirik gordetzen haurrak onartuak izateko adinera (16 aste) iristen direnerako.
- Desadostasuna haur eskoletan ordaindu beharreko kuoten zenbatekoarekin.
- Haur eskola bateko zuzendaritzak oker jokatzeari.

- Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe publikoetan prestazio hobek eskatzea, langileei eta instalazioei dagokienez.

B) Haur hezkuntzako bigarren zikloa eta derrigorrezko irakaskuntzak

- Ados ez egotea Iruñako eta Iruñerriko eskolatzeko eremu mugakideak eta eragin-esparruak deuseztatu izatearekin.
- Ados ez egotea antzinako ikaslearen seme-alaba izatearen eskolatzeko irizpide osagarriarekin, funts publikoekin ordaintzen diren haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan.
- Itundutako ikastetxe batean ikasle bat ez onartzeari buruz motibaziorik ez egotea eta aurkez daitezkeen errekurtsio administratiboari buruzko informaziorik ez egotea.
- Desadostasuna funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxeetako postuen adjudikaziorako zozketak pribatuak izatearekin.
- Administrazioak ezezkoa ematea ikastetxez eta hizkuntza eredu aldatzeko eskariari.
- “D” ereduko hezkuntza-eskaintzarik ez izatea lehen hezkuntzan, berritik sortutako ikastetxeetan.
- Desadostasuna ikastetxe publikoetan material suntsikorrenarengatik kuotak ordaindu behar izatearekin.
- Ikaste batek beste ikasle bati ikastetxe publiko batean emaniko tratu bidegabearen ondorioz sortutako egoera gatazkatsua.

- Hezkuntza administrazioak ezezkoa ematea hezkuntza premia bereziak dituen neska batek haur hezkuntzako lehen zikloan beste urtebetez geratzeari.
- Hezkuntza laguntza ukatzea hezkuntza premia bereziak dituen ikasle bati.
- Desadostasuna ikastetxean egokitzeko zailtasunak dituen ikasle bati emandako tratuarekin.
- Nahaste orokorra duen ikasle bati ezezkoa ematea bizi den herriko ikastetxean geratzeari dagokionez, eta ados ez egotea beste ikastetxe batera eramatearekin, trantsizio-gela batean integratzeko.
- Ados ez egotea ikastetxe publiko batetik heldu diren ikasleak bigarren hezkuntzako institutu bateko ingelesezko ereduan automatikoki sartzearekin.
- Eskolako jantokia erabiltzen ez den egunetako kuoten zati proportzionala ez itzultzea.
- Udalaren diru-laguntzarik ez egotea familia ugariarentzat, udal ikastetxe bateko jantokia finantzatzeko.
- Eskola garraioko eta jantokiko zerbitzu osagarriak ukatzea, bizi den herriaz beste bateko ikastetxera joateagatik.
- Eskaria, gurasoen elkarteek kudeatzen dituzten jantokietan Hezkuntza Departamentuak ezarritako irizpideak aplikatu daitezkeen, elikagai batzuk direla-eta intolerantzia duten haurrei dagokienez.
- Arazoak eskola-garraioko ibilbide bateko kontratazioan.

- Haur hezkuntzako ikasleentzat jantokiko eta garraioko zerbitzu osagarriak ez finantzatzea, familia bizi den herrian “D” ereduko eskaintzarik ez egotearen ondorioz eta anai-arrebak ikasten ari diren ikastetxe berean eskolatuta egoteko xedez, beste herri bateko ikastetxe batera joan behar duten ikasleen kasuan.
- Ados ez egotea hezkuntza administrazioak deitutako bi azterketa publiko eta ofizial egun berean eta ordu berean izatearekin.
- Haur hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxe bateko onarpen-prozesuan zabarkeriaz jokatzeari.
- Tokirik ez adjudikatzea Administrazioak deitzen dituen murgiltze linguistikoko ikastaroetan.
- Ados ez egotea ikastetxe bateko ikasleak beste ikastetxe batera eramatearekin.
- Segurtasunik ez egotea eskola-barruti bat itxi gabe egoteagatik.
- Bizikidetasun-arazoak direla-eta ikastetxez aldatzeko eginiko eskariari ezezkoa ematea.
- Ikasle baten eskola-kalifikazioak ahoz komunikatzerakoan egindako akatsa.
- Ikastetxe batek izaera pertsonaleko datuak bidegabeki lagatzea.
- Beste ikastetxe publiko bat eraiki beharra, oraingoaren egoera txarrarengatik.
- Hizkuntza ereduaz aldatzeko eskariari ezezkoa ematea.

- Ados ez egotea ikastetxeetako zuzendari lanpostuan jardutea betebeharrak izatearekin.

C) Bestelako irakaskuntzak

- Ados ez egotea lanbide heziketako ikastetxeetan eskolatzeko irizpideekin.
- Akats informatikoa Hizkuntza Eskola Ofizialeko matrikulan.
- Ezezkoa ematea baliogabetutako matrikula bateko diruzenbaterako itzultzeari, musika kontserbatorioan.
- Ados ez egotea selektibitate probetarako finkatutako datekin, gradu-ikasketa batzuen hasierarekin bateraezina izateagatik.
- Ikasle baten espediente akademikoa galtzea turismo-ikasketen ikastetxe pribatu batean.
- Baliabide publiko nahikorik ez egotea ikastetxeetako euskarazko kultur jarduerak finantzatzeko.
- Hizkuntza eskola ofizial bateko artxiboetan izandako akatsa ez zuzentzea.
- Bidegabeko bazterketa tasen ordainketan, funtzionarioei eta haien seme-alabei hizkuntza eskola ofizialetako matrikulan aplikatzen zaien beherapenarengatik.
- Ados ez egotea helduentzako administrazio eta finantzetako goi mailako modulu bat ikasteko ezarritako baldintzak aldatzearekin.
- Ados ez egotea lanbide heziketako ikastetxeetako ebaluazio sistemarekin.

- Teknologoak prestatzeko bekak emateko espediente administratiboa gerarazita egotea.

D) Unibertsitate irakaskuntzak

- Beka bat ez ematea, eskatzailearen per capita errenta deialdiak ezarritako gehienekoa baino handiagoa izateagatik.
- Ados ez egotea graduondoko ikasketetarako beken deialdi bateko oinarrien interpretazioarekin eta, horrenbestez, laguntzaren zenbatekoa gutxitzearekin.
- Nafarroaz kanpoko fakultate batera joateko beka ukatzea.
- Ados ez egotea azterketa garaietan Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegira sartzeko dauden murrizketekin.
- Ikastaro batean izena ematerakoan Unibertsitate-Gizarte Fundazioak eginiko akatsak.
- Ados ez egotea Nafarroako Unibertsitate Publikoko masterretan onartzeko ezarritako irizpideekin.
- Unibertsitate batetik bestera joateko espediente akademikoa aldatzeko eskaria.

E) Tituluen baliokidetasuna eta homologazioa

- Unibertsitate-titulu bat homologatzeko prozesuan geroratzea.

2.2.6. Atzerritarrak

Arlo honetan 5 kexa aurkeztu ziren 2009an; aurreko urtean, berriz, 9 izan ziren. Ehunekoak ere behera egin du, % 1,4tik % 0,6ra. Aurkeztutako bost kexetatik lau Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igorri zitzaizkion, haren eskumeneko gaiak izateagatik.

Edukiari dagokionez, hola laburpena:

- Kamerunek Espainian duen bulegoa geroratzea jaiotze-akta bat igortzeko garaian, eta, horren ondorioz, lan-baimena ezin lortzea.
- Eskaria, familia birbiltzeko Espainian aldi baterako egoitza izateko baimena lortzeko prozedura berrikus dadin.
- Egoitza- eta lan-baimen administratiboa berritzeari ezezkoa ematea.
- Funtzionario publiko batek atzerritar bati tratu desegokia ematea.
- Ezkontza bat legeztatzeko prozedura geraraztea Dominikar Errepublikak Espainian duen kontsulatuan.

2.2.7. Funtzio publikoa

2009an, arlo honetan, 85 kexa-espeditente erregistratu ziren; aurreko urtean, berriz, 65 kexa aurkeztu ziren. Kexen portzentajeak % 10aren ingurukoa izaten jarraitzen du.

Jasotako 85 kexetatik, 47 kexa lanpostuetara sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozedurei buruzkoak izan ziren; 5 kexa

mugikortasunari buruzkoak; 8 kexa ordainsarien araubideari eta karrera administratiboari buruzkoak; 22 kexa funtzionarioen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak; 2 kexa diziplina araubideari buruzkoak, eta kexa bat eskubide pasiboari eta gizarte segurantzari buruzkoa.

Honako hau da arlo honetako kexa aipagarrien aurkibidea:

A) Lanpostuak esleitu eta betetzea

- Ados ez egotea hautapen prozesuetan emaniko puntuazioekin.
- Hautapen prozesuetan izendatutako epaimahaiek oker jokatzeko.
- Ados ez egotea Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko deialdietan ezarritako gai-zerrendarekin.
- Ados ez egotea basozain lanpostuak betetzeko jarraitutako prozesuarekin.
- Ados ez egotea sartzeko deialdietan azterketa egiteko eskubidea edukitzeko ezarritako tasekin.
- Irregularitasunak hautapen prozesuak izapidetzerakoan; atzerapena haiek garatzerakoan, eta izangaiei informaziorik ez ematea.
- Desadostasuna irakasle-lanpostuak betetzeko aldi baterako kontratazioak egiteko izangaiei telefonoz dei egiteko sistemarekin.
- Desadostasuna aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda batetik kanpo uztearekin, Espainiako naziotasuna ez edukitzeagatik.

- Desadostasuna Unibertsitate Publikoko lanpostu hutsak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren edukiarekin.
- Funtzionario baten izendapenari buruzko epaia betearazten geroratzea.
- Desadostasuna maisu-maistren lanpostuak betetzeko merezimenduengatik emandako puntuazioarekin.
- Hautapen prozesu batean aurreikusitako probak ezgaitasuna duten pertsonentzat behar beste egokituta ez egotea.
- Hautapen prozesu bateko administrazio espedientea eskuratzeari ezezkoa ematea.
- Ados ez egotea suhiltzaileen kidegoan sartzeko hautaproba fisikoen egiturarekin.
- Ados ez egotea hautapen prozesu batean parte hartzen ari zen izangai bat barne-promozioko txandatik kanpo uztearekin, administrazio publikoaren zerbitzuko langile finkoa izateari buruzko ziurtagiria ez emateagatik.
- Ados ez egotea Ingurumen Zientzietako lizentziatuek ezin parte hartzearekin Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle-lanpostuen aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetan, espezialitate batzuetan.
- Zenbait lanpostu huts merezimenduen lehiaketaren bidezko leku-aldatzeaz betetzeko onartutako deialdi batean parte hartu ondoren lortutako lanpostuaren jabetza-hartzea gerarazita egotea.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak deitzen dituen administrari laguntzaileko lanpostuetara sartu ahal izateko, administrari laguntzailearen berariazko titulazioa (lanbide heziketakoa) exijitzeko eskaria.
- Ados ez egotea bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko lanpostuetan sartzeko sistemarekin, izangai batzuek ariketa bat egin ordez hezkuntza administrazioak emandako txosten bat aurkezteko aukera badaukatelako.
- Aldi baterako kontratazioetan, minusbaliotasuna duten pertsonen lehentasunezko eskubidea ez aplikatzea.
- Desadostasuna Nafarroako Unibertsitate Publikoan kudeaketariak kontratatzeke zerrenda batzuk egiteko deituriko hautapen-prozesutik kanpo geratzearekin.
- Desadostasuna enpresa publikoek langileak kontratatzeari buruzko araurik ez egoteagatik.
- Gabeziak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak kudeatzerakoan.

B) Mugikortasuna

- Ikasturte baterako zerbitzu eginkizunak ukatzea.
- Desadostasuna Nafarroako toki entitate batzuetako idazkari lanpostu hutsak betetzeko prozedurarekin, urriaren 29ko 11/2004 Foru Legean jasotako aurreikuspenen arabera.
- Adjudikatutako bi destinoren artean ezin aukeratzea hautatutako postua, irakasleen leku-aldatze lehiaketan.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko maisu-maistren kidegoko funtzionario irakasleak baztertuta egotea gainerako erkidegoetako administrazioetako maisu-maistren aldean, Nafarroako maisu-maistrak hasierako zikloan eta ziklo ertainean (lehen hezkuntza orokorra) jarduteko gaikuntzarik ez dutelako.
- Ados ez egotea eskola orientatzailearen lanpostu baten eginizunetan eginiko aldaketekin.

C) Ordainsarien araubidea eta karrera administratiboa

- Ados ez egotea lanbide karreraren arabera dagokion mailan ez jartzearekin.
- Ados ez egotea emandako zerbitzuen kontaktarekin, osasun langileen lanbide karreraren sisteman mailakatzearen ondorioetarako, eszedentzia bereziko egoeran eman duen denbora kontuan ez hartzeagatik.
- Arrisku berezia dela-eta destinoko osagarria ez aitortzea.
- Ezezkoa ematea destinoko edo arrisku bereziko osagarria aitortzeari.
- Soldata aurreratzeko eginiko eskariari ezezkoa ematea.
- Ados ez egotea nomina bide elektronikotik igortzearekin, paperezko euskarrian igortzeari utzita.
- Ebazpen judizial batez aitorturiko destinoko osagarriari dagozkion atzerapenak ez ordaintzea.
- Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako borondatezko erretirorako prima lortzeko biderik ez

egotea, funtzionarioa ez izateagatik, eta Irakaskuntza Pribatuko Enpresen Hitzarmen Kolektiboari aplikatzekoa zaion ordainsari berezia ukatzea, baldintzak ez betetzeagatik.

D) Eskubideak eta betebeharrak

- Prestakuntzarako eskatutako baimen bat ukatzea.
- Ados ez egotea osasun laguntzaileen lan araubidearekin.
- Ados ez egotea guardia medikoak esleitzeko egin diren aldaketekin.
- Minusbaliotasuna duen pertsona bati lan ordutegia egokitzeo eskariari ezezkoa ematea.
- Amatasun bajaran egokitu delako hartu gabeko opor egunak hartzeari ezezkoa ematea.
- Desadostasuna funtzionarioen ordezkari-organok izendatzeko jarraitutako prozedurarekin.
- Ezezkoa ematea bularra emateko baimena lanaldi osotan metatzeko eskariari.
- Ados ez egotea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko albaitariak albaitarien elkargoko kide derrigor izan behar izatearekin.
- Lanpostua ez egokitzea entzumenezko urritasun bat duen pertsona batentzat.
- Ezin bateragarri egitea senide baten heriotzarengatik baimena eta arauzko oporrak, heriotza opor egunetan zehar gertatuz gero.

- Familia laguntza atzeraeraginez ordaintzeari ezezkoa ematea.
- Lanpostuaren kokapenarekin eta hartarako emandako espazioarekin ados ez egotea.
- Ados ez egotea Foruzaingoaren lanpostu batzuen antolamenduan eginiko berregituratzearekin.

E) Diziplina araubidea eta kargutik bereiztea edo kentzea

- Ados ez egotea diziplina espediente bat ireki aurreko informazio-fase bat zabaltzearekin.
- Ados ez egotea destinoa duen herriaz beste batean bizitzeagatik ezarri zaion zehapenarekin.

F) Eskubide pasiboak eta gizarte segurantza

- Ados ez egotea nahitaezko soldaduska garaia ez kontatzearekin Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean aurreikusitako eskubide pasiboen ondorioetarako.
- Ados ez egotea erretiro-pentsioaren ordainketei buruzko informazioa bide elektronikotik igortzearekin, paperezko euskarrian igortzeari utzita.

2.2.8. Herritarrek administrazio prozesuetan dauzkaten bermeak

Arlo honetan, 68 kexa aurkeztu ziren; 2008an, berriz, 70 izan ziren. Guztira aurkeztutako kexetan, % 10,8 izatetik % 7,4 izatera jaitsi dira, beraz, arlo honetakoak.

Epigrafe honetan, herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten eskubideekin lotutako kexak sartzen dira; esate baterako, informaziorako eskubide orokorra, zentro eta bulegoetara sartzeko eskubidea, arreta egokia hartzeko eskubidea, erantzuna jasotzeko eskubidea (administrazio isiltasuna), herritarren parte-hartzea, kudeaketaren gardentasuna, berme-sistemen grapena eta eskubideak bultzatzeko bestelako ekintzak.

Herritarrek aurkezturiko kexak ondoko gaiei buruzkoak izan dira:

A) Informaziorako eskubidea eta administrazioek erantzuteko daukaten betebeharra

- Administrazioaren egintza batzuk aurkatzeko aurkeztutako errekurso administratiboak ez ebatzea.
- Ezezkoa ematea administrazio publikoen artxibo administratiboetan dagoen dokumentazioa eskuratzeari.
- Herritarrek aurkezturiko informazio-eskari batzuei ez erantzutea.
- Estatuko Administrazio Orokorraren organoetan aurkeztutako eskabideei ez erantzutea.
- Administrazio publikoek interes orokorreko informazioari buruzko publizitaterik ez egitea.

- Ados ez egotea udal batek eskatutako informazioarekin, izaera pertsonalekotzat jotzen delako.
- Diru-laguntza bat galtzea, Administrazioak informazio okerra ematearen ondorioz.
- Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako gora jotzeko errekurso batean eginiko alegazioei ez erantzutea.
- Nafarroako Administrazio Auzitegiari espediente administratiboa igortzeko betebeharra ez betetzea.
- Ados ez egotea berez Administrazio Publikoak badaukan dokumentazio bat aurkeztu behar izatearekin.
- Udal batzuek erantzunik ez ematea herritarren ondare-erantzukizunarengatik aurkeztutako kalte-ordainen eskariei.
- Kontzeju batzuen jarduera eza, eskariak behin eta berriz aurkeztu arren.
- Udal baten jarduera eza, ondasunen zainketaren arloko eskari bat jaso ondoren.
- Nahitaezko desjabetze prozesu batean aurkezturiko prezamendu-orriari erantzunik ez ematea.
- Nafarroako Gobernuak Tuteran duen erregistroan idazkiak aurkezteko dauden zailtasunak eta mugak.
- Unitate administratiboak elkarrekin koordinaturik ez egotea, ezgaitasuna duten pertsonentzako ekintzei eta laguntzei buruzko informazio osoa eta orokorra eskaintzeari dagokionez.

- Atzerapena Toxikologia Institutu Nazionalak azterlan anatomopatologiko bat egiteko garaian.

B) Herritarren parte-hartzea, gardentasuna eta herritarrei arreta ematea

- Nafarroako administrazio publiko batzuen zerbitzuko langileek herritarrari tratu desegokia ematea.
- Ados ez egotea Nafarroako Aldizkari Ofiziala paperezko euskarrian argitaratzeari uztearekin.
- Administrazio bateko jendeari arreta egiteko bulegoak ixtea, justifikatutako arrazoirik gabe, eta herritarrari arreta eskasa ematea.
- Europako Parlamenturako hauteskundeetan botoa emateko eskubideaz ezin baliatzea.
- Herritarrek parterik ez hartzea herriko jaien antolaketan.
- Udalen kudeaketan gertaturiko irregulartasun administratiboei buruzko salaketak.

C) Beste batzuk

- Desadostasuna abortuari buruzko legedia aldatzearekin.
- Desadostasuna esparru publikoetan bideo-zaintzako kamerak jartzearekin.

2.2.9. Ogasuna

Ogasunaren arloan aurkeztutako kexak 33 izan dira; aurreko urtean, berriz, 36 izan ziren. Kexa guztiei erreparatuta, arlo honetakoak % 5,6 izatetik % 3,7 izatera pasa dira.

Kexen edukiaren araberako ondoko aurkibidea egin dugu:

A) Foru Ogasunaren tributuak

- Tributu-zorraren erreklamazioarekin ados ez egotea.
- Ados ez egotea tributu-ikuskapenak egiteko prozedurarekin.
- Ados ez egotea oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari aplikatzen zaion zerga-tasarekin.
- Balio erantsiaren gaineko zergaren itzulketan geroratzea.
- Ados ez egotea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan etxebizitza bat erostearen ondorioz eginiko kenkariak itzultzeko exijitzearekin.
- Ados ez egotea tributu-zor batek sorturiko interesak erreklamatzearekin.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zerga-oinarrian murriztapen bat –minusbaliotasuna duen adineko pertsona batekin bizitzeagatik– ezin egitea, pertsona horren diru-sarrerek ezarritako muga (ondorio askotako errenta adierazle publikoa) gainditzeagatik.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena egiteko zitarik ez ematea.

- Ados ez egotea oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga likidatzeko exijitzen den dokumentazioarekin.
- Ados ez egotea laguntza behar duen pertsonaren ziurtagiri gisa exijitzen den dokumentazioarekin, pertsona fisikoen gaineko zergaren aitorpenean murrizketa bat egin ahal izateko.
- Nafarroako Zerga Ogasunak informazio okerra ematea.

B) Tokiko tributua

- Ados ez egotea hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko udal zergaren likidazioarekin, ordaindu behar den zenbatekoa proportziorik gabea dela jotzen delako.
- Desadostasuna mankomunitate batek erreklamatzegatik zaborren bilketako eta hiri hondakin solidoen tratamenduko tasaren kobrantza.
- Ados ez egotea udalak hilerriko zerbitzuak erabiltzeagatik erreklamatzeko dion tasaren zenbatekoarekin.
- Udalak ezezkoa ematea zirkulazio zergaren zati proportzionala itzultzeari, ibilgailua, baja emanda dagoena, zirkulazioan egonen ez den aldiarengatik.
- Ados ez egotea aprobetxamendu mikologikorako tasa desberdinak ezartzearekin, kasuko erroldatzearen arabera.
- Udalak ezezkoa ematea udaleko kirol instalazioak erabiltzeko ordaindutako kuotaren zenbatekoa itzultzeari, izen-ematea baliogabetu ondoren.
- Udalen diru-bilketaren arloko kudeaketa txarra.

C) Estatuko Tributu Agentzia

- Seme-alaba baten jaiotzarengatiko ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa ukatzea.
- Ados ez egotea Ebroko Konfederazio Hidrografikoak igorritako tasa baten likidazioarekin eta Tributu Agentziak igorritako premiamenduzko probidentziarekin.

D) Beste gai batzuk

- Lizitatzailen Erregistroan inskripzio bat ukatzea.

2.2.10. Industria

Arlo honetan kexa bakarra jaso zen. Haren edukia laguntza bat ukatzeari zegokion, eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik.

74

2.2.11. Barne arloa

Arlo honetan 33 kexa erregistratu ziren. Guztizkoaren aldean % 3,7 egiten dute, ia 2008ko ehuneko bera, urte hartan 25 kexa erregistratu baitziren.

Arlo horretan, espetxe-administrazioari buruzko kexak 6 izan ziren. Kexa horiek Gorte Nagusietako Arartekoari igorri zitzaizkion, haren eskumenekoak baitira. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateak espetxe arloko legediaren betearazpenari dagozkion eskumenak dituen arren, Estatuko administrazioak oraindik ere ez dizkio eskumen horiek Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu.

Honako hau da kexen datuei buruzko aurkibidea:

Honako hau da kexen datuei buruzko aurkibidea:

A) Herritarren segurtasuna

- Ados ez egotea desordena publikoarengatik eta herritarren segurtasunarengatik irekitako zehapen prozedurekin.
- Ordena publikoa nahasteagatik ezarritako zehapen ekonomikoak erkidegoaren aldeko lanak egitearekin ordeztzeko eskaria.
- Udal batek ezer ez egitea auzokideen eraso batzuen aurrean.
- Aisiarako establezimendu baten jarduerak herritarrei sorturiko enbarazuak eta segurtasun falta.
- Aparkatze mugatuko eremuetako zaindarien intimitatea bermatzeko beharra.
- Ados ez egotea bere ibilgailua segurtasun arrazoiengatik erretiratzearekin.
- Udal batek ezer ez egitea txakurrak lotuta eramateko betebeharra ez betetzearen aurrean.

B) Espetxeko administrazioa

- Informaziorik ez ematea segurtasun indar eta kidegoek interesdunen senideak atxilotu ondoren.
- Ados ez egotea atxilotutakoak inkomunikatzeko neurriekin.

- Ados ez egotea espetxe batetik ateratzeko baimena ukatzearekin.
- Ados ez egotea espetxeko gela beste preso batekin partekatu behar izatearekin.
- Preso bat espetxe batean egoera txarrean egotea.
- Irregularitasunak espetxe bateko gauzen erregistroan.

C) Polizia jarduerak

- Ados ez egotea Guardia Zibilaren, Foruzaingoaren eta Udaltzaingoaren jarduerekin.
- Ados ez egotea Ertzaintzako agenteek eginiko atxiloketa batekin.
- Kexa Foruzaingoaren agenteek emandako tratuaengatik.
- Kexa Udaltzaingoko agenteek emandako tratuaengatik.

D) Izapide administratiboak

- Ados ez egotea nortasun agiri nazionala eta gida-baimena lortzeko tasak ordaindu behar izatearekin, lapurreta bat jasan ondoren.
- Ados ez egotea atzerriartasunaren arloko poliziak eginiko izapideekin.

2.2.12. Justizia

Justiziaren arloa dela-eta 29 kexa aurkeztu ziren. Horrek esan nahi du 2008an erregistratutakoak (13 kexa) baino 16 kexa gehiago aurkeztu direla. Kexa horiek guztizkoaren % 3 egiten dute; aurreko urtean, berriz, guztizkoaren % 2 egiten zuten.

Edukiari dagokionez, 10 kexa herritarrak erabaki judizialekin ados ez egoteari buruzkoak izan ziren; 8, berriz, prozesu judizialen eta epaien betearazpenean gertatzen diren geroratzeei buruzkoak; 4 kexa erregistroen funtzionamenduari buruzkoak izan ziren; 3, abokatuen eta lanbide elkargoen lanbide jardunari buruzkoak; bat hauteskunde administrazioari buruzkoa; bat espediente bat eskuratzeko baimenik ez emateari buruzkoa; bat datuak babesteari buruzkoa, eta beste bat doako laguntza juridikoaren zerbitzua gaizki funtzionatzeari buruzkoa.

Jada aurreko txostenetan jakitera eman dugun bezala, Justizia administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexak Estatuaren eskumen eksklusiboa dira. Hala eta guztiz ere, gai horretan, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 3/2000 Foru Legeko 13. artikulua ezarri zuen erakundeak berriaz islatuko zituela bere urteko txostenean Foru Komunitateko Justizia administrazioaren funtzionamenduari buruz jasotzen zituen kexak.

Bestalde, Justizia Ministerioaren menpe dauden erregistroen funtzionamenduari buruzko kexak Gorte Nagusietako Arartekoari igorri zitzaizkion, hura baita haiek ikuskatzeko erakunde eskuduna, erregistro horiek Estatuaren administrazioaren zeregina direlako; azkenik, herritarrak erabaki judizialekin ados ez egoteari buruzko kexak ez genituen onartu, erakunde honek gai hori aztertzeko eskumenik ez duelako.

Honako hau da arlo honetako erregistraturiko kexen aurkibidea:

A) Justizia administrazioa

- Bidegabeko geroratzea prozedura judizialak izapidetzean eta epaiak betearaztean.
- Lapurreta baten ondorioz, salaketa aurkeztu zuen adingabe baten datuen babesa urratzea.
- Auzitegi Nazionalak bere defentsarako eskatutako dokumentazioa ez igortzea interesdunari.
- Elikadura-pentsioak ez ordaintzeagatik epaiak ez betearaztea.
- Bisiten araubideari buruzko epaia ez betearaztea.
- Ados ez egotea adingabe baten bisiten araubideari buruz hartutako erabaki judizialarekin.
- Ados ez egotea prozesu judizial baten garapenarekin eta abokatuaren jardunarekin.
- Ados ez egotea Familia Epaitegiak emandako epaia betearaztearekin.
- Epaitegi baten eta Adingabeen Fiskaltzaren diligentzia eskasa adingabe bati dokumentazioa emateko.
- Generoko indarkeriaren biktima den emakume batentzat babes neurririk ez egotea.

B) Abokatuen eta lanbide elkargoen jardun profesionala

- Abokatu baten lanbide-jardun okerra.

- Doako laguntza juridikoaren zerbitzuak gaizki funtzionatzea.
- Ados ez egotea abokatuen elkargo bateko hiru abokaturen jardun partikularrarekin eta kasuko gobernu-organoaren erabakiekin.
- Abokatuen elkargoak esleitutako abokatu aldatzeko eskaria.

C) Erregistro publikoak

- Zigor-aurrekariei buruzko oharpena ez deuseztatzea.
- Jaiotza-ziurtagiri bat lortzeko izandako geroratzea.
- Ezkontza-inskripzio bat ukatzearen aurka aurkeztutako errekurtoa ebazten geroratzea.
- Ezkontza-inskripzio bat ukatzea.

D) Hauteskunde prozedura

- Desadostasuna Eskualdeko Hauteskunde Batzarrak ezezkoa eman diolako hauteskunde mahai batean parte hartzeko betebeharretik salbuesteko eskariari, haurdunaldian aurrera samar egoteagatik.

2.2.13. Gazteria eta Kirola

Arlo honetan, 3 kexa aurkeztu ziren; guztizkoaren % 0,3 egiten dute. Portzentajea, berriz, aurreko urteko bera da, orduan 2 kexa aurkeztu baitziren.

Honako hau da aurkibidea:

- Udal igerileku batzuen kudeaketa txarra.
- Udal bateko kirol instalazioetan igeriketa ikastaro bat emateko kontratatutako langileek tratu desegokia ematea eta umiliazioa eragitea Down sindromea duen haur bati.
- Autobus geltoki baten ondoan gizabidezkoak ez diren jokabideak gertatzea.

2.2.14. Ingurumena

38 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren 4,2 egiten dutenak. Arlo honetan beherapen bat gertatu da 2008an erregistraturiko kexen kopuruarekin alderatuta, orduan 26 aurkeztu baitziren. Guztizkoan, berriz, ehuneko bera egiten dute.

Edukiari dagokionez, kexak ondoko gaiei buruzkoak izan ziren:

80

A) Ingurumenaren arloko informazioa lortzea eta ingurumen arloko erabakietan parte hartzea

- Ezezkoa ematea harria ateratzeko harrobi baten eta birziklatze planta baten proiektuari buruzko informazioa eskuratzeko eskariari.

B) Nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiak

- Partikular baten etxearen ondoan kokaturiko abeltzaintza ustiategi batek eragindako enbarazua.

C) Kutsadura akustikoa

- Aisiako lokalen jarduerak (tabernak eta kafetegiak) sorturiko enbarazua.
- Txakurren zaunkek eragindako enbarazua.
- Desordena publikoa eta zaratak aisiarako lokal batean.
- Etxebizitza partikular batetik hurbil jarritako "skate" pista baten kokapena dela-eta sorturiko enbarazua.
- Lokal batean egiten den zatikatze-lanetatik heldu diren zaratak.
- Etxebizitzetarako higiezin bateko beheko solairuan kokaturiko ibilgailuak konpontzeko tailer baten jarduerak sorturiko enbarazua.
- Pilotaleku batean jokatzeko biltzen diren gazte batzuek gauetz sortzen duten zarataren ondoriozko enbarazua.
- Nekazaritzarako makina batzuek sorturiko zaraten ondoriozko enbarazuak.
- Etxebizitzetatik hurbil dagoen udal instalazio batek sorturiko zaratak.

D) Ingurumena babestea

- Natura 2000 Sareko batasunaren intereseko leku (BIL) bateko ustiategiaren oihan-aprobetxamendua debekatzea-gatiko kalte-ordainak.
- Ados ez egotea Ministroen Kontseiluak hartutako erabaki batekin, hain zuzen ere Nafarroako espetxearen

proiekturako ingurumen eraginari buruzko azterlana aurkezteko beharra kentzeari buruzko erabakiarekin.

- Harrobi bat jartzeko zundaketak egin diren lursail batean getaturiko kalteak eta eremua lehengoratzeko eskaria.
- Ados ez egotea sei zundaketa-puntutan jarduteko ingurumen ukipenearako baimena ematearekin.

E) Hondakinen tratamendua

- Paraje natural batean hondakindegia bat egotea eta ingurumenaren arloko informazioa ukatzea.

F) Antenak eta bestelako elementuak jartzea

- Salaketa, herri batean interneteko bost hargailu egoteagatik eta Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunak horri buruzko erreklamazioari erantzuna ez emateagatik.
- Ados ez egotea herri batzuetan telefonia mugikorreko zenbait antena jartzearekin.

G) Basa fauna babestea

- Ados ez egotea sai arreen ustezko eraso baten ondorioz zekor jaio berri bat hil eta kalte-ordaina ukatzearekin.

H) Arau-hausteengatik zehapenak

- Ados ez egotea etxeko abere bat abandonatzeagatik zehapen espedientea zabaltzearekin.
- Desadostasuna zehapen-espediente batean ezarritako zehapena handitzearekin.

I) Beste batzuk

- Desadostasuna udal batzuk 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraunkorreko Programa egiteko lehentasunezko landa-eremuen mugaketatik kanpo uztearekin.
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiak ezezkoa ematea lan bilera bat egiteari autonomia erkidegoez gaindiko trazadura duen goi tentsioko linea bat ezartzeko proiektuak ukitutako udalekin.

2.2.15. Herri lanak

Arlo honetan, 22 kexa aurkeztu ziren. Kexa guztien % 2,4 egiten dute. Ehuneko hori 2008ko bera da, nahiz eta urte horretan 15 kexa aurkeztu ziren.

83

Honako hau da kexen aurkibidea:

- Errepideen bide-gurutze baten egoera txarra.
- Harri-lubeta baten egoera txarra.
- Lursail pribatu bat inbaditzea herri-lan batzuk egiterakoan.
- Udalak ezezkoa ematea ibilgailuen sarrerarako erabiltzen ez den eta oinezkoentzat oztopo bat den arrapala bat kentzeari
- Udal batek eginiko zolaberritzeko lanen ondorioz hezetasunak eta filtrazioak gertatzea.
- Etxebizitza batean elektrizitate-hornidurarik ez izatea.

- Ados ez egotea biribilgune bat egiteko obrekin.
- Obren exekuzioari buruzko kontratu bat ez betetzea.
- Ados ez egotea udal batek finka partikular batean harriak jartzearekin.
- Herri batzuetara sartzeko zeharbideen eta errepideen kontserbazio egoera txarra.
- Ados ez egotea herriko jaietan karpa bat jartzearekin.
- Zenbait kontserbazio-lan ez egitea.
- Azpiegitura batzuen mantentze txarra.
- Udalak eginiko obra batzuen ondorioz uren ibilbidea desbideratzea.
- Dotazio publiko bat eraikitzen ari den orubearen mugakideak diren etxebizitzetan eragindako kalteak.
- Bizikletak zirkulatzeko erreirik ez egotea.

2.2.16. Osasuna

Arlo honetan, 55 kexa aurkeztu ziren, eta guztizkoaren % 6 egiten dute; 2008an, ordea, ehuneko 7,6 egiten zuten.

Edukiari erreparatuta, kexak honela sailkatu ditugu:

A) Osasun prestazioak eta gastuen itzulketak

- Prestazio, protesi eta farmako batzuk ez egotea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan edo prestazioen katalogoan, eta, horrenbestez, osasun produktuak guztiz ordaindu behar izateak dakarren zama ekonomikoa.
- Gastuak ordaintzeari uko egitea, edo jasotako osasun laguntza nahiz produktu sanitarioa ez daudelako zerbitzuen zorroan edo prestazioen katalogoan, edo interesdunak ez dituelako bete gastuaren itzulketarako eskubidea izateko eskatzen diren baldintza formalak.
- Herri batean, pediatriako zerbitzurik ez egotea.
- Ados ez egotea ugalkortasun tratamendu baten finantziazioa ukatzearekin, emakumea 40 urtetik gorakoa izategatik.

B) Laguntza kliniko orokorra

- Gaixo batzuei laguntza mediko eskasa ematea eta diagnostikoa berandu ematea.
- Adimen osasuneko barrutian laguntza mediko eskasa ematea.
- Pediatriako laguntza desegokia eta okerra ematea.
- Osasun etxe bateko zerbitzuen antolaketa eta prestazio txarra.
- Emakumeari laguntzeko zentro batean laguntza ginekologiko okerra ematea.

- Hil-hurren dagoen gaixo baten intimitate pertsonala eta familiarra urratzea, ospitalean eginiko egonaldian gela beste pertsona batekin partekatu behar izateagatik.

C) Osasun publikoa

- Kirol instalazio batzuetako haur txikientzako igerilekua irekitzean geroratzea.
- Herri bateko bide publikoan arratoiak egotea.

D) Osasun sistemako erabiltzaileen eskubideak

- Ebakuntza kirurgikoak egiteko gehiegi geroratzeari buruzko salaketa.
- Dermatologiako kontsulta baterako gehiegi geroratzeari buruzko salaketa.
- Onkologiako kontsulta baterako gehiegi geroratzeari buruzko salaketa.
- Gaixo bat adimen osasuneko zentro espezializatu batean sartzean gehiegi geroratzea.
- Ados ez egotea azterketa ginekologikoak egiteko ezarritako denborarekin.
- Proba baten emaitzak lortzeko gehiegi geroratzea.
- Ustez osasun-xedea duen produktu baten publizitate engainagarria.
- Diagnostika berandu ematea eta ezin oneratzea.
- Osasun laguntzarako eskubidea ukatzea.

- Ginekologiako sendagile espezialista aldatzeari ezezkoa ematea.
- Ados ez egotea osasun sistema publikoaren bitartez “in vitro” ugalketarako beste saialdi bat finantzatzeari ezezkoa eman izatearekin.
- Sendagilez eta ebakuntza-txandaz behin eta berriz aldatzeak eragindako ondoeza.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskatutako diagnosi-proba egiteari ezezkoa ematea.
- Osasunbidea-Osasun Zerbitzuko gaixo batek behin eta berriz ospitaleratzea behar izatearen ondorioz, Gasteizko osasun etxe batera aldatzeko eskaria, hurbiltasun geografikoarengatik.
- Osasun laguntzako deribazio baterako eskaria ebazten geroratzea.
- Ados ez egotea espediente mediko bat espediente pertsonal batean sartzearekin.
- Ados ez egotea aitorturiko minusbaliotasun graduarekin.
- Desadostasuna Lan Osasunaren Institutuak senda-agiria ematearekin.
- Ados ez egotea pediatria aldatu izatearekin.
- Ados ez egotea Baztango gaueko ekipo medikoa kentzearekin.

E) Osasun garraioa eta larrialdietako laguntza

- Desadostasuna Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak tratamenduetara eta errebisioetara joateko osasun-garraiorik ez errazteagatik.

F) Ikuskapena

- Salaketa, genetikoki aldarazitako produktu eta elikagaien etiketatze okerrarengatik.

2.2.17. Gizarte segurantza

2009an 15 izan dira Gizarte Segurantzari buruz jasotako kexak; 2008an, berriz, 28 izan ziren. 2009ko kexek erregistratutako guztien % 1,7 egiten dute, 2008an baino askoz gutxiago, orduan % 4,3 izan baitziren.

Gizarte Segurantzari buruzko kexak, gehienak, beren edukia dela eta, Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari igortzen zaizkio.

Honako hau da kexen edukiari buruzko laburpena:

A) Pentsioak

- Gizarte Segurantzako Diruzaintzak ordaindutako erretiro-pentsioen erosteko ahalmena galtzea, 2008ko urteari buruzko KPIaren kalkuluaren ausazko estimazioaren ondorioz.
- Ados ez egotea Nafarroako Gobernutik jasotzen duen pentsio bereziaren kalkuluarekin.

- Ados ez egotea ezgaitasun iraunkorrarengatiko pentsio bat ukatzearekin.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak pentsio baten kudeaketan eta ordainketan eginiko akatsak.
- Ados ez egotea Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren jokabidearekin, erretiro-pentsio aurreratuari dagozkion atzerapenak ez ordaintzeagatik.
- Ados ez egotea Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko Nafarroako Zuzendaritza Probintzialaren ebazpenarekin. Ebazpen horren bidez, alarguntasun-pentsioa ukatzen zaio, bizikidetasuneko gutxieneko bost urteko aldia iragan ez delako.

B) Ezintasunak onartzeko prozesuak

- Desadostasuna ezezkoa emateagatik ezintasun iraunkorra aitortzeri.
- Ados ez egotea lan-istripu baten ondoriozko erabateko ezgaitasun iraunkorra, edo subsidiarioki partziala, aitortzeko eskaria ezestearekin.
- Ados ez egotea aldi baterako ezgaitasunaren prestazioari ezezkoa ematearekin.

C) Ordainketak eta itzulketak

- Ados ez egotea Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren jokabidearekin, gutxienekoen osagarria berrikusteko eta zorra itzultzeko espediente baten izapideengatik.

- Gizarte Segurantzari eginiko ordainketa bidegabeak itzultzeko prozeduraren ebazpenean geroratzea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza hitzarmen bereziaren arabera ordainduriko kuotak itzultzearen aurka egotea.

D) Beste batzuk

- Urtetan Gizarte Segurantzari kotizatu gabe ezkondata egon ondoren, emakume dibortziatuek osasunaren arloan eta prestazioen arloan pairatzen duten babesgabetasuna.

2.2.18. Zerbitzu publikoak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna

27 kexa aurkeztu ziren 2009an; 2008an, berriz, 23 izan ziren. Kexa horiek % 3 izaten jarraitzen dute kexen guztizkoan, aurreko urtean bezalaxe.

Honako hau da kexen aurkibidea:

A) Zerbitzu publikoak

- Tren garraioaren zerbitzu txarra, tren-geltokirik ez egotearen ondorioz.
- Ados ez egotea zerbitzuen mankomunitate batek garraio publikoaren erabiltzaileentzako markesina bat ketzearekin.
- Lursail baten urbanizazio baldintza txarrak eta oinarrizko horniduren falta.

- Ados ez egotea Taxiari buruzko Foru Legearen aurkako arau-hauste baten ondoriozko zehapen prozedura bat abiatzearekin.
- Udal bati zerbitzuak emateagatiko zorra ez ordaintzea.
- Mankomunitate baten hiri hondakin solidoak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko edo deuseztatzeko tasei buruzko ordenantza fiskalarekin ados ez egotea, tasa jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotearen arabera exijitzen baitu, eta ez jarduera garatzen deneko ondasunaren katastro-unitatearen arabera.
- Uren Udal Batzarrak oker jokatzeko ur-ihes baten konponketan eta ados ez egotea uraren kontsumoari buruzko fakturazioarekin.
- Uraren kontsumoarengatik fakturaturiko zenbatekoaren aurka egotea.
- Industrialde bateko enpresetako langileentzako eta erabiltzaileentzako garraio publikoa nahikoa ez izatea.
- Udal batek ezer ez egitea partikular batek bide publiko bat zutoinekin eta alanbre-hesiarekin ixtearen aurrean.
- Posta zerbitzu txarra ematea, bulegoak justifikaziorik gabe itxi ondoren.
- Herri batzuk elkarrekin lotzen dituzten bideak ez irekitzea, haiek ixtea ekarri zuten obrak amaitu ondoren ere.
- Herri baterako sarbideak gaizki kontserbaturik egotea eta haietan gabeziak egotea.

- Posta zerbitzua ematerakoan hutsuneak gertatzea.

B) Ondare erantzukizuna

- Udal batek ez ematea espaloia gaizki egotearen ondorioz gertaturiko eroriko baten kalteengatiko ordainak.
- Udal batek ez ematea oinezkoentzako zebra-bidearen egoera txarraren ondorioz gertaturiko istripu baten kalteengatiko ordainak.
- Ondare-erantzukizuneko eskariak ez ebatzea.
- Interesdunari entzunaldirik ez ematea ondare-erantzukizuneko prozedura batean eta informaziorik ez ematea prozeduraren ebatzenaren aurka aurkez daitezkeen errekurtsioei buruz.

2.2.19. Lana

Arlo honetan 16 kexa aurkeztu dira 2009an; 2008an, berriz, 4 baizik ez ziren aurkeztu. Kexa guztien ehuneko 2 inguru egiten dute.

Ondokoa izan zen kexen edukia:

- Enpleguaren arloan eskumenak dituzten erakunde publikoen eginkizunetan eraginkortasun gutxi lortzea, atzerrian lan egiteko enplegu-eskaintzei buruzko informaziorik ez emateagatik.
- Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak langileentzat, lanean jardun nahiz ez jardun, diruz lagundutako informatika-ikastaro batzuetan ezin parte hartzearekin ados ez egotea.

- Enplegurako bulego publiko batek pertsona bat ez sartzea enplegu publikoko deialdi baterako zerrendetan.
- Enpresa pribatu batek ezgaitasuna duen pertsona bati soldatarik ez ordaintzea.
- Ados ez egotea langabeziarengatiko subsidioa jasotzeari ezezkoa ematearekin.
- Langabezian dauden langile autonomoen zailtasun ekonomikoak eta haietzako laguntzarik ez egotea.
- Langile autonomo gisa ezartzeko diru-laguntza bati ezezkoa ematearen aurka egotea.
- Langabezian egon eta berrogeita hamar urte inguru dituzten pertsonentzako berariazko laguntzarik ez egotea.
- Desadostasuna langabeziarengatiko prestazioen ordainketarekin.
- Ados ez egotea toki entitate batek enplegu publikoko eskaintza batean exijitzen duen titulazioarekin.
- Lan ikuskaritzak premiatutako zehapen-prozedura batean interesdunari aurretiko entzunaldia ez ematea.
- Lan ikuskaritzaren jardueraren aurka egotea.
- Lan kontratu bat langilea kaleratuz amaiaraztearekin ados ez egotea.
- Enplegu publikoaren kudeaketan diharduen entitate publiko batek zerbitzu txarra ematea.
- Desadostasuna enpresa pribatu bateko lan baldintzekin.

2.2.20. Tráfikoa

Arlo honetan 35 kexa aurkeztu dira, 2008an baino hiru gehiago. Kexa horiek kexen guztizkoan % 4,9 egiten zuten 2008an, eta % 3,9, berriz, 2009an.

Honako hau da kexen aurkibidea:

- Semaforoen bidez erregulatutako zebra-bideetan oinezkoak iragateko denbora laburregia izatea.
- Udal batean bizikletak zirkulatzeko berariazko erreirik ez egotea.
- Desadostasuna trafikoaren arloan ezarritako zehapenekin.
- Salaketa-buletinen informazioan argitasun gutxi egotea.
- Oinezkoak babesteko neurriak hartu behar izatea, harrapaketak gertatzeko arriskua dagoen tarte batean.
- Desadostasuna gida-baimena emateko azterketa teorikoaren egiturarekin eta ikasteko zailtasunak dituzten pertsonentzako bestelako aukerarik ez eskaintzearekin.
- Udalaren jarduera eza ibilgailuak garaje baten irteeran aparkatzen direnean.
- Ados ez egotea ezgaituentzako aparkalekuak erabiltzeko ezarri diren irizpideekin.
- Egoiliarrentzako aparkatze-txartela deuseztatzearen aurka egotea.

- Ados ez egotea ibilgailuen zirkulaziorako baimena ukatzearekin arrazoi medikoak direla medio.
- Ados ez egotea garabiak bere ibilgailua erretiratzearekin eta garabi-zerbitzuaren tasa kobratzearekin.
- Semaforo bat kentzeko eskaria baiesteko Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpena ez betearaztea
- Ados ez egotea zehapen batekin eta ibilgailua gerarazteagatiko tasarekin.
- Salaketa bat oker jakinaraztea eta alkoholemia-probetan praxi okerreaz jokatzeko.
- Gida-baimena lortzeko ez-gai deklaratu izatearen aurka egotea.
- Ados ez egotea zehapen espediente batean Nafarroako Administrazio Auzitegiak egitateak ulertu dituen moduarekin.
- Informaziorik ez egotea gida-baimeneko puntu guztiak kentzeko zehapen baten eraginkortasunari buruz.

2.2.21. Hirigintza

Hirigintzaren arloko kexak 39 izan dira 2009an; 2008an, berriz, 25 izan ziren. Kexa horiek kexen guztizkoan % 4,3 egiten dute 2009an; 2008an, berriz, % 3,9 egiten zuten.

Zehazki, honakoak izan ziren kexak:

A) Hirigintzaren plangintza

- Ados ez egotea poligono batzuetako erabileren araubidea zabaltzeko eta koroapen-altuera handitzeko plan partzial bat aldatzearekin.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko hirugarren xedapen iragankorra ez betetzea. Izan ere, xedapen horrek legea onetsi zen unean planeamendu orokor bat indarrean zuten udalak behartzen zituen planeamendu hori homologatzera edo hiru urteko epean legeari egokitzera.
- Ados ez egotea planeamendua aldatzearekin Ripagaina eremuko eraikigarritasuna handitzeko.

B) Hirigintzaren kudeaketa

- Ados ez egotea udal batek sustaturiko birzatatze proiektu baten izapidetzearekin.
- Industria eremu bat sortzeko proiektu orokorraren aurkako jarrera.
- Ados ez egotea urbanizazio espediente batean lur-zatien urbanizazio- eta elektrifikazio-kuoten likidazioekin eta banaketarekin, eta horri buruz eskatutako informazioa dela-eta udalak ez erantzutearekin.
- Zenbait exekuzio unitateren urbanizazio proiektua gaizki exekutatzea.
- Ados ez egotea Foruzaingoaren polizia-etxe baten kokapenarekin.

- Ados ez egotea lur-zatiei buruz udalak eginiko tasazioarekin, planeamendua aldatzearen ondorioz.
- Udal batek eskatutako hirigintzaren arloko informazio bat emateari ezezkoa ematea.
- Exekuziorako konpentsazio sistemaren ordezkari kooperazio sistema erabiltzeko eginiko eskaria ez ebatzea.
- Udalak urbanizazio prozesu batean eginiko likidazioari aurka egitea.
- Ados ez egotea udal bat herrian lur azpiko aparkaleku baten exekuzioa baimentzearen aurka jartzearekin.
- Desadostasuna katastroa aldatzeko prozeduretan.
- Kale bat egokitzeko lanetarako laguntza bat ukatzea.
- Ados ez egotea hirigintza exekuzioko prozeduraren emaitzarekin, kargak eta onurak jabeen artean banatzeko printzipioa errespetatzen ez duelako, hori izaki hirigintzaren arloko exekuzioa gidatu behar duena.

C) Hirigintzaren arloko legezkotasuna eta diziplina babestea

- Toki entitateek ezer ez egitea planeamenduaren aurkako obrak egiten direnean.
- Ados ez egotea hirigintzaren arloko legezkotasuna lehengoratzeko errekerimenduekin. Errekerimendu hori udalak egin zuen, hain zuzen ere, obrak deusezta zitezen eskatzeko, eraikinerako finkaturiko gehieneko lerrokatzea gainditzeagatik eta aukera guztiak agortuta zeuzkan eraikin bateko eraikuntza-aprobetxamendua handitzeagatik.

- Garaje batetik bide publikorako iristeko tartean gutxi ikustea.
- Ados ez egotea eraikin mugakide bateko bolumena eta altuera handitzearekin, hain zuzen ere planeamenduan ezarritakoaren aurkakoa delako.
- Udalak obrak egiteko eginiko errekerimenduari aurka egitea.
- Ados ez egotea bide publiko baten mugaketarako eginiko itxitura erretiratzeko errekerimenduari.
- Udal batek ezer ez egitea lurzorua konpontzeko eskari baten aurrean.
- Aisialdiko lokal baten funtzionamenduan hirigintza arloko irregulartasunak gertatzea.
- Ados ez egotea obretarako lizentzia bat ematearekin.
- Planeamenduan baimendutako gehieneko altuera gainditzen duen eraikin bat egiteko obretarako lizentzia ematea.

2.2.22. Euskara

Elebitasunarena da 2009an kexa-hazkunde handiena izan duten arloetako bat. Arlo honetan, izan ere, 136 kexa aurkeztu ziren 2009an; aurreko urtean, berriz, 37 izan ziren. Horrenbestez, elebitasunari buruzko kexak 2008an kexa guztien % 5,7 izatetik 2009an kexa guztien % 15 izatera iritsi dira. Hazkunde horren arrazoia da Hizkuntza Eskubideen Behatokia Fundazioak Arartekoaren erakundeari igorri izana Nafarroako

administrazio publikoen hizkuntza-eskubideen balizko urratzeari buruz herritarrek fundazio horri igorritako kexak. Izan ere, arlo honetako 136 kexetatik 127 fundazio horrek igorritakoak dira.

Aurkeztutako kexetatik, 38 inprimakien eta zabalkundeko materialen argitalpenari buruzkoak izan ziren; 31 egoitzen eta espazio publikoen errotulazioari buruzkoak; 31 herritarrekiko komunikazioei buruzkoak; 20 administrazio-egoitzetako arretari buruzkoak; 12 Administrazio Publikoko lanpostuen hizkuntza profilen zehaztapenari buruzkoak; 2 euskararen erabilerari buruzkoak, unibertsitatean; eta beste bi zerbitzu batzuk euskaraz ez eskaintzeari buruzkoak.

Aurkeztutako kexak hurrengo bi bloketan laburbil daitezke:

Lehenbizi, herritarrei zuzendutako inprimaki, esku-orri edo bestelako agirietan euskara erabili ez eta gaztelania hutsez argitaratzeagatik aurkeztutako kexak daude. Kexa horiek guztizkoaren % 28 egiten dute.

99

Bigarrenik, eremu publiko, kale, hiri-bide eta hirien arteko bideetako eta abarretako errotulazio eta seinalazioei buruzkoak daude. Kexa horiek, izan ere, guztizkoaren % 23 egiten dute. Kexen zati handi bat Iruñako udalerrian zentratuta dago, bereziki euskarazko testuetako letrei gaztelaniazko testuetako letrei baino tamaina eta ikusgarritasun gutxiago emateagatik, bai eta izen eta toponimoak euskarara ez itzultzeagatik, soilik gaztelaniazko adierazpidea adierazita.

Herritarrekiko idatzizko harremanetako euskararen erabilerari buruzko kexek ere guztizkoaren % 23 egiten dute.

Hirugarren tokian, Administrazioeko egoitza eta bulegoetako ahozko harremanetan edo Administrazio Publikoko langileekiko ahozko harremanetan euskaraz arretarik ez emateari buruzkoak ageri dira. Guztizkoaren % 15 egiten dute.

Laugarren tokian, Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuen plantilla organikoetako hizkuntza eskakizunak zehazteari buruzko kexak daude. Zehazkiago, kexa horiek dira funtzio publikoan sartzeko euskara baldintza gisa exijitzearekin edo ez exijitzearekin lotutakoak, eta Nafarroako administrazio publikoetan euskarari, merezimendu gisa puntuatzen denean, ematen zaion balorazioarekin lotutakoak. Alderdi horiei buruz jaso ditugun kexek guztizkoaren % 9 egiten dute.

Gainerako kexak, % 3ra ere iristen ez direnak, era askotako gaiei buruzkoak dira: bereziki euskara unibertsitatearen esparruan ez erabiltzeari buruzkoak eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek euskarazko prestakuntzarik ez izateari buruzkoak.

2.2.23. Etxebizitza

Arlo honetan, 65 kexa aurkeztu ziren, hain zuzen ere guztien % 7,2. 2008ko ehuneko ia bera da, orduan 49 kexa aurkeztu baitziren.

100

Honako hau da arlo honetako kexen laburpena:

A) Etxebizitza babestuen adjudikazioa

- Desadostasuna etenik gabe erroldatuta egoteko exijitzearekin Nafarroako herri batean azken urteetan egoitza efektiboa izateari buruzko puntuazioa lortu ahal izateko.
- Desadostasuna babes publikoko etxebizitza batzuk adjudikatzeko baremoarekin, behin 35 urteko muga gainditu ondoren adjudikazio bat lortzeko dagoen zailtasunarengatik.

- Ados ez egotea babes ofizialeko etxebizitza baten beste adjudikazio bat onartzeko eta adjudikatutakoari uko egiteko ezintasunarekin, behin adjudikatutako lehenengo etxebizitzaren kontratua bisatu ondoren.
- Ados ez egotea etxebizitza erosteko kontu bat edukitzeagatik puntuaziorik ezin lortzearekin, kontu hura ireki zenetik zortzi urte baino gehiago iragan direnean.
- Desadostasuna familiako kide bat kanpo uztearekin, familia-unitateko kideen guztizkoa kontatzearen ondorioetarako.
- Alokairuko babes ofizialeko etxebizitza bat ez ematea.
- Desadostasuna alokairuaren araubidean babestutako etxebizitza bat adjudikatzeko adinaren irizpidea erabiltzearekin.
- Ados ez egotea babes ofizialeko etxebizitzetan berrostatutako pertsoneri mota horretako etxebizitzei dagozkien betebeharrak aplikatzearekin.
- Ados ez egotea adinaren irizpidea aplikatzerakoan babestutako etxebizitzak adjudikatzeko, eta etxebizitza erosteko kontuarengatik aplikaturiko kenkariak itzultzeko beharrarekin, kontu hura ireki zenetik zortzi urte iragan direnean etxebizitzarik erosi gabe.
- Desadostasuna guraso bakarreko familia izateagatik puntuaziorik ez lortzearekin, babestutako etxebizitzak adjudikatzeko prozesu batean.
- Alokairuaren araubideko etxebizitza babestua adjudikatzeko minusbaliatuaren baldintzari ematen zaion tratamenduaren aurka egotea, hura eskatzailearen

adinarengatik eta familiaren egoerarengatik ematen den tratamenduarekin alderatu ondoren.

- Ados ez egotea lehenik adjudikatu zitzaion prezio libre tasatuko etxebizitza bat ukatzearekin, oinordetzan jasotako bi pisutako laurden baten jabea izateagatik.
- Babes publikoko etxebizitza baten salerosketa kontratua ez bisatzea, jabetza araubidean beste etxebizitza bat edukitzeagatik, nahiz eta interesdunari ez dagozkion azken etxebizitza horren erabilera eta gozamina, dibortzio-epai baten ondorioz.
Arau horren c) letran Arartekoari esleitzen zaio lege-urritasunak adierazteko eskumena. Alegia, iradokizunak egin behar ditu, administrazioaren eta zerbitzu publikoen jarduerak objektibotasuna eta eraginkortasuna izan dezaten administratuen eskubideak bermatzean.

211

Gainera, foru-lege horretako 18.1 artikulua erakundeari eskumena ematen dio edozein ofiziozko ikerketa has eta jarrai dezan, pertsona bati edo gehiagori eragiten ahal dioten administrazio publikoen ekintzak, ez-egiteak eta ebazpenak argitzeko.

2009. urtean, erakundeak ofiziozko 30 jarduera gauzatu zituen. Horietako bat haurtzaroaren eta nerabezaroaren 2008ko egoerari eta balorazioari buruzkoa da, eta ekitaldi hartako urteko txostenean islatu zen. Honakoak dira Nafarroako Arartekoak bere kabuz egin zituen gainerako jarduerak:

1. Informazio eskaria, Nafarroako Foru Komunitatean desagertutako pertsona bati buruz eginiko polizia-ikerketei buruzkoa.

Administrazio eskuduna: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Gaia: Barne arloa.

Emaitza: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eskatzea lehenetsuna eman diezaiola ikerketa polizialari eta neurri guztiak har ditzala kasua argitzeko eta desagertutako pertsonaren senideen segurtasun pertsonala bermatzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legearen garapenaren eta aplikazioaren egoera.

Administrazio eskuduna: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Gaia: Zerbitzu publikoak ematea.

Emaitza: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoaren ezarpenaren aplikazio progresiboa egoki garatzea.

3. Etxebizitzetatik hurbil dauden abeltzaintza-instalazioek sorturiko ingurumen-kutsadura.

Administrazio eskuduna: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua.

Gaia: Ingurumen-kutsadura.

Emaitza: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari iradokitzea ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuko lehen xedapen iragankorreko bigarren lerrokadan jasotako aurreikuspena aldatzeko edo indarrik gabe uzteko, abeltzaintza-instalazioak lehen graduko senideei eskualdatu ahal izateari dagokionez.

4. Ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko foru dekretuaren proiektuari buruzko analisia.

Administrazio eskuduna: Hezkuntza Departamentua

Gaia: Hezkuntza. Adingabeak.

Emaitza: Hezkuntza Departamentuari iradokitzea foru lege bidez erregula dezan arlo hori, eta hamar iradokizun edo gomendio egitea arauaren eduki substantiboan erregulatu beharreko zenbait alderdiri buruz.

213

5. Teknologia berrien bitartez, adingabeek jokorako adikzioa izatearen ondoriozko arazoak.

Administrazio eskudunak: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua; Osasun Departamentua; Hezkuntza Departamentua; eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Gaia: Osasuna, Hezkuntza. Gizarte gaiak. Barne arloa. Adingabeak.

Emaitza: Aipatu departamentuei zenbait hobekuntza egiteko zuzendutako iradokizunak.

6. Gizarte zerbitzuen arloan diharduten zentro eta zerbitzuak ikuskatzeko jarduera aztertzea.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Zerbitzu publikoak ematea. Gizarte zerbitzuak

Emaitza: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari hobeki jarduteko egindako iradokizunak.

- 7. Nafarroako Fiskaltza Nagusiari eginiko informazio eskaria, Nafarroan kokaturiko adingabeentzako epaitegien eskumenen esparruan, Zigor Kodearen edo zigor lege berezien arabera delitu edo falta gisa tipifikatutako egitateen erantzule jo diren adingabeen kopuruari buruzkoa, 2007, 2008 eta 2009. urteei dagokienez. Informazioa eskatu zen, halaber, Zigor Kodearen edo zigor lege berezien arabera delitu edo falta gisa tipifikatutako biktima izan diren adingabeen kopuruari buruz, betiere Nafarroan eta urte beretan.**

Organo eskuduna: Nafarroako Justizia Administrazioaren Fiskaltza.

Gaia: Justizia. Adingabeak.

Emaitza: Fiskaltzak emaniko datuen analisisa.

- 8. Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan jasotako erreforma sistemaren menpeko adingabeentzako zentro batean gertaturiko adingabe baten heriotzaren ingurua-barrei buruzko ikerketa.**

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

Gaia: Gizarte gaiak. Adingabeak.

Emaiza: Ez zen inongo axolagabekeriarik atzeman zerbitzuan, ez eta, horrenbestez, Administrazio Publikoaren erantzukizunik ere. Hori guztia, noski, ez da eragozpena izanen bide judizialean gerta daitekeen emaitzarako.

- 9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak enplegarritasunik batere ez duten pertsonak edo enplegarritasun txikia nahiz oso txikia duten pertsonak laneratzeko Kontratu Publikoei buruzko uztailaren 9ko 6/2006 Foru Legearen aplikazio-esparruan ezarritako mekanismoen egiaztapena.**

Administrazio eskuduna: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentu guztiak.

Gaia: Gizarte gaiak.

Emaiza: Zenbait neurri ezartzea krisiak ezgaitasuna duten pertsonengan eta gizarte-bazterkeriarako arriskuak dituzten pertsonen beste kolektibo batzuegan izan dituen eraginak arintzeko.

- 10. Adingabeei eragindako tratu txarren arloko protokoloak Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeari buruzko azterketa; zehazki, ikastetxeetan atzematzen diren kasuen komunikaziori buruzko azterketa.**

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua eta Hezkuntza Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Hezkuntza. Adingabeak.

Emaiza: Hezkuntza Departamentuari iradokitzea neurri zehatzak ezar ditzan egun dagoen jarduera-protokoloa hobetzeko, ikastetxeetako langileek horrelako kasuak

atzematerakoan eta zuzen jarduterakoan eragina duten arazoak edo zailtasunak kokatzeko.

- 11. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari egindako informazio-eskaria, Nafarroara Kanariar Uharteetako Autonomia Erkidegotik etorritako hamar laguntzarik gabeko adingabe atzerritarri harrera emateko programaren jarraipenari buruzkoa.**

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Adingabeak.

Emaitza: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak jakitera eman zituen Kanariar Uharteetako Gobernuak programari jarraipena emateko azaldutako zailtasun teknikoak eta aurrekontukoak, eta adierazi zuen programari jarraitasuna emateko behar diren izapideak egiteko asmoa duela.

- 12. Tuteran, Nafarroako Enplegu Zerbitzua uztailleko zenbait egunez itxita egoteari buruzko ikerketa.**

Administrazio eskuduna: Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua.

Gaia: Zerbitzu publikoak ematea.

Emaitza: Zerbitzuaren funtzionamendu zuzena egiaztatzea.

- 13. Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiaren aurreko azalpena, espetxeratu baten egoera pertsonal eta familiar zailari buruzkoa, eta epaitegi horri hirugarren gradua emateko eskaria helaraztea.**

Organo eskuduna: Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia.

Gaia: Justizia

Eraitza: Gaia Espetxeen Administrazioari igortzea, gizaldeko arrazoiak direla medio azter dezan erregutuz.

14. Nafarroako Enpleguaren Institutu Nazionalan atzeratzea langabeziarengatik prestazioak ordaintzerakoan, espedienteak pilatzearen ondorioz.

Administrazio eskuduna: Enplegu Institutu Nazionala.

Gaia: Lana.

Eraitza: Espedientea Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igortzea, esku har dezan eskatuz.

15. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen ekainaren 16ko 69/2008 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren proiektuari buruzko analisia.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak

Eraitza: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari hobeki jarduteko zenbait iradokizun igortzea.

16. “Hiperglizinemia ez zetosikoa” Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunetan zorroan sartzea.

Administrazio eskuduna: Osasuneko eta Gizarte Politikako Ministerioa.

Gaia: Osasuna

Emaitza: Espedientea Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igortzea, esku har dezan eskatuz.

17. Tuteran zigor arloko epaitegi bat jartzea.

Administrazio eskuduna: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

Gaia: Justizia.

Emaitza: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzea eskaria onar dezan; eta espedientea Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igortzea, esku har dezan eskatuz.

18. Posta Zerbitzuaren proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean hiriguneetatik urrun dauden auzo eta etxebizitzetarako postontzi partekatuak jartzeko.

Administrazio eskuduna: Posta eta Telegrafoak S.A.

Gaia: Ogasuna. Zerbitzu publikoak ematea.

Emaitza: Espedientea Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igortzea, esku har dezan eskatuz.

19. Dei-ezarpenaren kontzeptuarengatik eta ahots-postontziaren zerbitzuarengatik fakturatzea, itzalita, komunikatzen edo estaldurarik gabe dauden sakelako telefonoetara eginiko deietan, ahots-mezua grabatzen ez denean.

Administrazio eskuduna: Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa.

Gaia: Kontsumoa.

Emaitza: Espedientea Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igortzea, esku har dezan eskatuz.

20. Entzierroaren hesiak erretiratzeko lanak egiten ari ziren bitartean gertaturiko adingabe baten heriotzari buruzko ikerketa.

Administrazio eskuduna: Atarrabiako Udala

Gaia: Adingabeak. Ondare erantzukizuna.

Emaitza: Udalari iradokitzea hildako adingabearen familiari kalte-ordainak ordain diezazkion, administrazio publikoaren ondare-erantzukizuna dela eta.

21. Goizueta eta Aranoko eskualdeari arreta emateko osasun baliabide egokiak ustez falta izatea.

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Osasuna.

Emaitza: Osasun Departamentuari informazioa eskatzea Goizueta eta Aranoko Laguntza Jarraituko Gunean ematen den laguntza medikoari buruz, eta iradokitzea laguntza jarraituko gune horretan asteko egun guztietan bertan presente egonen den zaintzako sendagile bat jar dadin.

22. Lanaldi erdiko tarifarik ez egotea Tuterako Udalaren menpeko 0-3 urteko udal ikastetxeetan.

Administrazio eskuduna: Tuterako Udala.

Gaia: Hezkuntza. Adingabeak.

Eraitza: Tuterako Udalarri iradokitzea xedapen orokor bat prestatu eta onets dezan (ordenantza bat nahiz egokitzat jotzen duen tresna), ziklo hori irakasten duten ikastetxeen funtzionamenduaren alderdi guztiak arautzeko, eta ezartzeko zein tarifa ordaindu behar dituzten gurasoek zentroa dela-eta egiten duten erabileraren arabera, lehendik ezarritako ordutegi-modalitateen arabera.

23. Oinarrizko errenta emateko prozeduretan gertatzen diren atzerapenak eta 25 urtetik beherakoak prestazio horretatik kanpo uztea.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak.

Eraitza: Iradokitzea arin daitezten oinarrizko errenta emateko prozedurak, eta 25 urtetik beherako pertsonei errenta hori emateari dagokionez, premia bereziko egoeretan laguntza ematen jarraitzea.

220

24. Ezgaitasun egoeran dauden pertsonei arreta emateko egoitza-toki publikoen tarifak handitzea.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Menpekotasuna

Eraitza: Iradokitzea tarifen handitzea pixkanaka egin dadin, halako moduan non ez den kolpe batez igoera handi bat eginen.

25. Euskarari buruzko Foru Legea betetzeari buruzko egiaztapena, 1 eta 10 autobideetan jarritako errotilazio

publiko eta ofizialean, Nafarroako eremu euskalduneko herrietan.

Administrazio eskuduna: Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua.

Gaia: Euskara.

Emaitza: Legea zuzen aplikatzea.

26. Torturaren eta bestelako tratu edo zigor anker, bihotz gabe edo laidogarrien aurkako Konbentzioko Protokolo Fakultatiboa aplikatzea.

Organo eskuduna: Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoa.

Gaia: Barne arloa.

Emaitza: Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari eskaria egitea, azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoko 3. artikulua aitpatzen duen kontseilu aholku-emailean parte hartzeko, eskubide osoko kide gisa, hitzarekin eta botoarekin, behar diren eta Nafarroako Foru Komunitateko eskumenetan eragina duten jarduerak koordinatu ahal izateko.

27. Nafarroako osasun sistema publikoaren funtzionamendua, oro har.

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Osasun Batzordea.

Emaitza: Oro har, osasun sistemaren funtzionamendu egokia egiaztatzea.

28. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko hirugarren xedapen iragankorraren betetze-maila. Izan ere, xedapen horrek legea onetsi zen unean planeamendu orokor bat indarrean zuten udalak behartzen zituen planeamendu hori homologatzera edo hiru urteko epean legeari egokitzera.

Administrazioa: Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua.

Gaia: Hirigintza.

Emaitza: Departamentuari iradokizuna egitea planeamendua egokitu eta homologa dadin bultza-lanean jarraitzeko, egiteko horretan oraindik ere hasita ez dauden udaletan.

29. Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordea eta Izaera Sektorialeko edo Zentroko Etika Batzorde Sektorialak sortzeko oinarrizko dokumentuari buruzko analisia.

Administrazioa: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak

Emaitza: Zenbait iradokizun egitea Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari dokumentu horri buruz. Iradokizun horietatik ia guztiak onartu egin dira.

4.2. GAIEN ARABERAKO LABURPENA

Nafarroako Arartekoak bere kabuz eginiko jarduerak ondoko arloetakoak izan ziren:

Gizarte gaiak: 13

- Adingabeak: 6 (5, 7, 8, 10, 11, 20 eta 22. jarduerak)
- Gizarte zerbitzuak: 4 (6, 15, 23 eta 29. jarduerak).
- Ezinduak. 1 (9. jarduera).
- Kontsumoa, telefono mugikorrak. 1 (19. jarduera).
- Menpekotasuna: 1 (24. jarduera).

Hezkuntza: 4

- Ikaslen eskubideak eta betebeharrak. 1 (4. jarduera).
- Adingabeen on-line jokorako adikzioa: 1 (5. jarduera).
- Adingabeen tratu txarra atzemateko protokoloa: 1 (10. jarduera).
- 0 eta 3 urte artekoentzako ikastetxeetako tarifak ezartzea. 1 (22. jarduera).

Barne arloa: 3

- Ikerketa polizialak: 1 (1. jarduera).
- Adingabeen on-line jokorako adikzioa: 1 (5. jarduera).
- Torturaren aurkako nazioarteko protokoloak aplikatzea: 1 (26. jarduera).

Hirigintza 1

- Udal planak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera egokitzea: 1 (28. jarduera).

Zerbitzu publikoak ematea: 4

- Administrazio elektronikoa: 1 (2. jarduera).
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren funtzionamendua: 1 (12. jarduera).
- Enplegu Institutu Nazionalaren funtzionamendua: 1 (14. jarduera).
- Posta komunikazioak: 1 (18. jarduera).

Osasuna: 4

- Osasun prestazioak: 1 (16. jarduera).
- Laguntza medikoa: 1 (21. jarduera).
- Nafarroako Osasun Zerbitzuaren funtzionamendua: 1 (27. jarduera).
- Adingabeen on-line jokorako adikzioa: 1 (5. jarduera).

Justizia: 2

- Tuterako zigor arloko bosgarren epaitegiaren kokapena (17. jarduera).
- Delituen erantzule eta biktima diren adingabeak: 1 (7. jarduera).

Ingurumena: 1

- Abeltzaintza ustiategiak (3. jarduera)
- Ondare erantzukizuna: 1
- Adingabeak (20. jarduera).

Euskara:

- Hiriarteko bideetako errotulazioa: 1 (25. jarduera).

4.3. LABURPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARABERA

Honako hau da erakunde honek bere kabuz eginiko jardueretan administrazio publikoengana jo zuen kasuei buruzko laburpena:

225

I. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa: 34

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua: 4
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua: 1
- Erakunde Harremanetarako Departamentua: 1
- Hezkuntza Departamentua: 4
- Osasun Departamentua: 4
- Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua: 10

- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua: 2
- Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua: 2
- Toki Administrazioiko Departamentua: 1
- Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Departamentua: 1
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua: 2
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua: 2

II. Udalak: 2

- Atarrabiako Udala
- Tuterako Udala

III. Beste batzuk: 7

- Nafarroako Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia: 1
- Nafarroako Fiskaltza Nagusia: 1
- Enplegu Institutu Nazionala: 1
- Osasuneko eta Gizarte Politikako Ministerioa: 1
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: 1

- Posta eta Telegrafoak S.A.: 1
- Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa: 1

4.4. NAFARROAKO HAUREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikulua ezarri zuen Nafarroako Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratu behar duela, eta horretarako behar diren neurriak hartu behar dituela. Neurri horien artean dago haurrek eta nerabeek duten egoera ebaluatzea urteko txostenean.

Legezko aurreikuspen hori betetzeko, atal honetan arlo material horri buruzko zenbait datu eta balorazio eskaintzen ditugu, betiere funtsezko erreferentziatzat hartuta –horrelaxe behar baitu– aipatu foru legean adierazitakoa, adingabearen babesaren arloko Nafarroako esku-hartze administratiboaren buru-buruan dagoen araua delako.

227

A) Arau- eta plangintza-lana.

2008ko urteko txostenean adierazten zen bezala, urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako Gobernuak abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea partzialki garatzeko erregelamendua onetsi zuen. Arauak legearen erregulazioa osatzen du zenbait alderdi garrantzitsutan; esate baterako: arloan esku hartzen duten langileen lanbide profil espezializatuak, Balorazio Batzordea, Administrazioak zenbat jarduera, baliabide eta produktutan izanen duen esku-hartzea, kautelazko neurriak,

babesgabetasuneko egoerak, familiako babesa eta babes neurrien jarraipena, aldaketa eta iraungipena.

Orduan ere ohartarazi genuen bezala, foru legean jasotako alderdi batzuk ebatzi gabe zeuden, eta komenigarria zen araugintza-lan horri ahal bezain laster ekitea, legegilearen agindua guztiz betez.

Hori guztia dela eta, bidezkoa da adieraztea gaur egun izapidetzeko bidean direla Haurren eta Nerabeen Arretarako Kontseiluaren osaketa, antolamendua eta funtzionamendua arautuko dituen arauaren tramitazioa. Izan ere, arau horrek osatu egingen du nazioko eta nazioarteko adopzioari buruzko legezko araupetzea, eta adingabeei babesa ematearen arloko prestazio ekonomikoak erregulatuko ditu.

Plangintza eta programazio jarduerari dagokionez, gaur egun Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko bat badago (2008-2012) eta Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa ere bai. Biek hala biek adingabeak babestearen arloko jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak jasotzen dituzte. Halaber, 2009. urtean Zentroak eta Zerbitzuak Ikuskatzeko Plan bat egon da (eragina du gizarte zerbitzuen arloko baliabideen multzoan eta, horrenbestez, adingabeen babesaren arloan).

B) Adingabeen eskubideen sustatzea eta zabaltzea.

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko Foru Legearen testuan adingabeen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dira, eta haiek sustatzeko eta jakitera emateko agintzen da. Eginkizun horri dagokionez, atzeman dugu eskueran dagoen tresna garrantzitsuena dela Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko intraneten eskubide horiei buruzko informazioa argitaratzea. Halaber, Haurren

Eskubideen Eguna ospatu zen, UNICEFekin batera eginiko zabalkunde jarduera baten bitartez.

Aurreko urteko txostenean adierazi genuen bezala, eta ikusita nabarmena dela populazio sektore horrek hain zuzen ere bere eskubideak eta betebeharrak –banakakoak zein sozialak– ezagutzeko zailtasunak dituela, berriz diogu guztiz egokia dela zeregin hori nabarmentzea eta hartan indarra jartzea, bereziki hezkuntza administrazioarekin koordinaturiko ekintzen bitartez.

C) Prebentzio jarduerak.

Prebentzio jardueren funtsezko helburua da babesgabetasuneko eta gizarte-gatazkako balizko egoerak saihestea edo ahal den guztian gutxitzea. Administrazioaren 2009ko esku-hartzea nagusiki honako alderdiotan zentratu da:

229

- Gurasoei eta hezkuntzaren, osasunaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen arloko profesionaleri zuzendutako prestakuntza jarduerak antolatzea (2009an, zortzi prestakuntza jarduera garatu ziren, eta haietan 655 pertsonak hartu zuten parte).
- Arlo honetan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateen sustapena. Horretarako, diru-laguntzak ematen zaizkie babesgabetasuneko nahiz gizarte gatazkako arrisku-egoeran dauden adingabeekin jarduerak egiteko. Halaber, hitzarmenak sinatzen dira gizarteratze eta laneratze tailerrek lan egin dezaten.
- “Familia eta Ikus-entzunezko Pantailak” izeneko kanpaina bat garatzea, ikus-entzunezko bitartekoen erabilera egokia sustatzera orientatua. 2009an, teknologia berrien eta, zehazki, interneten erabilera arduratsuari buruzko

mintegi bat ere egin da.

Adingabeen eskubideen eta betebeharren sustapenari eta zabalkundeari buruz ari ginela esan dugun bezala –izan ere, prebentzioak lotura hertsia du jarduera horrekin–, egokia dirudi ahal den neurrian arlo horretako jarduerak indar daitezen bultzatzea, kontuan hartuta foru legeak lehentasunezko tokia aitortzen diela. “Positibotzat” jo beharra dago familiei laguntza ematearen arloko prebentzio ekintzak eta gizarte harremanekin eta aisiarekin lotutakoak garatzea. Alderdi horiek, izan ere, legean jasota daude eta berariaz aipatu ziren 2008ko ekitaldiari buruzko txostenean.

D) Babes jarduerak.

a) Arrisku-egoerak.

Babesgabetasuneko egoeren artean, arriskukoak dira intentsitate handiena edukitzen dutenak eta, horrenbestez, esku-hartze txikiagoa exijitzen dutenak. 2009an, egoera horietan eguneko zentroen bitartez eman da arreta (26 adingabe) bai eta Familietan Esku Hartzeko Programaren bitartez ere (76 familia eta 165 adingabe). Halaber, 110 familiari eta 195 adingaberi arreta eman zaie haur eta nerabeentzako arreta taldeen bitartez.

Datuek egoera horien egoera bat erakusten dute, aurreko ekitaldian antzemandakoekin alderatuta. Horri dagokionez, Familietan Esku-hartzeko Programan 2008an baino 26 familiari eta 46 adingabe gehiagori eman zitzaien laguntza.

Inongo kasutan ere ez da gertatu adingabea familiatik bereizi behar izatea. Alderdi hori oso positiboa dela jo behar da.

b) Babesgabetasun egoerak.

Babesgabetasuna intentsitate handiagoaz agertzen den eta adingabearen zaintza hartu beharra dakarten babesgabetasun egoerak dira. 2009an, 29 adingabe babesgabetasun egoeran deklaratu ziren. Kopuru hori aurreko ekitaldikoa (20) baino handiagoa da. Bestalde, 5 adingaberen babesgabetasun egoeraren deklarazioa deuseztatu zen, eta gurasoen zaintzaren menpera itzuli ziren.

c) Familiei laguntzeko jarduerak.

Puntu honetan, Administrazioaren babesak jaso dituzten familiak aipatzen dira (babes teknikoa nahiz ekonomikoa), alde batera utzita zain jarduera mota izan den. Administrazioaren babes horren helburua izan da bereiztea saihestea, eta bereizte kasuetan, adingabearen itzultzea bilatzea. Datua aipagarria da, zeren eta ongi islatzen baitu zenbat familiak behar duten Administrazioaren laguntza, eta, horrenbestez, zenbatek dituzten zailtasunak, gutxi-asko trinkoak eta era askotakoak, adingabeei behar bezalako arreta emateko.

Jakinarazi zaigunaren arabera, erreferentziako ekitaldian 1.908 familia izan ziren era bateko edo besteko laguntza jaso zutenak (diru-prestazioak jaso zituzten familiak; Familietan Esku-hartzeko Programa erabili zuten familiak; seme-alabak eguneko zentroetara joaten diren, harrera-familia batekin bizi diren edo egoitza-zentro batean dauden familiak; Behaketa- eta Harrera-Zentroak esku hartu duen familiak; seme-alabek nerabeentzako hezkuntza programan parte hartzen duten familiak; topaguneetan eta Orientazio eta Familia Bitartekaritza zerbitzuetan laguntza jasotzen duten familiak...).

Aurreko ekitaldiko zenbatekoarekin (1.847 familia) alderatuta, atzeman daiteke gora egin duela nolabaiteko laguntza jasotzen duten familien kopuruak; dena den, igoera hori (% 3,3) ez da 2008koa bezain nabarmena.

Halere, berriz esan beharra dago laguntza behar duten familia guneen kopurua handia dela. Datu horrek ongi justifikatzen du Administrazio Publikoak erabili beharreko dotazio pertsonalak eta aurrekontukoak.

d) Zaintza egoeran dauden adingabeak.

Zaintza da babesgabetasun egoerei aurre egiteko aurreikusita dagoen neurri bat, eta harreraren figuraren bitartez gauzatzen da. 2009an, 452 adingabe gertatu dira egoera horretan. Kopuru hori, izan ere, aurreko urtekoa (442) baino handixeagoa da eta txikixeagoa orain dela bi urtekoa (464) baino.

232

e) Tutoretzapeko adingabeak.

Tutoretza, administratiboa nahiz arrunta, babes-neurrietako beste bat da. 2009an, 220 izan dira tutoretzapean egon diren adingabeak. Kopuru hori aurreko urtekoaren (207) oso antzekoa da.

f) Harrera indardun eta formalizatuak.

Geriza-gabetasuneko egoeran dauden adingabeen tutoretza eta zaintza harreraren bidez formalizatuko dira. 2009an, 155 adingaberen harrera formalizatu zen. Ondoren adierazitakoak dira harreran dauden adingabeen guztizko kopuruak:

- Harrera egoeran dauden adingabeen kopurua, guztira: 452.
- Familiako eta egoitzako harrerak: 242 eta 210 adingabe, hurrenez hurren.
- Familia zabalean eta beste familia batzuetan gauzaturiko harrerak: 164 eta 78 adingabe, hurrenez hurren.
- Harrera soilak, iraunkorrak eta adopzioaren aurrekoak: 82, 160 eta 4 adingabe, hurrenez hurren.

Horri dagokionez, foru legeak familiako harrerari ematen dio lehentasuna egoitzako harreraren gainetik; halaber, lehentasuna ematen zaio familia zabalean hartzeko aukerari beste familia batzuetako harreraren gainetik. 2008ko ekitaldiarekin alderatuta (267 adingabe familiako harretan eta 197 adingabe egoitza-harreran), gora egin du egoitza-harreraren kopuruak. Datu hori ikuspuntu sozialetik “negatibotzat” jo beharra dago ezinbestez.

Emandako datuak ikusita eta familiako harrerari eman beharreko lehentasunaren ikuspuntutik, berriz esan beharra dago modalitate hori indartuko duten neurriak hartu behar direla, adingabeen instituzionalizatzea ahal den guztian saihesteko.

g) Nazioko eta nazioarteko adopzioak eta egokitasun-deklarazioak.

2009an, 9 adopzio nazional eta nazioarteko 65 adopzio gauzatu ziren. Halaber, egokitasuneko 128 deklarazio eman ziren. 2008an, honakoak izan ziren kopuruak: nazioko 4 adopzio, nazioarteko 74 adopzio eta 130 egokitasun-deklarazio.

Gure iradokizuna da neurriak bultzatzea ahal den guztian prozedurak arintzeko, eta egokitasun-deklarazioak emateko

irizpideak eta izapideak erregulatzea. Alderdi horretan, foru legeak oraindik ere gauzatu ez den erregelamenduzko garapen bat aurreikusi zuen.

h) Gatazka egoeran dauden adingabeak.

Puntu honetan babes sisteman egon eta ez-egokitzapen larriko egoeran daudelako beren buruei edo besteei kalte egiteko arriskuan izan daitezkeen adingabeak aipatzen ditugu. 2009an, 328 adingabe gertatu ziren egoera horretan (aurreko urtean, berriz, 217 adingabe izan ziren). Kopuruak, eta batez ere igoerak, gogoeta eginarazi behar digu, eta kasu horiek ahal den guztian gutxitzeko prebentzio-, hezkuntza-, kultura- eta gizarteratze-neurriak aplikatu behar dira.

i) Autonomia pertsonaleko programa.

Halakotzat jotzen dira 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei zuzendutakoak, baldin eta neurri judizial edo administratiboren bat ezarri bazaie, haien gizarteratzea edo laneratzea errazteko.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak emandako datuen arabera, 2009an, autonomia lortzeko eta desinstituzionalizatzeko prozesuetarako laguntza ekonomikoei buruzko 59 espediente zabaldu dira, 28 adingaberi dagozkienak.

Berriz ere iradokitzen dugu arlo honetako jarduerak indar daitezen, eta horretarako laguntza ekonomiko zein teknikoak eman daitezen. Erakunde honek jada nabarmendua du komenigarria dela emantzipaziorako edo helduen bizitzara iragateko programak indartzea.

E) Erreforma sistemako jarduerak.



Txosten hau idazteko unean, 313 adingabe barnetegi araubideko nahiz ingurune irekiko neurri judizialak betetzen ari dira. 2009an, 23 adingabe barnetegi araubideko erreforma-sisteman sartu ziren, eta 110 adingabe, berriz, ingurune irekiko neurriak betetzeko sisteman sartu ziren.

Aurreko urtearekin alderatuta, erreforma sistemaren menpeko adingabeen kopuruak zertxobait behera egin duen arren (335 izatetik 313 izatera), oraindik ere kezagarria da barnetegi-araubideko “alten” kopurua (10 izatetik 23 izatera pasa da).

5 _ serbitzu publikoak hobetzeko proposamenak

2009

5 _ serbitzu publikoak hobetzeko proposamenak



2009

V. KAPITULUAK.

SERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

5.1. HERRITARREN PROPOSAMENAK

Nafarroako Arartekoak, 2008tik, herritarrek zerbitzu publikoak hobetzen parte har dezaten sustatzen du, eta herritarrei bultza egiten die zerbitzu horiek hobetzeko proposamenak aurkez ditzaten.

Esate baterako, 2008an herritarrek 63 proposamen aurkeztu zituzten, eta 2009an, berriz, 50 proposamen.

Edukitik ondorioztatzen denaren arabera, erakunde honek administrazio publiko eskudunari igortzen dizkio proposamenak, eta ahal den neurrian, haren aurrean defendatzen ditu; bestela, Estatuaren eskumenekoak badira, Gorte Nagusietako Arartekoari igortzen dizkio.

239

Proposamen horietatik batzuk Nafarroako Parlamentuak eta administrazio publikoek onartu egin dituzte –haien meritua herritarrei dagokie–, eta batzuetan gauzatzeko bidean daude.

Aurtengo proposamenak honako gaiei buruzkoak izan dira, handitik txikirako hurrenkeran jarrita:

ARLOAK	PROPOSAMEN KOPURUA
Gizarte gaiak	14
Funtzio publikoa	6
Hezkuntza	5
Ogasuna	5
Osasuna	4
Garraioa	3
Trafikoa	3
Etxebizitza	2
Euskara	1

Ingurumena	1
Justizia	1
Zerbitzu publikoak	1
Hedabideak	1
Turismoa	1
Gizarte segurantz	1
Barne arloa	1

A) Azaldutako datuetatik ondorioztatzen da proposamen gehienak gizarte gaiei buruzkoak izan zirela.

Aurkeztutako hamalau proposamenetatik, zazpi haurren eta nerabeen babesari eta laguntzari buruzkoak izan ziren. Horien artean, honakoak planteatu ziren, besteak beste:

- Adopzio prozesuak arintzeko eta hobetzeko beharra, bereziki eskatzaileen egokitasuna baloratzeari eta nazioarteko adopzioko espedienteen izapidetzeari dagokienez.
- Egungo legedia aldatzea, banaketei eta dibortzioei dagokienez, aiten eta amen egoera berdintzeko seme-alaben zaintzaren arloan. Aldaketa proposamen hori Berdintasunaren Ministeriora eta Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igorri zitzaizkien, aztertu eta balora zezaten.
- Jarduera protokoloak ezartzea adingabeak babesteko zenbait prozedura judizialetan.

Nabarmentzekoak dira, halaber, ezgaitasunari buruzko proposamenak. Horien artean, honakoak azaldu ziren, besteak beste:

- Minusbaliotasuna duten pertsonen udalen kirol instalazioak erabiltzeko ezarritako tasak ez ordaintzea edo tasa txikiagoak ordaintzea.
- Aitorturiko minusbaliotasun gradua berrikusteko goi mailako organoak sortzea, adostasunik ez dagoen kasuetan.

Hirugarren adinaren arloa dela-eta, honako helburuak dituzten proposamenak aurkeztu ziren:

- Adineko pertsonentzako laguntza eta prestazioak hobetzea; besteak beste egoitzetako kostuak gutxitzea.
- Iruñerriko Mankomunitateak diruz lagundutako garraio txartela lortzearen ondorioetarako, "B" tarifaren onuradun gisa sartzea 60 urtetik gorako pertsonak (langabeziako legezko egoeran egon daitezten exijitu gabe), langabeziako legezko egoeran dauden 52 eta 65 urte bitarteko pertsonentzat adierazitako diru-sarrereren mugekin eta zamen aurreikuspenarekin.

Etorकिनentzako laguntzei dagokienez:

- Nafarroako Gobernuak foru erkidegora itzuli diren emigrante nafarrentzako laguntzen deialdian aparteko kasu batzuk aurreikustea, eta haietan gaixotasuna bezalako inguruabarrak edo beste batzuk baloratzea, atzerrian dauden eta Nafarroara itzultzeko zailtasunak dituzten nafarrek itzultzeko modua izan dezaten.

241

Halaber, adimeneko nahaste larriak dituzten pertsonentzako egoitza gisako balia bideak ezartzeko betebeharrari buruzko proposamen bat jaso genuen, eta beste proposamen bat Hezkuntza Departamentuaren eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren arteko jarduerak koordinatzeko beharrari buruzkoa, ikastetxeetan sobran geratzen diren jakiak premia egoeran dauden pertsonak hartzen dituzten zentroetara bideratzeko.

B) Funtzio publikoaren arloan, honako gai ei buruzko proposamenak egin ziren:

- Lana eta familia bateragarri egiteko egun dauden neurriak hobetzeko beharra, honakoak bezalako ekintzak aitortuz: Nafarroako administrazio publikoetako langileek aukera izatea

lanaldia 1/8-tik aurrera gutxitu ahal izateko; eta sarrerako eta irteerako ordutegia malgutu ahal izatea lana eta familia bateragarri egin ahal izateko.

- Erretiro aurreratua eta erretiro partziala, erreleboko kontratuarekin, lortzeko aukera, Gizarte Segurantzaren araubidean dauden funtzionarioentzat.
- Administrazio Publikoak deitzen dituen hautapen-prozesuetan, minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat ezarritako txandan izena ematen duten pertsonen identitatea ahal den guztian gorde ahal izateko tresnak ezartzea.

C) Hezkuntza arloan, herritarrek honakoak proposatu zituzten:

- Enbor-ikasgaietako testu liburuak hiru liburukitan zatitzea, ikasleek egunero garraiatu behar izaten duten pisua gutxitzeko.
- Anai-arrebak ikastetxeetan automatikoki eskolatu ahal izateko neurriak ezartzea.

D) Ogasunaren arloan, honako alderdiei buruzko proposamenak egin ziren:

Foru ogasunaren arloan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren egungo araudiari buruzkoak izan ziren. Batez ere, honako arloen gainekoak izan ziren:

- Alarguntasun pentsiotik heldu diren errentei trataera berezia emateko beharra, horiek laneko errentekin batera metatzen direnean.
- Osasun gastuetarako kenkari bereziak ezartzeko aukera.
- Pentsioei aplikatzen zaien atxikipena gutxitzeko aukera.

Toki ogasunei dagokienez, proposatu zen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzea, Estatuak tributuen arloan ezarritako ereduari jarraituz, eragozte aldera kostu bidezko eskualdaketetan hirilurren balio gehikuntzari buruzko zerga (plusbalioa) erosleari igor dakion.

E) Osasunaren arloan, parte-hartzea askotarikoa izan zen. Horrenbestez, hauxe planteatu zen:

- Jokorako adikzio arazoak dauzkaten pertsonentzako berariazko programak ezartzea, eta adimen osasuneko zentroetan pertsona horiei laguntza emateko langile espezializatuak eduki behar izatea.
- Sendagai batzuk sartzeari Osasun Sistema Nazionalerako zerbitzu komunak zorrotz.
- Zenbait neurri ezartzea GIB/HIESa duten gaixoen bizi kalitatea hobetzeko.
- Iruñako espetxean sendagile psikiatra bat egotea, presoei laguntza emateko.

F) Garraioaren arloan, honakoak proposatu ziren:

- Iruñerriko taxi zerbitzuak hobetzea.
- Iruñean bizikletak aparkatzeko dotazio gehiago eta dotazio hobeak jartzea.
- Mendabia eta Iruña arteko hiri arteko garraio-zerbitzua hobetzea.

G) Garraioaren arloan, proposatu zen prozedura elektronikoa batzuk abian jartzea, zehapen prozedurak kudeatzeko, halako moduan non interesdunek izapideak modu elektronikoak egin ahalko dituzten eta

espedienteari buruzko informazioa bide horretatik lortzeko aukera izanen duten.

- H) Etxebizitzaren arloan, herritarrek proposatu zuten zenbait tresna ezartzea derrigorrezko egiteko igogailuak jartzea mugikortasuna murriztua duten pertsonak bizi diren eraikin zaharretan, eta aurreikustea, gainera, horretarako behar den espazioa desjabetzeko ahalmena, irisgarritasunari buruzko lege sektorialak betetzen ez diren kasuetan.
- I) Ingurumenaren arloan, nabarmendu zen komenigarria dela foru lege bat egitea zarataren arazoari konponbidea emateko eta, kasua bada, arazo hori arintzeko, batez ere partikularren etxebizitzetan. Bestalde, herritar batek zenbait neurri (seinaleztapena eta garbitasuna) proposatu zituen Donejakue Bideko Nafarroako zenbait tarte hobetzeko.
- J) Justiziarekin lotutako gaiei dagokienez, erakunde honi jakitera eman zitzaion haurren tratu txarren kasuan jarduteko protokolo bat ezartzeko beharra dagoela. Haurren Behatokiak egin beharko luke hori, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren parte-hartzearekin.
- K) Barne arloan, proposatu zen zenbait neurri ezartzea nazioarteko erakunde batzuek ezarritakoaren ildotik atxilotuta eta inkomunikatuta daudenen eskubideak bermatzeko.
- L) Herritarrei zerbitzua emateari dagokionez, Nafarroako Gobernuari iradoki zitzaion sor dezan Nafarroan bikote egonkorren erregistroa, hain zuzen ere Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legean aurreikusitakoa, foru lege horren garapena eta aplikazioa hobetze aldera haren hartzaile diren herritarrentzat.
- M) Euskarari dagokionez, proposatu zen Zubiarte Euskaltegiko lanpostuetan euskara baldintza gisa exiji dadin.

5.2. PROPOSAMENAK SORRARAZI DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Nafarroako Arartekoak honako administrazio publikoei igorri zizkien herritarrek aurkeztutako proposamenak:

I. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa: 41 proposamen

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua: 11
- Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua: 9
- Hezkuntza Departamentua: 8
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua: 3
- Erakunde Harremanetarako Departamentua: 2
- Osasun Departamentua: 2
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua: 2
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua: 1
- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua: 1
- Toki Administrazioko Departamentua: 1
- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua: 1

II. Toki izakiak: 8 proposamen


- Iruñako Udala: 3
- Tuterako Udala: 2
- Iruñerriko Mankomunitatea: 2
- Eguesibarko Udala: 1

Gainera, Nafarroako Gorte Nagusietako Arartekoari bi proposamen igorri genizkion, haren eskumenekoak direlako, eta beste bi Ministerio Fiskalari.

6 _ gomendio eta iradokizun
nagusiak

2009

6 _ gomendio eta iradokizun
nagusiak



2009

VI. KAPITULUAK. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN NAGUSIAK

6.1. AITZINSOLASA

Kapitulu honetan 2009ko jarduerari dagokionez gauzatu diren gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorarazpen nagusiak jasotzen dira.

Jakina, ez dira egindako gomendio, iradokizun eta gogorarazpen guztiak jasotzen, garrantzi berezikotzat jo ditugunak baizik. 2009an 467 gomendio, iradokizun eta gogorarazpen egin ziren guztira, honako taula honetan adierazten den moduan:

Zenbat	Gomendioak	Legezko betebeharren Gogorarazpenak	Iradokizunak	Iradokizun normatiboak	GUZTIRA
Kexetan	114	161	51	6	332
Arartekoak bere kabuz eginikoetan	-	-	43	-	43
Proposamenetan	-	-	32	-	32
Txosten berezietan	-	-	60	-	60
GUZTIRA	114	161	186	6	467

249

Gomendio, iradokizun eta gogorarazpen nagusiak hurrenkera alfabetikoan sailkatuta daude, eta haietan xede-administrazioa nahiz edukia adierazten dira.

Horrez gain, adierazten da administrazio hartzaileak gomendioa, iradokizuna edo gogorarazpena onartu duen edo oraindik onartzeke dagoen. Ezer esaten ez dugunean, gomendioa, iradokizuna edo gogorarazpena Administrazioaren erantzunaren zain dagoela esan nahi du.

Azken batean, kapitulu honetan erakundeak 2009. urtean gauzatuako lan proaktiboa laburbiltzen da, eta islatzen da administrazioen aldetik jasotako onarpen maila. Halaber,

Nafarroako Parlamentuari jakinarazten zaizkio onartu ez diren edo onartzeke dauden gomendio eta iradokizunak, administrazio publikoen gaineko kontrol-ekimenen mekanismoak aktibatu nahi baditu ere.

6.2. GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ARLOKA

6.2.1. Nekazaritza

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

- Ekimenak abiaraztea Nafarroako Gobernuak proposa eta aldez dezan Europako arauak edo, kasua bada, estatukoek aitor dezaten herritarrek eskubidea dutela informazio osoa izateko kontsumitzen, eraldatzen edo landatzen dituzten elikagaien osaketari buruz, eta labore ez-transgenikoen kutsatze genetikoa eta polinizazioa kontrolatu eta eragotz dadin, ezarritako ehunekoen mugak ez gainditzeko.
- Behar diren jarduerak egitea abelbideen erabilera publikoa bermatzeko eta segurtatzeko haiek egoki kontserbatuko direla, behar diren babes- eta leheneratze-neurriak hartuz, hain zuzen ere Abelbideei buruzko abenduaren 15eko 19/1997 Foru Legean aurreikusitakoak. **Onartua.**
- Erantzuna ematea, behar den denboran eta moduan, herritarrek aurkezturiko informazio eskariei. **Onartua.**
- Berariaz eta behar den epean ebaztea herritarrek lurzatiei berrantolamenduko prozesuetan aurkeztu dituzten gora jotzeko errekursoak, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari

buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluari eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 7. artikuluari jarraituz. **Onartua.**

- Lehorreko lurrak ureztalur bihurtzeko prozesuetan, Administrazioak bere kabuz hasitakoetan, behar dena ezartzea ukitutako jabeei zuzenean eginiko kontsulta baten bitartez edo egokitze jotzen den formularen bitartez, egiaz eta segurtasunez ezagutzeko ukitutako jabe gehienek proiektatu den eraldaketari buruz daukaten iritzia eta jarrera. Hori guztia ezertan kendu gabe aplikatzekoak diren lege edo erregelamenduetan adierazitako faseak eta jarduerak. **Ez da onartu.**
- Lurzatien berrantolamenduko prozesuak ukitutako jabeei eta haien desadostasunei egoztekoak ez diren arrazoiengatik gerarazita dauden kasuetan, arrazoizko epe batean erabakitzea prozesua aurrera eramanen den edo behin betiko etenen den. **Onartua.**
- Ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuko lehenengo xedapen iragankorreko bigarren lerrokan jasotako aurreikuspenaren aldaketa edo indargabetzea bultzatzea, abeltzaintzako instalazioak lehen graduko senideei eskualdatu ahal izateko, instalazio horietatik hurbil dauden etxebizitzetara eragindako enbarazua saihesteko. **Ez da onartu.**

6.2.2. GIZARTE ONGIZATEA

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

- Gizarte zerbitzuen zorroari dagokionez:
 - Mendetasuna duten pertsoneri beren etxebizitzan arreta emateko gutxieneko laguntzak” izena daraman prestazio bermatuari eustea.
 - Gizarte zerbitzuen zorroan bertan ezarritakoari jarraituz, erabiltzaileek zorroko zerbitzuen kostuan parte hartzeko (ordainketan parte hartzea) kopurua arautzea.
 - Prestazioen faseak betetzeko aurreikusitako epeak berrikustea, eta haiek ahal den guztian gutxitzea, halako moduan non ez baita hiru hileko muga gaindituko.
 - Prestazio tekniko desberdinak efektibo egiteko ardura izanen dutenen lanbide profilak zehaztea eta prestazio horietarako kalitatezko gutxieneko estandar batzuk finkatzea.
- On-line jokorako adikzioa dela eta, adingabeentzako babes eta prebentzio neurriak ezartzea.
- Haurrak eta nerabeak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera dela-eta babesteko ekintzak garatzea.
- Hezkuntza Departamentuarekin batera, sentsibilizazio kanpainak egitea adingabeek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera egokia egiteari buruz.

- Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko 15/2005 Foru Legeko 74. artikuluko b) letraren aldaketa bat sustatzea, halako moduan non, edo adinarengatik letra horretan jasotako mugak kenduko diren, edo aukera bat gehituko den aparteko kasuetan, kasuan kasuko inguruabar pertsonal eta familiarrek haztatuta eta adingabearen interes gorena hobetze aldera, onartu ahal izateko eskatzaileek letra horretan ezarritako adin-mugak gaindi ditzaten. **Zati batean onartu da-**
- Mekanismoak ezartzea, adingabearentzako behar diren bermeekin eta kontrolekin, aukera egon dadin nazioarteko adopzioko espedienteak herrialde desberdinetan aldi beran izapidetzeko; esate baterako, izapidetze bikoitza mugatuz Hagako Hitzarmena sinatuta duten herrialdeetara. **Onartua.**
- Adingabearen babesaren arloan diharduten entitateekin hartu-emanak izatea, haiekiko hitzarmen-esparru zabalago bat lortze aldera.
- Berriz ere saiatzea Familia ugariei buruzko 20/2003 Foru Legearen erregelamenduzko garapena lehenbailehen susta dadin, familia horientzako babes-ekintza ezartzeko.
- Diru baliabiderik ez izateagatik premia larriko egoeran dauden eta beren kargura seme-alaba txikiak dituzten familiei laguntzak ematea. **Onartua.**
- 65 urtetik gorako pertsonentzako egoitza-laguntzako prestazioak eraginkor egitea, nahiz eta bermaturik ez egon, baldin eta honako baldintzak betetzen badira: a) eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan modu jarraituan egoitza eduki izana, eta b) Nafarroako Mendekotasun Agentziaren egokitasun txostena izatea.

- Emakumeei generoko indarkeriaren egoerari buruzko ziurtagiri administratiboa emateko prozeduretan, gizonezkoari entzunaldiaren izapidea ematea, egokitzat jotzen duen guztia alegatu ahal izan dezan, eta bidea ematea espedientean dagoen informazio guztia eskuratzeko, betiere informazio hori isilpekoa ez denean. **Onartua.**
- Ezgaitasun fisikoa duten pertsonen zuzendutako dirulaguntza publikoetarako deialdiak arintasun handiagoz kudeatzea, eta saihestea deialdi horietara jotzen duten entitateen funtzionamendua eragozten duten atzerapen justifikaziorik gabeak.
- Gizarte zerbitzuen sistema publikoan prestazio bat – teknikoa nahiz ekonomikoa– sartzeari, daukaten ezgaitasun egoerarengatik lanera joan ahal izateko arazo bereziak dituzten pertsonen lanera joateko garraioa errazteko.
- Mendetasuna duten pertsonen egoera ofizioz baloratzen den eta mendetasuna atzeraeraginez aitortzen den kasuetan, hartatik ondorioztatzen diren eragin guztiak aitortzea, bereziki atzeraeraginez sorturiko prestazioaren ordainketa.
- Administrazioaren eta herritarren artean aitorturiko minusbaliotasun graduari buruzko gatazkak planteatzen diren kasuetan, errekurtsuaren bidetiko balorazioa zalantzan jarritako balorazioa egin duten profesionalen beste batzuek egitea, hain zuzen ere balorazioari buruzko berrikuspen objektiboa bideratzeko.
- Behar diren ekintzak egitea Nafarroan minusbaliotasunaren baldintza eta, kasua bada, minusbaliotasun gradua, ziurtatzeko txartel bat ezar dadin. **Onartua.**

- Egoitza zentroetan sortutako zorrak erreklamatzeko prozeduretan aplikatzekoak diren prozedura-bermeen betetzea muturreraino zaintzea, interesdunentzat funtsezkoak diren izapideak alde batera ez uzteko.
Onartua.
- HIES/GIBa duten gaixoentzako gizarte laguntzako programa bat egitea, Hezkuntza Departamentuarekin eta Osasun Departamentuarekin.
- Buruko nahastea duten pertsonentzako egoitza espezializatuetakoko tokiak eta baliabideak areagotzea.
- Gizarte Laguntzaren Etika Batzordeak arautzeko Foru Dekretuaren proiektua dela eta:
 - Etika Batzordearen erregulazioa diziplina arteko organo gisa duen izaeraren arabera gauza dadin, aniztasuneko irizpideekin. Arautze hori gizarte zerbitzuen arloan eta gizarte babeseko beste sistema batzuetan prestigio handia duten profesionalak eginen dute, kasuan kasuko lanbide elkarteek proposatuta.
 - Etika Batzordeko lehendakari eta idazkari karguak izendatutako mahaikideek izendatzea haien artetik, gisa horretako kontsulta organoen funtzionamenduan gailendu behar den independentzia zaintze aldera.
 - Etika Batzordeko irakaskuntza- eta ikerketa-eginkizunei aitortzea kontsulta egiteko eta irizpena emateko eginkizunei aitortzen zaien garrantzi bera, eta, horrenbestez, irakaskuntza- eta ikerketa-eginkizun horietan garatu beharreko lerro nagusiak finkatzea.
 - Etika Batzordearen funtzionamendu arauak osatzea, gutxienez ere honako zehaztasunekin:

- a) Organikoki Gizarte Gaietako Departamentuaren menpean egonda ere, erabateko autonomia izan dezan bere jarduera guztiak, eta ez egotea funtzionalki Departamentuaren inongo organoren menpean.
- b) Bere funtzionamendua prozedura-arauei egokitzea.
- c) Ezartzea bertaratutakoek erabakiak aho batez hartu behar dituztela, eta horretarako modurik ez dagoen kasutan, hirutik biren botoarekin. Erabakiak aho batez onetsi ez diren kasuetan, inguruabar hori batzordearen txosten eta gomendioetan jasotzea, eta planteaturiko gaiari buruz emandako iritzi guztiak eta haietarako arrazoi guztiak jasotzea.
- d) Etika Batzordeko mahaikideen eta kasu zehatzetarako aholkulari gisa aritzen diren profesionalen erreserbarako eta isilekotasunerako betebeharra jasotzea.

- Zehaztea etika batzordeen txostenak eta gomendioak ez direla lotesleak izanen haien hartzaileentzat.

- Behar diren koordinazio neurriak ezartzea Hezkuntza Departamentuaren eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean, ikastetxeetan sobran geratzen diren jakiak premia egoeran dauden pertsonak hartzen dituzten zentroetara bideratzeko.
- Gizarte Gaietako Kalitate Planean aipatzea ahuldade handiena duten eta gizarte zerbitzuez baliatzen diren kolektiboenganako tratu txarrari aurre egiteari buruzko erreferentzia, planaren helburu eta ildo estrategiko moduan.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

- Nafarroako Gobernuari foru dekretu bat aurkeztea Nafarroan bikote egonkorren erregistroa sortzeko, hain zuzen ere Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legean aurreikusitakoa, foru lege horren garapena eta aplikazioa hobetze aldera haren hartzaile diren herritarrentzat. **Onartua.**

Erakunde Harremanetarako Departamentua

- Nafarroako emigranteentzako eta Nafarroako Foru Komunitatera itzuli direnentzako laguntzak onesteko deialdian, justifikatutako inguruabar bereziak–gaixotasunak eta beste batzuk– baloratzea, atzerrian dauden eta Nafarroara itzultzeko eskatzen den egonaldia bete ez duten nafarrek Nafarroara itzultzeko aukera izan dezaten. **Onartua.**
- Kontratu publikoak esleitzeko Administrazioak prestatzen dituen baldintza administratiboen orrietan, exijitza ezgaituen kopuru bat kontratatzeko betebeharra, lege ezarritako gutxienekoetatik gora. **Onartua.**

Iruñako Udala

- Udaltzaingoari bitarteko materialak ematea, eta zehazkiago egokitutako ibilgailu bat, mugikortasun urritua izatearen ondorioz beren eskubideez baliatzeko zailtasun bereziren bat daukaten pertsoneri lagundu ahal izateko. **Ez da onartu.**

- Udaleko gizarte zerbitzuek arreta berezia eskaintzea premia handiko egoeran dauden eta beren kargura haur txikiak dituzten familiei laguntza ekonomikoak eta sozialak emateko. **Onartua.**
- Familia ugarietarako kirol instalazioak erabiltzeko kuotan ehuneko berrogeita hamarreko deskontua aplikatzea udal instalazio guztietan, haiek kudeatzen dituen organoa publikoa ala pribatua den alde batera utzita.
- Premia larriko egoeran dauden eta baliabide ekonomikorik ez duten familien kasu zehatzetan, udalaren etxebizitzak aldi baterako prekarioan erabiltzeko aukera ematea, haien etxebizitza-egoerari konponbidea ematen zaion bitartean. **Ez da onartu.**

Noingo Udala

- Kontrolatzea zerbitzu publikoen enpresa kontzesio-hartzaileek ez ditzatela kontratatu ezgaitasuna duten pertsonekin lan egiteko behar besteko prestakuntzarik eta sentikortasunik ez duten monitoreak. **Onartua.**

Iruñerriko Mankomunitatea

- Iruñerriko Mankomunitatearen Taxi Zerbitzuari buruzko Ordenantzako 33. artikuluko bosgarren idatz-zatia betetzea. Artikulu horren arabera, Mankomunitateak behar diren neurriak ezarriko ditu ibilgailu egokituen gutxieneko zerbitzu bat bermatzeko, ibilgailu horiek antolatzeke eta ibilgailu horiek 24 orduz zerbitzua eman ahal izateko, betiere lehentasunezko arreta emanez mugikortasun urrituko erabiltzaileei. **Onartua.**

- Garraio publikoaren zerbitzua ematerakoan, ezgaitasunentzako plataformen funtzionamendu egokia bermatzeko, areagotzea enpresa kontzesio-hartzailea ikuskatzeko jarduerak, instalazioen mantentze teknikorako programa bat prestatzea eta gidariak prestatzeko eta kontzientziatzeko programak egitea. **Onartua.**

Elizagorri, Lodosa, Mendabia, Sesma eta Sartagudako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

- Behar diren jarraibideak ematea gizarte langileak mendekotasuna duten pertsonen familiekin hobeki koordina daitezzen. **Onartua.**

6.2.3. Hezkuntza

Hezkuntza Departamentua

- Gizartea, eta bereziki gazteak, kontzientziatzeko kanpainak egitea, HIES/GIBaren birusa transmititzeko arriskua dela eta. **Onartua.**
- Eskola curriculumean sartzea hezkuntza afektibo eta sexualari buruzko alderdiak, eta, kasua bada, sexu-transmisioaren bidezko kutsadurak saihesteko jarraibideak.
- Prozesu bat bultzatzea liburuen argitalpenaren eta eskola-materialaren arloko arduradunekin akordioetara iristeko, enbor-ikasgaietako testuliburuak hiru liburukitan argitaratzeko: liburuki bat hiruhileko bakoitzeko.

- Zehapenen arloko legezotasunaren printzipioa aplikatuz, foru lege bidez arautzea, eta ez erregelamendu bidez, ikasleen eskubideak eta betebeharrak, eta erregulazio horretan ikastetxeetako ikasleei aplikatzekoa zaien diziplina araubidea sartzea.
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak erregulatzeko arauetan, honako alderdiak sartzea:
 - Behar diren neurriak jartzea eskola jazarpenaren (“bullying”) arazoa dela eta.
 - Hezkuntza administrazioak eskolatzeko betebeharra eta ikastetxera joateko betebeharra dela eta hartu beharreko neurriak zehaztea, eta, bereziki, Hezkuntza Departamentuaren eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren arteko koordinazio neurriak hartzea.
 - Kalte pertsonalak konpontzeko betebeharrari buruzko arauak sartzea.
 - Zehaztea ikastetxeek ezin dituztela arauen aurkako jokabideak tipifikatu, ez eta arauetan aurreikusitakoez bestelako zehapenak ezarri ere.
 - Ikastetxeetako egoitzetan erretzea debekatuta dagoen bezalaxe, edari alkoholodunak debekatzea.
 - Berariaz ezartzea arau-hauste arruntak edo larritasun txikikoak preskribitzeko epea.
 - Bizikidetasunerako oso kaltegarriak diren arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko aurreikusitako prozedura hobetzea, eta bereziki:

- a) Ezarri beharreko neurria ebazteko eta komunikatzeko gehieneko epe bat ezartzea.
 - b) Gutxienez ere hamabost egunetaraino zabaltea ezarritako diziplina neurrien aurka Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiari erreklamazioak aurkezteko aurreikusitako gehieneko epea.
 - c) Ikaslearen espedientean jarritako oharrak deuseztatzeko epe bat ezartzea.
- Laguntza neurriak ezartzea irakaslearen figura eta agintea indartzeko, eta Administrazioak bere gain hartzea irakasleen ordezkaritza judiziala, beharrezkoa denean.
 - On-line jokorako adikzioa dela eta, adingabeentzako babes eta prebentzio neurriak ezartzea. Besteak beste:
 - Ikasleei eta gurasoei zuzendutako gida bat prestatzea, eta hartan honakoei buruzko informazioa ematea:
 - a) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera desagokiaren ondorioak eta tresna horiek egoki erabiltzeko aplikatu beharreko jarraibideak.
 - b) Ekipoetako segurtasunaren konfigurazioak pertsonalizatzeko kontrol-tresnak (iragazkiak).
 - Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuarekin batera, sentsibilizazio kanpainak egitea adingabeek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera egokia egiteari buruz.
 - Ikasleentzako prestakuntza ekintzak eta gurasoentzako laguntza neurriak garatzea, adingabeen heziketa teknologikoa aldezte aldera eta gurasoen eta ikasleen

arteko prestakuntza eta informazioa garatzeko baterako neurriak gara daitezen sustatze aldera.

- Adingabeen aurkako tratu txarrak direla-eta jarduteko protokoloan, departamentuak ezartzea zentroko zuzendaritzak, aldizka, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari jakinarazi behar izatea protokoloan hobetzeko modukoak diren alderdiak ikastetxeko langileengan horrelako kasuan atzematerakoan eta zuzen jarduterakoan eragina duten arazoak edo zailtasunak berraztertze eta kokatzeko.
- Behar diren neurriak hartzea ahal den bezain laster eta nolana ere 6/2008 Foru Legean aurreikusitako epean, bermatuta egon dadin funts publikoekin mantendutako ikastetxeek legez hautatzen dituzten testuliburuak doakotasunerako eskubidea. **Onartua.**
- Behar diren jarduerak egitea 0 eta 3 urte bitarteko haurtzaroko tokien eskaintza publikoa handitzeko eta horrela apiriletik aurrera jaiotako haurrek toki bat lortzeko aukera errealak izan dezaten. **Onartua.**
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, behar diren egokitzapenak egitea haiek haur hezkuntzako lehen ikasturtean nahiz lehen hezkuntzako lehen ikasturtean sartzeko unea haien ikaskuntza premien arabera egokitzeko, eta, horrenbestez, zikloan beste urtebetez gera ahal izateko, adingabearen onurarako bada. **Onartua.**
- Ikastetxe bateko ikasleak ikastetxe batetik bestera aldi baterako nahiz behin betiko eraman behar diren kasuetan, gurasoei egoerari buruzko informazioa ematea, eta haiei erraztasunak ematea hezkuntza ereduari buruzko eta ikastetxe berriari buruzko erabakietan parte hartzeko. **Onartua.**

- Gurasoen elkarrekin kudeatzen dituzten eskola-jantokiaren kasuetan, Hezkuntza Departamentuak bere menpeko ikastetxeetan ezarritako irizpideak aplikatu daitezkeen exijitza, alergiak edo elikagaietarako intolerantziak dituzten haurrei egokitu behar diren dietei dagokienez.
- Familiek beren seme-alaba guztiak ikastetxe berean eskolatzearen aldeko hautua egiten duten kasuetan, dagokien ikastetxe sortu berrian hori ezinezkoa izaki haientzako guztientzako hezkuntza-eskaintzarik ez egoteagatik, anaia-arreba guztiak tokiz aldatutako ikasle hartzea, garraioari eta eskola-jantokiari buruzko onurak lortzearen eraginetarako. **Ez da onartu.**
- Ikastetxeetan ikasleak onartzeko irizpide osagarri gisa “ikasle ohiaren semea edo alaba” izatearena kentzea, baztergarritzat jotzen delako. Eta egokitzen irizten badiu Hezkuntzaren Lege Organikoak ezarritako lehentasuneko irizpideen irizpide osagarriak ezartzeari, foru legez edo foru dekretuz ezar ditzala, betiere arrazoi objektibo eta justifikatuei jarraituz. **Ez da onartu.**
- Ahal den guztian saihestea atzerriko hizkuntzen ezagutza ziurtatzeko egiten diren azterketak egun berean eta ordu berean izan daitezkeen. Eta antolamenduzko arrazoiak direla medio halakorik ezinezkoa den kasuetan, behar diren bitartekoak jartzea ukitutako ikasleek bi azterketetako bat lehenago edo beranduago egiteko, haiekin ados jarrita.
- Kontserbatorioan eginiko matrikula bati uko egiteko arrazoi justifikatu bat gertatzeari buruz aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko aukera ematea, eta matrikularen zenbatekoa itzultzea. **Onartua.**
- Behar diren erregelamendu-aldaketak eta ekintza egokiak egitea haur hezkuntzako zentroetan lanpostuak adjudi-

katzeko prozesuan egiten diren zozketak publikoak izan daitezzen. **Onartua.**

- Ikasleak funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan onartzeko prozesuetan, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan hurbiltasunaren irizpidea dela-eta aurreikusitakoa modu efektiboan eta errealean betetzea, horretarako behar diren neurriak hartuz. **Ez da onartu.**
- Nafarroako Unibertsitate Publikoari proposatzea irailean egitekoak diren selektibitate-azterketetarako datak aldatzeko, edo, kasua bada, irakasle-ikasketen egutegia atzeratzeko, selektibitate azterketetako datak eta Irakasle-ikasketen graduako eskolen hasiera bateragarri egiteko. **Onartua.**
- Ikastetxeek ikasleak onartzeari edo ez onartzeari buruz egiten dituzten jakinarazpenetan aurretiko errekurtso administratiboen berri ematea, bai eta haiek aurkezteko epearen eta organoaren berri ere. **Onartua.**

Uharteko Udala

- Udal baten titularitatearen peko haur hezkuntzako eskolaren egoera erregulatzeko behar diren neurri guztiak hartzea, eta, nolana ere, zerbitzua heldu den urtean ixtea, jarduera legeztatzen ez den bitartean.

Zangozako Udala

- Gomendatzea udalak familia ugarietzako eskola-jantokirako laguntzen linea bat ezartzeko aukera azter

dezan, eta horri buruzko ebazpen espresa eta motibatua eman dezan. **Ez da onartu.**

Tuterako Udala

- Lanaldi erdiaren eta lanaldi osoaren tarifak aplikatzea haur hezkuntzako lehen zikloko zentroetan, halako moduan non familiek ordaindu beharreko kopuruak bat etorriko diren aurrez ezarritako ordu-modalitateen gainean egiazki egiten den erabilerarekin.
- Ordenantza bat onestea haur hezkuntzako lehen zikloa irakasten duten ikastetxeen funtzionamendua erregulatzeko, alderdi guzti-guztiei dagokienez.

265

Ultzamako Udala

- Familiek jantokiko hileroko kuoten itzulketa proportzionalerako duten eskubidea aitortzea, hain zuzen ere arrazoi justifikatuengatik ikaslea hamabost egun baino gehiagoz jantokira joaten ez denean eta ez-joatea behar adina denborarekin jakinarazten denean. **Onartua.**

6.2.4. Funtzio publikoa

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lanaldi murrizketa arautzen duen apirilaren 28ko 113/1997 Foru

Dekretuaren aldaketa bat sustatzea, halako moduz non lanaldi murrizketako beste mota batzuk aurreikusiko diren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lan egiten duten langileek lana eta familia bateragarri egitea bideratzen dutenak.

- Aztertzea aukerarik ba ote den egun Ekonomia eta Ogasun Departamentuan lan egiten duten langileei aplikatzen zaien lanaldi malgua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko beste departamentu eta erakunde autonomo batzuetako langileei ere aplikatzeko, ezertan kendu gabe lanaldi malguak eta zerbitzuaren betebeharrak betetzeko premiak bateragarri izan beharko dutela..
- Minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat ezarritako txandan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak deitzen dituen hautapen prozesuetan izena ematen duten pertsonen identitatea ahal den guztian gorde ahal izateko tresnak ezartzea. **Onartua.**
- Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legearen aldaketa bat bultzatzea, profesional funtzionarioek edo estatu-araubidearen menpeko profesionalak, beren lanbide-jardunean interes orokorrean eragina ez dutenek, dagokien elkargo ofizialeko kide nahitaez egin behar ez izateko. **Ez da onartu.**
- Azterlan bat egitea jakite aldera ea komenigarria den oraindik ere pasiboen antzinako sisteman dauden funtzionarioei martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidez sorturiko sistema berrira aldatzeko aukera modu iraunkorrean ematea. **Onartua.**
- Ezgaitasunen bat duten oposizio-egileei behar den denborarekin jakinaraztea zenbat denbora duten, beren

minusbaliotasunaren arabera, hautapen-probak egiteko.
Onartua.

- Hautapen prozesuak antolatzerakoan, behar diren neurriak ezartzea ezgaitasunen bat duten izangaiek gainerako izangaien baldintza beretan parte hartzeko modua izan dezaten, eta, horrenbestez, behar diren gela edo eremuak prestatzea oposizio-egile ezgaituak beren ezaugarrien edo esleitu zaien denboren arabera kokatzeko. **Onartua.**
- Ezgaitasuna duten pertsonak hautapen-probak egiteko behar duten denboran eta bitartekoetan behar diren egokitzapenak eta doikuntza arazoizkoak egiteko betebeharra betetzea, halako moduan non bermatuko baita berdintasun baldintzetan parte hartzen dutela; eta, horrenbestez, Nafarroako Mendetasun Agentzia izan dadila, eta ez hautaprobetako epaimahaiek, egokitzapen horiek egiteko irizpideak ezartzen dituen, banakako irizpideak aplikatuz, betiere minusbaliotasunei buruz eginiko banakako balorazioen arabera.
- Bularra emateko baimenez lanaldi osotan gozatzeko baimena ematerakoan, baimenaz gozatzeko aldia halako moduan determinatzea, non baimendutako lekutze-orduak interesdunak orduak pilatzearen alde egin izan ez balu gozatu izanen zituen berak izan daitezen, kopuruari dagokionez. **Ez da onartu.**
- Haurdunaldiaren eta geroko amatasunaren ondorioz urteko opor egunak galtzen diren kasuetan, aukera ematea haietaz beste aldi batean gozatu ahal izateko, sexuarengatiko zuzeneko bazterketarik gerta ez dadin. **Onartua.**
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako lan-kontratupeko aldizkako langile finkoei zabaltzea soldata

aurrerakinak lortzeko aukera, edo maiatzaren 12ko 199/2006 Foru Aginduaren aldeko interpretazio bat eginez, edo foru agindu hori aldatuz, hain zuzen ere gisa horretako langileak berariaz sartzeko. **Ez da onartu.**

- Epaimahaiek kalifikazioak ematerakoan jokaera irregularren bat egin dutela jotzen den hautapen prozesuetan, hautapen prozesua atzera eramatea irregulartasuna egin zen uneraino, eta erreferentziako hautapen prozeduran jardun zuenaz beste organo kalifikatzaile bat izendatzea.
- Nafarroako Polizia Kidegoen Langileen Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 718/2003 Foru Dekretuko 18.3 artikulua betetzea –Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 30.2 artikuluekin lotuta dago– eta, horrenbestez exijitzea erregelamendu bidez ezartzen den motako ibilgailuak gidatzeko baimena edukitzearen baldintza eska dadila prestakuntza ikastarorako onartutako izangaien zerrenda argitaratzen den egunerako, ez ikastaro hori egiteko onartutako behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunerako. **Ez da onartu.**
- Arreta gehiago jartzea prozedura administratibo elektronikoen ondorioz herritarrak bazterturik ez gelditzeko eskubidea eraginkor egiteko (apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 4.a artikulua), eta, horrenbestez, zorrotz betetzea erretiratuen pentsioei buruzko informazioa bide elektronikoz bidaltzea borondatezkoa izateko printzipioa. **Ez da onartu.**
- Erregelamendu bidez arautzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen nomina bide elektronikotik igortzea, paperezko euskarrian igortzeari utzita, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-

trazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 23.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. **Ez da onartu.**

- Lanpostuak aldi baterako betetzeko hautapen-prozesuetarako deialdi edo zitazioetan, aldi baterako kontratatua izateko eskubidean eragina izan dezakeen informazio guztia adieraztea, horren barne dela lehendik egon daitezkeen zerrendak eta lehentasunak. **Onartua.**
- Langileriaren aroko hautapen-prozesuak arrazoizko epe batean izapidetu eta ebaztea, horretarako behar diren neurriak ezarrituz, esku hartzen duten organo administratiboetara –horien artean, epaimahaiei– dagokienez. Bereziki, behar den arintasunez izapidetzea langile funtzionarioen izendapenak. **Onartua.**

- Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko Estamentuen eta Espezialitateen eranskina aldatzea, “Osasun laguntzaileen” estamentuan (“Erizaintza” espezialitatea) sartzeko “Zaintzaile gerontologikoen” lanpostua, hain zuzen ere eranskineko A 6 Kodeko izendapenen zerrendan. **Onartua.**
- Bularra emateko baimenez lanaldi osotan gozatzeko baimena ematerakoan, baimenaz gozatzeko aldia halako moduan determinatzea, non baimendutako lekutze-orduak interesdunak orduak pilatzearen alde egin izan ez balu gozatu izanen zituen berak izan daitezen, kopuruari dagokionez. **Ez da onartu.**
- Eraginkor egitea destinoko osagarriaren kontzeptuan aitorturiko ordainsariak atzera eraginez kobratzeko

eskubidea, giza baliabideen nahiz baliabide teknikoan eskasia espediente horiek gerarazteko arrazoi bat izan gabe. **Onartua.**

- Larrialdietako ebakuntza-gelako osasun laguntzaileen lan baldintzak aztertu eta baloratzea, organoen erauzketetara lan ordutegi arruntean joateko betebeharrari dagokionez. Izan ere, tratu ez-baztertzailea bermatuko zaie, gainerako lankideei ematen zaienaren aldean.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuen goitik beherako azterlan tekniko bat egitea, beren ezaugarriengatik arrisku biologiko edo erradiologikoak izan ditzaketanak atzemateko, eta gero lanpostu horiek zerbitzuko plantilla organikoan jaso ditzan. **Onartua.**
- Haurdunaldiaren eta geroko amatasunaren ondorioz urteko opor egunak galtzen diren kasuetan, aukera ematea haietaz beste aldi batean gozatu ahal izateko, sexuarengatiko zuzeneko bazterketarik gerta ez dadin. **Onartua.**

Hezkuntza Departamentua

- Zuzendaritzako berariazko osagarria guztiz ordaintzea ikastetxeetako zuzendariei, eginkizun horretaz guztiz arduratzen badira, nahiz eta lanaldia murriztua eduki seme-alabak zaintzeagatik. **Ez da onartu.**
- Familiako laguntza ematea, atzera eraginez, hura jasotzeko eskubidea duten funtzionarioei, bere garaian berariaz eskatu ez bazuten ere. **Ez da onartu.**
- Administrazioak azterketa bat galtzen edo suntsitzen duen hautapen-prozesuetan, beste azterketa bat egitea,

aurrekoaren ezaugarri eta exigentzia berdinekin, galera edo suntsitze horrek kasuko izangaiari eragiten dion babesgabetasunarekin, hain zuzen ere egindako azterketaren edukia egiaztatzeko modurik ez duelako. **Ez da onartu.**

- Behar diren neurriak hartzea bermatzeko departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratatzeko deituak izateko eskubidea duten emakumeek ez dezaten inongo desabantailarik pairatu amatasun bajaran egoteagatik. Hori dela eta, etorkizuneko hautapen prozesuei begira, kontatu eginen zaizkie lanpostuan egiaz lanean hasi arte geroratzen den aldiari dagokion denbora. **Ez da onartu.**
- Euskarazko prestakuntzako ikastetxeei behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea Administrazio Publikoko langileentzako prestakuntza ikastaroak egoki garatuko direla guztiz bermatzeko. **Onartua.**

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

- “Navarra de Suelo Residencial, S.A.” (NASURSA) sozietateko lanpostuak betetzeko langileen hautapen-prozesuetan, legearen aurreko berdintasunaren, nahierakeriaren debekuaren, lehia askearen, merezimen-duaren eta gaitasunaren printzipioak errespetatzea. **Onartua.**

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

- Hautapen prozesuetako deialdietan zehaztasunez adieraztea oinarrietan exijitzen diren baldintzak

justifikatzeko agiriek bete beharreko ezaugarriak.
Onartua.

Mairagako Zerbitzuen Mankomunitatea

- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen ordezkari organoak hautatzeko arauak betetzea eta, horren indarrez, uko egite baten ondorioz posturen bat bete gabe dauden kasuetan, postu huts hori automatikoki betetzea boto gehien lortutako hurrengo funtzionarioarekin.

Fontellasko Udala

- Aukera ematea udaleko funtzionario eta enplegatuei destinoko herriaz beste batean bizitzeko, betiere funtzionarioak edo enplegatuak bere funtzio eta betebeharra zuzen betetzea bermatzen duen bitartean.
Ez da onartu.

272

6.2.5. Herritarren bermeak administrazio prozesuetan

Oro har, Nafarroako administrazio publikoak

- Bidea ematea herritarrek artxibo eta erregistro administrazioak begiratu ahal izateko, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako moduan.

- Herritarrek eskatutako eskabide eta idazkiei arauetan ezarritako epean erantzuteko legezko betebeharra betetzea.
- Ez eskatzea herritarrei aurkez dezaten administrazio publiko eskatzailearen artxiboetan lehendik badagoen dokumentazioa.
- Herritarrek eskatzen duten informazioa eta herritarrek interesduntzat jotzen direneko espedienteetako agirien kopiak ematea.
- Behar diren neurriak hartzea herritarrek arreta egokia jasotzeko eta zerbitzu publikoak erabiltzeko dauzkaten eskubideak eraginkor egiteko, eta uneoro zerbitzu horien funtzionamendu arrunta bermatzea.
- Herritarrei zuzendutako egintza administratiboak motibatzea, bereziki egintza horiek herritarren kalterako izaten direnean.
- Errespetatzea administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten eskubideak. Bereziki, ondokoak: alegazioak egitea, jardueretarako eskatzen diren baldintza juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta orientabidea jasotzea; agintariek eta funtzionarioek errespetuz eta begiramenez tratatzea, eta agintari eta funtzionarioek erraztasunak ematea beren eskubideez baliatu ahal izateko eta betebeharrak bete ahal izateko.
- Administrazioek beren kabuz hastea ondare-erantzukizuneko prozedurak, herritarrek eskatu arte itxaron gabe, administrazioaren erantzukizuna begi bistakoa denean.
- Ondare erantzukizuneko prozeduretako tramiteak arintzea, haien ebazpena ez dadin beharrik gabe gerora.

- Bidea ematea herritarrek sarbidea izateko, interes jakin bat kreditatzea exijitu gabe, administrazio publikoen eskura dagoen lurralde- eta hirigintza-informaziora, eta hirigintzaren arloko ekintza publikoaz baliatzeko erraztasuna ematea.
- Herritarren datu pertsonalak exijitzekoak diren berme guztiekin babestea, intimitaterako oinarritzko eskubidearen urraketarik gerta ez dadin.
- Herritarrei laguntza emateko zerbitzuak eta bulegoak ezar daitezzen sustatzea, Administrazioaren esparru desberdinetan, bai eskatzen diren kudeaketak zuzenean egiteko, beharrik gabeko tramiteak eta geroratze administratiboak eskatu gabe, bai eskariak egiteko, errekurtsoak idazteko eta abarretarako ere.

Nafarroako Parlamentuaren administrazioa

- Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta hura garatzen duen Erregelamendua –abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaz onetsia– beti betetzea, eta behar diren tresnak ezartzea beren langileen datuak babesteko, bereziki datu sentsibleak direnean.

Nafarroako toki entitateak, oro har

- Herritarrei ahal den informazio zabalena ematea toki enteen jarduerari buruz, eta haiei tokiko bizitzan parte hartzeko bidea ematea.

- Herritarren interes orokorrak edo sektorialak aldezen dituzten elkarten garapena erraztea, eta herritarrek tokiko bizitzan parte har dezaten bultzatzea.
- Izaera pertsonaleko datuak jaso eta tratatzeko kanpoko enpresak kontratatzen diren kasuetan, haiei exijitzea izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legeetan ezarritako segurtasuneko eta isilekotasuneko neurri guztiak zorrotz bete ditzaten.

Toki Administrazioiko Departamentua

- Sariak emateko lehiaketa-prozeduretan, ebaluazioaz arduratuko diren epaimahaikideei exijitzea idatziz eman ditzaten prozedurarako onartutako lanei buruz emandako balorazio eta puntuazioak, eta puntuazio horiek aktan berariaz jasotzea. **Ez da onartu.**

275

Cirizako Udala

- Ez exijitzea legean aurreikusitakoez gainerako baldintzarik herritarrek bertan erroldatzeko.

Arlegiko Kontzejua

- Ahal den guztian sustatzea herritarrek kontzejuaren bilkuretara joateko eskubidea gauzatu ahal dezaten; hori, halere, ez da eragozpena izanen, arrazoi objektibo eta justifikatuengatik bertaratzeko eskubidea murrizteko. **Onartua.**

6.2.6. Ogasun publikoa

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko egungo arauak aldatzea, halako moduan non tratamendu berezia emanen baitzaie alarguntasun pentsioetatik heldu diren errentei, errenta horiek laneko errentekin pilatzen direnean. **Ez da onartu.**
- Legean behar den aldaketa egitea, zertarako eta Nafarroako zergadunak erabaki ahal dezan bere errentaren aitopeneko ehuneko 0,7a “gizarte intereseko beste xede batzuetarako” izatea, eta horretatik sortzen diren funtsak xede zehatz horietarako erabiltzea eta Foru Administrazioak gero banatzea. **Onartua.**

Toki Administrazioiko Departamentua

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 174.1.b) artikulua aldatzeko aukera aztertzea, eroslearen ordezkorearen baldintza kentzeko transmisio-egilea den subjektu pasiboari, kostu bidezko eskualdaketen hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko zergari dagokionez. **Ez da onartu.**

Nafarroako toki entitateak, oro har

- Udal zergak kudeatu eta biltzerakoan, legez ezarritako prozedura errespetatzea, bereziki zergadunarentzako bermeak.

Tuterako Udala

- Tuterako Udalaren kirol instalazioak erabiltzeari buruzko arauetan, ezgaitasun fisiko nahiz psikikoa duten pertsonentzako salbuespen bat ezartzea. **Onartua.**

6.2.7. Barne arloa

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

- Lehenetsuna ematea ikerketa polizialari eta behar diren neurri guztiak hartzea pertsona baten desagertze-kasuari eta haren senideen segurtasun pertsonalari dagokienez. **Onartua.**
- On-line jokorako adikzioa dela eta, adingabeentzako babes eta prebentzio neurriak ezartzea. Besteak beste:
 - Haurrak eta nerabeak babesteko mekanismoak ezartzea jokoari eta ikuskizun publikoei buruzko arauetan.
 - On-line jokoaren gaineko ikuskapen eta kontrol planak sustatzea, haurrak eta nerabeak babesteko.
 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraren bitartez adingabeen eskubideak urratzen diren kasuetan, legez ezarritako bideei buruzko informazioa ematea (Ministerio Fiskalaren edo Nafarroako Poliziako kidegoen aurrean salaketa jartzea).
- Nafarroako Foruzaingoak betetzen jarraitzea nazioko eta nazioarteko xedapenak, atxilotuak eta haien osotasun

fisikoa eta segurtasun pertsonala zaintzeari buruzkoak. **Onartua.**

- Zaintzea Foruzaingoak beti proportzionaltasun printzipioaren arabera joka dezan, eta herritarrekiko tratuan egoki eta adeitasunez joka dezan, eta egiten diren eskuhartzeen kausa eta helburuei buruz herritarrei behar den informazioa eman diezaien. **Onartua.**
- Nafarroako Foruzaingoak beti erraztasunak ematea herritarrek egokitzen dituzten salaketak eta idazkiak aurkez ditzaten Foruzaingoaren beraren jarduera dela-eta.
- Nafarroako zezen ikuskizunei buruzko erregelamendua aldatzea, adingabeak babeste aldera, exijituz jendearentzat irekiak diren zezen-jaialdietako karteletan eta bestelako publizitate bideetan zehatz dadin ikuskizunean zezenkoa hilen ote den. **Onartua.**

Iruñako Udala

- Behar diren neurriak ezartzea aparkatze mugatuko eremuetako zaindarien kode bidezko identifikazioa bideratzeko, halako moduan non bateragarri egingen baitira haien eskubideak babestuak egotea eta salatzailearen identitatea jasota dagoela bermatzen duen sistema bat. **Onartua.**

Eguesibarko Udala

- Bere kabuz nahiz bizilagunen salaketaren bidez udalak dakienean prostituzioa dagoela lokal edo etxebizitza jakin

batzuetan, haien gaineko zaintzako eta kontroleko eskumenak baliatzea, eta, behin behar diren ikerketak egin ondoren, inguruabar hori egiaztatuta badago, jarduera hori behin betiko ixtea, interesdunari entzunaldia eman ondoren. **Onartua.**

6.2.8. Justizia

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

- Aztertu eta balora dezan Tuteran zigor-arloko beste epaitegi bat sortzeko aukera. Gorte Nagusietako Arartekoari igorria.

279

6.2.9. Ingurumena

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

- Behar diren neurriak ezartzea abeltzaintza-ustiategiek giza jarduerak garatzen diren lekuetan (etxebizitzak, lantegiak edo era guztietako instalazioak) sortzen duten enbarazua ahal den guztian gutxitzeko.
- Indargabetzea ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuak jasotzen duen aurreikuspena, abeltzaintza-instalazioak lehen graduko ahaideei esku-aldatzeko aukerari dagokionez; izan ere, hori ez baitator bat ez ingurumenaren babes egokiarekin, ez kutsadurarik gabeko inguruneaz gozatzeko eskubidearekin ere. **Ez da onartu.**
- Herritarrek etxebizitza duinaz gozatzeko duten eskubidea bermatzea, eta etxebizitza horretan ez egotea aplikatze-

koa den legediaren arabera onartzekoak diren gehieneko mugak gainditzen duen zaratarik nahiz bestelako edozein motatako immisio kutsagarririk.

- Hirigintza plan batek (udalez gaindiko plan sektoriala) entitate pribatu batek sustaturiko ingurumena leheneratzeko proiektu baterako jarduera-espeditentean eragin negatiboa daukan kasuetan, edo entitate pribatuari eragindako kalteen ordainak ematea, proiektua bere osotasunean ezin exekutatzegatik, edo entitate horrekin ingurumeneko antzeko beste proiektu bat adostea. **Onartua.**
- Batasunaren intereseko leku bat aitortzen den kasuetan, lursailtako titularrei Mendia Kudeatzeko Plan Teknikoan parte hartzeko aukera ematea, eta aprobetxamendu eta erabilera finkatuetako titularrei kalte-ordainak ematea, jarduera horiek bateraezinak izateagatik aprobetxamendu horietarako arauetan ezartzen diren muga berezi eta efektiboekin. **Onartua.**
- Bermatzea herritarrek ingurumen-informazioa edukitzeko duten eskubidea, bai eta ingurumenean eragina duten erabakiak hartzen parte hartzeko eskubidea eta espedienteetan dagoen informazioaren kopiak lortzeko eskubidea ere. **Onartua.**
- Nafarroako Foru Komunitatean kutsadura akustikoaren arazoari aurre egiteko berariazko foru lege proiektu bat egitea. Aurreko urteetakoak.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

- Autobide, autobia, errepide eta herriguneetan sartzeko bideak berritik egiteko proiektuak edo egun dauden

trazadurak birmoldatzeko lanak egiteko proiektuak exekutatzekoan, zarataren ingurumen-eraginari buruzko azterlan bat egitea, egin beharreko neurri zuzentzaileak ere jasoko dituenen. **Onartua.**

Nafarroako toki entitateak, oro har

- Ingurumena babestearen eta osasungarritasun publikoaren arloan dauzkaten eskumenak modu eraginkorrean eta geroratu gabe baliatzea; bereziki, zaratak eta dardarak eragiten dituzten jarduera pribatuen gainean esku hartzeko ahalmenak. Horrekin, herritarren funtsezko eskubide batzuk bermatuko dituzte: osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta etxebizitzan intimitatea eta bortxaezintasuna izateko eskubidea.
- Bermatzea herritarrek ingurumen-informazioa edukitzeko duten eskubidea, bai eta ingurumenean eragina duten erabakiak hartzen parte hartzeko eskubidea eta espedienteetan dagoen informazioaren kopiak lortzeko eskubidea ere.
- Abeltzaintzako instalazioek ingurumenaren aldetik bete beharreko baldintza teknikoak ezarri zituen ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuko xedapenak bete daitezzen exijitzea; bereziki, etxebizitzetatik eta biztanle-guneetatik gorde beharreko gutxieneko distantziei dagokienez.

6.2.10. Herri lanak

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

- Behar diren jarduerak egitea Berriozarko zeharkaleko galtzada hobetzeko. **Onartua.**
- Behar diren jarduerak egitea NA-2310 errepideko Mutiloabeitiko zeharbidea egoera onean eta funtzionaltasun betean kontserbatzeko, zeharbide horren ezaugarriei eta zerbitzatzen duen industrialdeari erreparatuta. **Onartua.**
- Zeharbidea hiri-bide gisa Arangurengo Ibarreko Udalari lagatzeko prozedura arintzea. **Onartua.**

Nafarroako toki entitateak, oro har

- Hirietako bide publikoak zaintzeko, mantentzeko eta zolaberritzeko legezko betebeharrak zorrotz betetzea.
- Partikularrei, herri-lanak egitearen ondorioz beren ondasunetan eta eskubideetan pairatutako kalteengatik ordainak ematea.
- Nahitaezko desjabetzei buruzko legeetan ezarritako prozedurak betetzea jabetza partikularreko lursailak okupatzen diren kasu guztietan, partikularren arteko akordiorik ez baldin badago.

Iruñako Udala

- Eremu publikoak mantentzeko eta hobetzeko udal politika betetzerakoan, lehenasuna ematea Arrosadia auzoan

dauden hirigintza-gabeziak, dotazioen arlokoak nahiz beste arlo batekoak, ahal den guztian arintzera bideratutako jardueri, eta bertako bizilagunengan gehiegizko enbarazua eragiten duten jardueren gaineko kontrol exhaustiboagoa egitea. **Onartua.**

Erriberriko Udala

- Karpak eta jaietarako antzeko elementuak jartzerakoan, foru zuzenbide zibileko arauak aplikatzea, jabetzen mugak errespetatzeko gutxienez ere exijitzekoak diren distantziei buruzko legezko zortasunei dagokienez.

Fiteroko Udala

- Obren exekuzioa egitea entitatearen organo eskudunak aurrez onartutako proiektu teknikoen eta aurrekontuen arabera. **Onartua.**

283

6.2.11. Zerbitzu publikoak

Toki Administrazioko Departamentua

- Sustatzea eta jarraipena ematea Nafarroako Gobernuko departamentuen arteko batzordeko kideen eta Petilla de Aragón herriko udal ordezkarien artean aurreikusitako bilerei, herri horren biziberritzea sustatuko duten proiektuak gauzatu ahal izateko. **Onartua.**

Tuterako Udala

- Aztertzea udal arauetan sartzea instalazioetako matxuren ondoriozko gehiegizko kontsumoen kasuetarako fakturazioa arinduko duten aurreikuspenak. **Onartua.**

6.2.12. Osasuna

Osasun Departamentua

- Iruñako espetxeko presoei laguntza emateko sendagile psikiatra bat jartzea. **Onartua.**
- HIESa duten gaixoen bizi kalitatea hobetzeko neurriak sustatzen jarraitzea. Esate baterako: aurpegiko lipoatrofia zuzentzeko bakuntzak ordaintzera bideratutakoak; GIBa duten gaixoak ugalketa lagunduko programetan sartzea, kutsadura saiheste aldera; eta prebentzio programak eta osasuna sustatzekoak finantzatzea. **Onartua.**
- Aztertzea komenigarria den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazio ortoprotesikoa eguneratzea, berrantolatzea eta arrazionalizatzea, egungo teknologiari, erabiltzaileen autonomia pertsonaleko premiei eta haien maila eta baldintza ekonomikoei egokitzeko, halako moduan non inoiz ez den zama ekonomiko handi bat izanen gaixoentzat. **Onartua.**
- Behar diren neurriak ezartzea Nafarroako Ezgaitasunak Baloratzeko Epaimahai Medikoak eginiko irizpen medikoen edukia ez dakion igor dagokion administrazioari eta nahikoa izan dadin laneko bajaren egokitasunari edo desegokitasunari buruzko agiri administratiboa igortzea, amaierako diagnostiarekin, ez aurrekaririk, ez historia klinikorik gabe.

- Osasun prestazioen katalogoa berrikusi eta gaurkotzea, pixkanaka herritarrek eskatutako prestazio eta zerbitzu berriak jartzeko, eta argi eta garbi eraginkortasunik edo efizientziarik ez duten teknikak, teknologiak eta prozedurak kentzea.
- Herritarrek, gaixo gisa nahiz osasun publikoaren sistemaren balizko erabiltzaile gisa, erabili ahal dituzten osasun zerbitzuei eta haiek erabiltzeko baldintzei buruzko informazio ulergarria eta egokia jasotzeko eskubidea bermatzea.
- Kanpora osasun laguntza jasotzera bidalitako gaixoentzako bidaietarako, ostaturako eta otorduetarako dietak arautzen dituen Foru Dekretuaren aldaketa bat sustatzea, zenbatekoari, gastuak justifikatzeko sistemari eta laguntzaileentzako baimenari dagokienez. Gaixoentzako eta senideentzako informazioa hobetzea, dietak jasotzeko exijitzen diren betekizunei eta baldintzei dagokienez.
- Obozitoen dohaintzaren bitartezko ugalketa-teknika ginekologia zerbitzuen artean sartzea edo, bestela, Donostiako klinika batekin dagoen itunean. **Onartua.**
- Osasun garraioaren laguntza-prestazioa hobetzea, bai berrazterketa eta tratamenduetan behar diren leku-aldatzeetarako, bai 112 telefonoaren bitartez larrialdiak kudeatzeko.
- Buru-gaixotasunak sendagai neuroleptiko, antipsikotiko atipiko eta antsiolitikoekin tratatzen diren kasuetan, medikazioaren albo-ondorio gisa hortzeriaren narriadura larri eta kronikoa gertatzen denean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaixoen tratamendu odontologikoa finantzatzea, gutxienez ere zati batean. **Ez da onartu.**

- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuaren, Iruñako Udalaren eta Uharteko Udalaren arteko behar diren koordinazioko eta elkarlaneko eragiketak erabiliz, egokiak diren jarduerak bultzatzea, foru nahiz estatu mailako legeetan tabakoaren kontsumoa mugatzeko ezarrita dauden neurriak Labrit eta Euskal Jai frontoietan betearazteko, eta, kasua bada, lege horietan jasotako arau-haustekak sistematikoki zehatzea, administrazio bakoitzak esleituta dauzkan eskumenak erabiliz.
Onartua.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

- Petilla de Aragón herrian heliportu bat egiteko proiektua bultzatzea, larrialdiko laguntza medikoak bideratzeko.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua eta Osasun Departamentua

- Beren eskumenen esparruetan, neurri berriak ezartzea mugikortasuna murriztua duten pertsonak hobeki garraiatzeko, normaltasunezko, autonomiako eta erosotasunezko baldintza egokietan. Hain zuzen ere:
 - Gomendatzea Ubarmin Klinikarako garraio-zerbitzu erregularra emateko ibilgailuak egokiak izan daitezela mugikortasuna murriztua duten pertsonak eramateko.
Onartua.
 - Gomendatzea osasun garraioaren zerbitzua ematen duten anbulantziak egokitu daitezela eta bidea eman dezatela gurpil-aulki elektrikoak nahiz mugikortasuna

murriztua duten pertsonak erabili ohi dituzten beste gai batzuk garraiatzeko.

6.2.13. Lana

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua

- Behar diren bitarteko guztiak jartzea lan-eskaintzak kasuko bulegoan izena emandako lan-eskataile guztiguztiei helarazteko, betiere eskaintako enplegurako behar diren baldintzak edo titulazioak baldin badituzte **Onartua**.

6.2.14. Trafikoa

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua Iruñako Udala

- Modernizazio administratiboko prozesuak bultzatzea, trafikoaren arloko zehapen espedienteen izapidetze elektronikoa bideratzeko. **Onartua**.

Toki Administrazio Departamentua

- Nafarroako Administrazio Auzitegiak trafikoaren arloa dela-eta emaniko ebazpenak toki entitateek betetzen ez dituzten kasuetan exekuzio subsidiariora jotzea, jarduera materialen bat beharrezkoa denean, geroraterik gabe. **Onartua**.

Iruñako Udala

- Semaforoak programatzea halako moduan non oinezkoek kalea zeharkatzeko denbora nahikoa izanen baita mugikortasuna murriztua duten pertsonak kalea guztiz zeharkatu ahal izateko. **Onartua.**
- Gaizki aparkatuta egoteagatik bide publikotik ibilgailuak erretiraten direnean, eremu horretan aparkatzeko debekuari buruzko informazioa zuzena egon gabe, ezarritako zehapenak deuseztatzea eta herritarrei ibilgailua erretiratzeagatik ordaindu dituzten diru-kopuruak itzultzea. **Onartua.**
- Zehapen prozeduretan ematen dituen ebazpenak behar bezala motibatzea, edo, bestela, ezarritako zehapena atzera botatzea. **Ez da onartu.**
- Behar diren neurriak ezartzea bizikletekin zirkulatzeko berariazko errei gehiago egiteko, ahal den guztian saihestuz ziklistek eta oinezkoek espaloietako eremua partekatu behar izatea.

Burlatako Udala

- Trafikoaren arloko zehapen prozeduretan beti eraginkor egitea herritarrek eskubidea dutela Administrazioak legezkotasunez, segurtasunez eta efizientziaz jokatzeko. **Ez da onartu.**

Tafallako Udala

- Beharrik gabeko geroratzerik gabe exekutatzea Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak. **Onartua.**

Berriozarko Udala

- Zehapen prozeduretan ematen dituen ebazpenak behar bezala motibatzea, edo, bestela, ezarritako zehapena atzera botatzea.
- Udaltzaingoari agintzea trafikoa kudeatzeko eskumenez balia dadin eta, bereziki, aparkatze okerrak zain ditzan herriko garaje bateko sarreran eta irteeran. **Onartua.**

6.2.15. Hirigintza

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

- Hirigintzaren ikuskapenatarako zerbitzua sortu eta indartzea. Zerbitzu hori Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko Foru Legeko 197 eta 198. artikuluetan aurreikusi zen.
- Herritarrek hirigintzaren plangintzan eta kudeaketan parte har dezaten indartzea.

Nafarroako toki entitateak, oro har

- Herritarrek hirigintza antolamenduko eta exekuzioko edozein tresna lantzerakoan eta onesterakoan parte-hartze efektiboa izateko duten eskubidea eraginkor egitea; hain zuzen ere, eskubide hori alegazioak aurkeztuz eta Administrazioaren aldetik erantzun arrazoitua jasoz gauzatzen da, betiere administrazio horren araubide juridikoa arautzen duten legeei eta kasuan kasuko prozedurari jarraituz, Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legeko 4.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Herritar guztiek hirigintzaren arloko informazioa eskuratzeko duten eskubidea beti betetzea, interes legitimorik ziurtatzeko beharrik izan gabe; eskubide horren barrenean sartzen da administrazio eskudunarengandik lursail jakin batean aplikatzekoa den hirigintza-antolaketari buruzko informazio osoa jasotzea, idatziz eta arrazoizko epe batean.
- Hirigintza planetan eta haien aldaketetan behar den oroitidazkia egotea, eta oroitidazkian haietan jasotako erabaki eta lege-determinazio guztiak behar adina arrazoitu behar izatea, bereziki lehenagotik planeatutakoa funtsean aldatzea suposatzen dutenak.
- Udal planeamenduan zehaztasun handiagoz erregulatzea enpresa hornitzaileek fatxadetan elementuak instalatzeko bete behar dituzten baldintzak.
- Urbanizazio proiektuen kudeaketa arintzea.
- Hirigintzaren arloko legezkotasuna babestearen eta urratutako antolamendua leheneratzearen arloko jarduerak egokitzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 204.2

artikuluari ezarritakoaren arabera, eta, horren indarrez, berariaz adieraztea urratutako antolamendua lehene-ratzeko obrak hasteko eta bukatzeko epea.

Iruñako Udala

- Udaleko hirigintza arauetan sartzea lursailen arteko itxieretarako muga batzuk, uste baita alderdi hori araututa ez egotea kaltegarria izan daitekeela interes orokorrerako eta hirugarren eskubideetarako. **Onartua.**

6.2.16. Euskara

2009ko ekainaren 1ean eginiko bilkuran, Nafarroa Bai parlamentu taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideen egoerari buruzko txosten bat egin dezan.

Eskari hori betetzeko, erakunde honek eskatutako txostena egin zuen. Txostena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2010eko otsailaren 3ko 9. alean, eta Foru Araubideko Batzordean 2010eko martxoaren 2an aurkeztu zen.

Txostenean Nafarroako Arartekoaren erakundeak 2001etik 2009ra bitarte egin dituen gomendio eta iradokizun nagusiak ageri direnez, ez dugu beharrezkotzat jo erakunde honen 2009ko erabakiak berriz azaltzea, aipatutako txosten horretan jada adierazita dagoena ez errepikatzeko.

6.2.17. Etxebizitza

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

- Tresna batzuk ezartzea derrigorrezko egiteko igogailuak jar daitezela mugikortasuna murriztua duten pertsonak bizi diren eraikin zaharretan. Aurreikustea, gainera, horretarako behar den espazioa desjabetzeko ahalmena, irisgarritasunari buruzko lege sektorialetan betetzen ez den kasuetan. **Onartua.**
- Atzerrian diren Herritar Espainiarren Estatutuari buruzko abenduaren 14ko 40/2006 Legeko 11. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoa zorrotz betetzea. Izan ere, artikulua horretan, atzerrian diren herritar espainiarrei bermatzen zaie Konstituzioko eskubideez eta bete-beharrez baliatu ahal izatea Espainiako lurraldean bizi diren espainiarrekiko berdintasun baldintzetan. Konstituzioko eskubide horien artean, etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea dago (Espainiako Konstituzioko 47. artikulua). **Ez da onartu.**
- “Etenik gabeko antzinasunaren” gaurko irizpidea malgutzea, saihesteko abaguneko inguruabarrengatik bizitokiz aldatu behar izateak –esate baterako ikastera joateko edo lanera joateko– etxebizitza babestuaren eskatzaileei kalte egin dakien. **Ez da onartu.**
- Etxebizitzari Babes Publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeko 22. artikuluan gaur egun jasota dagoen baremoaren berrikuspena sustatzea, ez daitezen determinanteak izan erreserba bakoitzeko etxebizitzaren adjudikazioan bigarren mailako irizpideak; esate baterako, etxebizitza-kontu bat izatea, eskatzailearen adina, Nafarroako udaletan etenik gabe izandako antzinasuna edo guraso bakarreko familiaburua izatea; eta determi-

nanteak izan daitezen, bai, oinarrizko bi irizpideak: etxebizitzaren premia kreditatua egotea eta eskatzailearen errenta. **Onartua.**


- Fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak betetzea, eta haien indarrez, ez aplikatzea herritarrek ezagutzen ez dituzten irizpideak puntuazioa emateko, baremoko irizpide desberdinengatik, babestutako etxebizitza publikoak adjudikatzeko garaian. **Onartua.**
- Eraginkor egitea ezgaitasuna duten pertsonen egiazko berdintasunerako eta bizimodu duin eta egokia izateko duten eskubidea, eta kasua bada, behar diren neurriak sustatzea adjudikatutako etxebizitzak adjudikazio-hartzailearen premien eta baldintzen arabera egokitzeko. **Onartua.**
- Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuko II. eranskineko 16. artikulua betetzea. **Onartua.**
- Egindako kontratuetatik ondorioztatzen diren zigorren zenbatekoak berrikustea, halako moduz non inoiz ere ez dituzten gaindituko Hirigintza eta Etxebizitza arloko Presako Neurriei buruzko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legeko 14.1 artikuluan finkaturiko gehienekoak. Izan ere, gehieneko zenbateko bat ezarri zen kontzeptu guztiengatik: 500 eurokoa hura izenpetu eta lehenbiziko urtean, eta 1.200 eurokoa, berriz, bigarren urtetik aurrera. **Onartua.**
- Arau-aldaketa bat bultzatzea, udal guztiei beren lurralde esparruan kokaturiko etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak artikulatzeko eskumena emateko. Eta subsidiarioki eta modu iragankorrean, arau-aldaketa bat

bultzatzea, adina eta diru-baliabideen gabezia aintzat hartzeko, zertarako-eta etxebizitzaren zaharberritzerako laguntza publikoak emateko haietan bizi direnen segurtasunean, osasungarritasunean eta higiean eraginik ez duen bizigarritasun baldintzen bat ez betetzeagatik zaharberritzeko etxebizitza gisa kalifikatzen ez diren etxebizitzetako titularrei. **Onartua.**

7 _ nafarroako administrazio
publikoek nafarroako
arartekoarekin lankidetzan
jardutean

2009

7 _ nafarroako administrazio
publikoek nafarroako
arartekoarekin lankidetzan
jardutean



2009

VII. KAPITULUA.

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NAFARROAKO ARARTEKOAREKIN LANKIDETZAN JARDUTEAN

7.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren funtzioa da Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako herri-tarren eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobetzea. Berme funtzio hori gauzatzeko, norbanakoen eskubideen administrazio egokia eta errespetua bultzatzen ditu erakundeak, eta, horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntzea. Hala, erakunde horiek obligazioa dute, lehentasunez eta presaz Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari laguntzeko eta hark egindako oharpen, gomendio, lege-betebeharren gogorarazpen eta iradokizun oro betetzeko hartutako neurrien berri emateko edo, neurri horiek hartu ezean, jokaera horren arrazoiak azaltzeko.

297

Laguntza emateko betebeharra ez betetzeak dituen ondorioei dagokienez, honela dio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak: hasierako informazioa edo dokumentazioa bidaltzeko edo horiek eskuratzeko eskaera egin ondoren, administrazio publikoko langileek edo haien nagusi edo arduradunek jarrera negatiboa edo zabarra agertzen badute, Nafarroako Arartekoak oztopotzat har dezake jarrera hori. Hala, Arartekoak berehala publiko egin dezake gertatutakoa, eta kalifikazio hori ezar dezake Nafarroako Parlamentuari bidaltzen dion urteko txostenean.

Horrez gain, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.2 artikulua arabera, neurri berriak hartzeko oharpenak, gomendioak, lege-

betebeharren gogorazpenak edo iradokizunak jaso ondoren, bi hilabete baino gutxiagoko epean, dagokion administrazio-agintaritzak Arartekoak adierazitako neurria hartzen ez badu, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari jarrera horren arrazoiak azaltzen ez badizkio edo jarrera hori azaltzeko justifikazio egokirik ez badu, Arartekoak urteko txostenean edo txosten berezian jasoko du gertatutakoa. Txosten horretan, Arartekoaren ustez arazoa konpon zitekeen baina jarrera txarragatik konpondu ez den kasuetan, espresuki aipatuko dira jarrera hori izan duten administrazio publikoko agintari edo langileen izenak.

7.2. LAGUNTZEKO BETEBEHARRAREN BETETZE-MAILA

Nafarroako administrazio publikoek ehuneko handi batean (% 82) onartu zituzten egindako bitartekaritza, gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenak, eta, oro har, ikerketa-espedienteetan eskatutako informazioa igorri zuten.

Hala eta guztiz ere, kasu jakin batzuetan, ez zen eskatutako informazioa igorri, nahiz eta horretarako errekerimenduak egin. Horrek zailago egin zuen kexa-espediente batzuei buruzko ebazpena ematea.

Bost izan ziren kasu horiek 2009an. Kontuan hartzen badugu 2009an 858 kexa itxi zirela, esan daiteke gure erakundearekin lankidetzan ez jarduteko kasuak oso gutxi izan direla (% 0,5). Hori, halere, ez da oztopoa berriz ere nabarmentzeko zeinen garrantzitsua den Nafarroako Arartekoaren erakundearekin lankidetzan jardutea hain zuzen ere erakunde horrek herritarren eskubideak babestearen arloan duen eginkizuna bete dezan.

7.2.1. Ikerketa-fasean Arartekoaren eskakizunei erantzun ez dieten edo eskastutako informazioen bidalketan geroratu diren administrazioak

Atal honetan, bidean zituen ikerketetarako Arartekoak informazioa emateko egindako eskakizunei erantzun ez dieten edo erantzun hori ematen gehiegi geroratu diren administrazioen zerrenda ematen dugu.

7.2.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

Espedientea 08/228
Gaia: Gizarte ongizatea
Mota: Gomendioa
Kexa: Laguntzako hezitzaile batentzako prestazio ekonomikoa behar baino beranduago jasotzea.
Ebazpena: 131/2008, urriaren 15ekoa.

299

7.2.1.2. Nafarroako toki entitateak

Zizur Zendeako Udala

Espedientea 08/148
Gaia: Ingurumena
Mota: Gomendioa
Kexa: Desadostasuna transformagailu elektriko bat jartzearekin.
Ebazpena: 78/2008, ekainaren 24koa.

7.2.2. Gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenei erantzun ez zieten administrazioak

Arartekoaren erakundea arautzen duen Foru Legeko 34.2 artikulua aplikatuz, ondoren aipatzen ditugu gomendio, iradokizun edo legezko betebeharren gogorazpena azaltzeko lehenengo idazkiari eta beste epe bat emateko propio bidalitako gogorazpenari erantzun ez dioten administrazioak.

7.2.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

Espedientea 08/394
 Gaia: Funtzio Publikoa
 Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
 Kexa: Desadostasuna administrari laguntzaile lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendatik kanpo uztearekin.
 Ebazpena: 165/2008, azaroaren 26koa.

300

7.2.2.2. Nafarroako toki entitateak

Arlegiko Kontzejua

Espedientea: 07/414
 Gaia: Herritarrek administrazio prozesuetan dauzkaten bermeak
 Mota: Legezko betebeharren gogorazpena eta gomendioa
 Kexa: Dokumentu eta artxibo administratiboak ezin kontsultatzea.
 Ebazpena: 57/2008, maiatzaren 14koa

Zizur Zendeako Udala

Espedientea: 08/148 (7.2.1.2 epigrafean aipatutako espediente bera da)
Gaia: Ingurumena
Mota: Gomendioa
Kexa: Desadostasuna transformagailu elektriko bat jartzearekin.
Ebazpena: 78/2008, ekainaren 24koa.


Etxarri-Aranazko Udala

Espedientea: 08/182
Gaia: Herritarrek administrazio prozesuetan dauzkaten bermeak
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Kexa: Herritar batek aurkeztutako eskari bati ez erantzutea.
Ebazpena: 97/2008, abuztuaren 18koa.

8 _ nafarroako arartekoaren
txostenak

2009

8 _ nafarroako arartekoaren txostenak



2009

VIII. KAPITULUA. NAFARROAKO ARARTEKOAREN TXOSTENAK

8.1. AITZINSOLASA

2009an, Nafarroako Arartekoak honako txostenak egin zituen:

- Bere ekimenez eginiko bi txosten berezi.
- Nafarroako Parlamentuko organoek eskatutako hiru txosten.
- Foru parlamentari batek eskatutako txosten bat.

Halaber, Nafarroako Arartekoak agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuko Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamendua aztertzeke lan-taldean.

305

Lehen eta bigarren gidoietan aipatutako txostenak, bai eta aipatutako lan-taldean eginiko agerraldia, berariazko liburuki batean argitaratu dira. Txosten guztiak erakundearen webgunean daude eskueran: <http://www.defensornavarra.com>, hain zuzen ere “txosten bereziak” izena daraman epigrafearen pean.

8.2. TXOSTEN BEREZIAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legoko 36.2 artikulua araber, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ahalmena du Nafarroako Parlamentuaren aurrean txosten berezi edo monografikoak aurkezteko, gertakarien larritasun, garrantzia edo premiak hala eskatzen dutenean.

2009an, bi txosten berezi egin ziren erakunde honen ekimenez, eta Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean aurkeztu ziren. Honakoak dira txostenak:

1. Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren Zerbitzuen Zorroari eta Prestazioen Katalogoari buruzko txosten berezia.

- 2009ko irailaren 16ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 89. alean argitaratu zen.
- 2009ko urriaren 14an Foru Araubideko Batzordean aurkeztu zen.

2. Edari alkoholduen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboari buruzko txosten berezia.

- 2009ko azaroaren 20ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 115. alean argitaratu zen.
- 2009ko abenduaren 17an Foru Araubideko Batzordean aurkeztu zen.

8.3. NAFARROAKO PARLAMENTUAK ESKATUTAKO TXOSTENAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16 d) artikulua ahamenak ematen dizkio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari bere eskumeneko arloetan txostenak egiteko, Parlamentuak edo Nafarroako edozein administrazio publikok edo haien menpeko enteek eskatuta.

Agindu horren babesean, Nafarroako Parlamentuak, 2009an, hiru txosten berezi eskatu zizkion Nafarroako Arartekoari, hurrengo arloetan erakundearen eskumenak guztiz garatu eta zabaltzeko egin beharreko lege- edo erregelamendu-aldaketak egiteko aukerari buruz: A) adingabeen babesa, B) emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna babestea, eta C) immigrazioa. Horren guztiaren helburua zen Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek arlo horietan egiten dituzten politikak hobeki kontrolatzea.

Lehendabiziko txostena Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren harira eskatu zen. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko azaroaren 7an eginiko saioan, honako ebazpena onetsi zuen: Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin eta aurkez dezan, eta bertan lege, legegintza edo erregelamenduei dagokienez behar diren aldaketak proposa ditzan, bere eskumenak guztiz garatu eta zabaltzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek adingabeen babeserako egiten dituzten politikak hobeki kontrolatze aldera.

Bigarren txostena Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskatu zuen, 2009ko martxoaren 16an eginiko bilkuran. Izan ere, erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin eta aurkez dezan, eta bertan lege, legegintza edo erregelamenduei dagokienez behar diren aldaketak proposa ditzan, bere eskumenak guztiz garatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren arloan egiten dituzten politikak hobeki kontrolatze aldera.

Azkenik, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin zezan immigrazioaren alorreko bere eskumenak garatzeari buruz.

Hiru txosten horiez gainera, 2009ko ekainaren 1ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideei buruzko txosten bat egin zezan. Txosten hori 2010. urtearen hasieran aurkeztu da Nafarroako Parlamentuan, herritarren hizkuntza-eskubideei buruzko kexen gaineko ebaluazio bat egiteko, hain zuzen ere erakundea abian jarri zen unetik 2009ko abenduaren 31ra arteko epea –ekitaldi osoak, beraz– hartuz.

Aurreko eskariak betez, Nafarroako Arartekoaren erakundeak honako txostenak landu eta aurkeztu zituen Nafarroako Parlamentuan:

1. Erakundearen eskumenak adingabeen babesaren arloan zabaltzeari buruzko txostena.

- 2009ko otsailaren 2ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 4. alean argitaratu zen.
- 2009ko otsailaren 25ean Foru Araubideko Batzordean aurkeztu zen.

2. Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunaren arloan Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeari buruzko txostena.

- 2009ko maiatzaren 19ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 47. alean argitaratu zen.
- 2009ko ekainaren 3an Foru Araubideko Batzordean aurkeztu zen.

3. Atzerritarren eta etorkinen eskubideak ziurtatzeari dagokionez Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak garatzeari buruzko txosten berezia.

- 2009ko irailaren 25eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 94. alean argitaratu zen.
- 2009ko urriaren 14an Foru Araubideko Batzordean aurkeztu zen.

8.4 FORU PARLAMENTARIEK ESKATUTAKO TXOSTENAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 19.2 artikulua araber, parlamentariak –zein bere aldetik–, ikerketa batzordeek eta Foru Araubide Batzordeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren esku-hartzea eskatu ahalko dute, idatzi arrazoituaren bidez, 1.3 artikulua aipatzen duen edozein administrazio publikotan gertatutako jarrera, ebazpen eta egintza jakinak argitu eta iker ditzan, baldin eta bere eskumenen esparruan pertsona bati zein pertsona talde bati eragiten badiote.

309


Xedapen hori aplikatuz, 2009ko urriaren 5eko idazkiaren bitartez, Asunción Fernández de Garaialde foru parlamentariak, Nafarroa Bai parlamentu-taldearen izenean, erakunde honi eskatu zion txosten bat egin zezan “laguntza mediko espezializatuko kontsultak eta probak egiteko anezka erako garraio-zerbitzu kolektibo eta egokituari buruz”.

Txosten hori 2009ko azaroaren 16an igorri zitzaion bera eskatu zuen foru parlamentariari, eta ale bat igorri zitzaion, halaber, Nafarroako Parlamentuko lehendakariari, berak, Nafarroako Parlamentua zuzentzen duten organoek eta Osasun kontseilariak ezagut zezaten. Txosten osoa erakundearen webgunean argitaratuta dago: <http://www.defensornavarra.com>.

9 _ erakundeak herritarrekin eta
gizarte zibilarekin izan duen
zuzeneko harremana

2009

9 _ erakundeak herritarrekin eta
gizarte zibilarekin izan duen
zuzeneko harremana



2009

IX. KAPITULUA.

ERAKUNDEAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN IZAN DUEN ZUZENEKO HARREMANA


9.1. INFORMAZIO BULEGOA

2009an, Informazio Bulegoan, guztira, 1.080 kontsulta erregistratu ziren. Horietatik, 743 kontsulta herritarrari behar den aholkua emanaz amaitu ziren, eta haietatik ez zen bestelako jarduerarik eratorri. Gainerako 337 kontsulten ondorioz, kexa bat aurkeztu zen Nafarroako administrazio publikoren baten jardueraren aurka.

Kontsulta motari dagokionez, % 99 banakakoak izan ziren eta % 1 kolektiboak.

Kasuen % 56an kontsulta modu pertsonal eta zuzenean egin zen, Informazio Bulegoan bertan. Kontsulten % 37a, berriz, telefono bidez egin zen. Kasuen % 7an, kontsulta Internet bidez egin zen, eta % 0,1ean, azkenik, fax bidez.

313



Egindako kontsultak honako gaiei buruzkoak izan ziren:

ARLOAK	KEXA BAT		AHOLKUAREKIN
	KONSULTAK	EKARRI ZUTEN	EBATZITAKO
	GUZTIRA	KONSULTAK	KONSULTAK
Gizarte Ongizatea	101	33	68
Etxebizitza	81	29	52
Hirigintza	73	20	53
Funtzio Publikoa	67	30	37
Justizia	61	11	50
Hezkuntza	60	26	34
Osasuna	55	23	32
Ingurumena	52	17	35
Lana, Gizarte Segurantza, Atzerritartasuna	51	21	30
Herritarrentzako bermeak	47	25	22
Ogasuna	45	18	27
Barne arloa	38	20	18
Trafikoa	35	14	21
Zerbitzu Publikoak	29	10	19
Industria, Merkataritza eta Turismoa	28	2	26
Herri Lanak	24	6	18
Nekazaritza	12	6	6
Kultuta, Gazteria eta Kirola	5	1	4
Euskara	3	1	2
Besterik	213	24	189
GUZTIRA	1080	337	743

Kontsulta gehienak gizarte ongizateari buruzkoak izan ziren (egindakoen % 9). Bigarren multzoa etxebizitzari buruzko kontsultak izan ziren (% 7,5). Hirugarren multzoa hirigintzari buruzko kontsultak izan ziren (% 6,7). Ondoren, funtzio publikoari buruzko kontsultak (% 6,2), justiziari buruzkoak (% 5,6) eta hezkuntzari buruzkoak (% 5,5) datoz.

Nabarmenezkoa da euskara erabiltzeko eskubidez baliatzarekin zerikusia duten kontsultak oso gutxi izan zirela;

kexei dagokienez, aldiz, arlo horrek lehenengo tokia betetzen du, esan dugun bezala “Hizkuntza Eskubideen Behatokia” fundazio pribatuaren jardueraren ondorioz.

Ondokoa izan zen kexen eduki nagusia:

Gizarte ongizatearen arloan, hirugarren adinerako egoitzetan sartzeari eta egonaldi-baldintzei buruzko kontsultak nabarmendu dira. Gainera, kontsulta ugari egin ziren adingabeentzako babesari eta arretari buruz, zehazki, babesgabetasun eta gerizagabetasun egoerei, harrerei eta adopzio prozesuei dagokienez. Etxebizitzaren arloan, aurreko urteetan bezalaxe, kontsulta nagusiak babes publikoko etxebizitzaren esleipen-prozedurei eta, zehazki, etxebizitza horiek eskuratzeko baldintzei eta esleipen baremoari buruzkoak izan ziren. Halaber, babes publikoko etxebizitzetan eraikuntza-akatsak daudenean egin beharreko jardueri buruzko kontsultak egin ziren.

315

Hirigintzaren arloan, plangintzen exekuzioari eta eraikuntza, erabilera eta hirigintza-diziplinaren arloko jarduerari buruzko informazioa eskatu zuten herritarrek.

Funtzio publikoari dagokionez, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lizentziei eta baimenei buruzko kontsultak nabarmendu behar dira, bereziki lana eta familia bateragarri egiteari buruzkoak. Halaber, eskubide pasiboari eta gizarte segurantzari buruzko kontsultak egin ziren.

Justiziaren arloan, epaiak betearazteari eta doako justizia lortzeari buruzko kontsultak nagusitu ziren.

Hezkuntzaren arloan, kontsulta gehienak haur hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) ikastetxeen funtzionamenduari eta onarpen irizpideei buruzkoak izan ziren, bai eta hezkuntza premia bereziak dituzten haurrei arreta eta hezkuntza-laguntza emateari buruzkoak ere.

Osasunaren arloko kontsultak osasun laguntzarengatiko erreklamazioei buruzkoak izan ziren; zehazki, fakultatibo batzuen jarduerari buruzkoak. Halaber, buru-osasunerako laguntzari buruzko kontsultak nagusitu ziren, bai eta prestazio osagarri eta osasun garraioari buruzkoak ere.

Ingurumenaren arloan, berriz ere nabarmendu ziren zaratei eta jarduera gogaikarriei buruzko kontsultak, bereziki etxebizitza pribatuei dagozkienak.

Lanaren, gizarte segurantzaren eta atzerriartasunaren arloan, kontsulta gehienak gizarte segurantzari buruzkoak izan ziren, bereziki ezgaitasunen deklarazioei buruzkoak. **Atzerriartasunaren** arloan, kontsultak egoitza- eta lan-baimenak lortzeko prozedurei buruzkoak izan ziren.

Herritarrek administrazio prozeduretan dituzten bermeei buruzko kontsulta gehienak herritarrek aurkezturiko eskari, eskabide eta errekurtsioei erantzuteko administrazio publikoek bete beharreko epeei buruzkoak izan ziren.

Ogasunari dagokionez, aurreko urtean bezala, gehiago izan ziren Nafarroako Tributu Ogasunaren tributuekin loturiko kontsultak tokiko tributuei buruzkoak baino.

Barne gaiei buruzko kontsultak polizia-jarduerei eta izapide administratiboiei buruzkoak izan ziren.

Trafikoari dagokionez, kontsultak zehapen prozedurari buruzkoak izan ziren.

Zerbitzuak ematearen arloan, administrazio publikoekiko ondare-erantzukizuneko prozedurei buruzko kontsultak nagusitu ziren.

Kontsumoaren arloan, kontsulta nagusiak kontsumitzaileen eskubideei buruzkoak edo haien balizko urraketei buruzkoa izan

ziren, batzuetan interes orokorreko zerbitzu ekonomikoei zegozkienak.

Herri lanei buruzko kontsultak, nagusiki, toki entitateek eremu publikoak egoki edukitzeko eta mantentzeko betebeharrari buruzkoak izan ziren nagusiki.

Nekazaritzaren arloan, lur-sailen berrantolamenduari buruzko kontsultak nabarmendu behar dira berriz ere.

Kulturaren, kirolaren eta gazteriaren arloan, kontsultak liburutegien zerbitzua emateari buruzkoak izan ziren.

Euskararen gaiari dagokionez, kontsultak herritarrek euskara administrazio publikoekiko harremanetan erabiltzeko eskubideaz baliatzearen ingurukoak izan ziren.

Bestalde, 2009an, 122.811 sarrera kontabilizatu dira erakundearen webgunean. Herritarrek webgunea erabiltze hori atzeman da, alde batetik, kexak aurkezteko, kontsultak egiteko edo zerbitzu publikoak hobetze aldera proposamenak aurkezteko eskaintzen diren zerbitzu telematikoetarako sarrerek gora egin dutelako; eta, bestetik, gora egin dutelako, halaber, erakundearen jarduera-arlo guztiei buruz eskaintzen den informaziorako sarrerek, informazio horren barne direla garatutako jarduerari buruzko hilez hileko eta urteko kalitate-adierazleak. Horrekin, izan ere, helburu bikoitza betetzen dugu: batetik herritarrei bermatzea erakundearekin bide elektronikoen bidez hartu-emanak izateko eskubidea, eta bestetik herritarren eskubideak aldezteko jarduerari ahal den gardentasun eta publizitate handiena ematea, edozein botere publikoren betebeharra baita hori.

9.2. GIZARTE ZIBILAREKIN IZANDAKO HARREMANA

Nafarroako Arartekoak, 2009an, bilerak egin zituen edo harremanak izan zituen hainbat interes sozial eta profesional ordezkatzeko entitateekin: Horien artean, honako hauek ditugu aipagarri:

“Santa María la Real” etxeko andreen, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak.

ASPACE – Garun Perlesia duten Pertsonen Laguntzeko Elkarteak.

FRIDA – Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Elkarteak.
Urzainkiko Oihan Jabeen Elkarteak.

AFAPNA sindikatua.

Nafarroako Minusbaliatu Fiskoen Koordinakundea.

UNICEF.

Nafarroako Kazetarien Elkarteak.

Nafarroako Erretiratuen Elkarteak.

ADEFAD - Drogamenpekotasunak Ukitutako Familien Elkarteak.

ANAR - Arrisku egoeran dauden Gazte eta Nerabeei Laguntzeko Fundazioak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak.

BEHATOKIA - Hizkuntza Eskubideen Behatokia
SALHAKETA.

Badoztaingo Bizilagunen Elkarteak.

Gazteluko Plazako Elkarteak.

EHNE Nekazaritza Sindikatua.

ANDAR – Nafarroako Erriberako haur hiperaktiboak eta arreta-defizita dutenen elkarteak.

Ilundain - Haritz Berri Fundazioak.

UAGN - Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunak.

Euskalerrria Irratia.


Legal Adviser on Human Rights Institution – Bosnia.

Nafarroako Administrazio Publikoko Lanbide Sindikatuen Batasunak.

10 _ erakundearen kalitateari buruzko ebaluazioa

2009

10 _ erakundearen kalitateari
buruzko ebaluazioa



2009

X. KAPITULUA. ERAKUNDEAREN KALITATEARI BURUZKO EBALUAZIOA

10.1. HERRITARREK ERAKUNDEAREN BALIAGARRITASUNARI ETA ERAGINKORTASUNARI BURUZ DUTEN IRITZIA

2009an, aurreko urteetan bezalaxe, herritarrei erakundearen funtzionamenduari buruzko iritzia eskatu zitzaien.

Balorazioa inkesta anonimo baten bidez egin zen. Inkesta Nafarroako Arartekoari kexa bat urte horretan zehar aurkeztu zioten pertsonei egin zitzaien. 227 inkesta egin eta aztertu ziren.

Eraitza honako hau izan zen:

321

Nola jakin duzu Nafarroako Arartekoaren berri?

- Inkestatutako pertsona gehienek (% 37k) adierazi zuen prentsaren, irratia- eta telebistaren bitartez jakin zuela Arartekoaren berri.
- % 22k lehendik zekien Arartekoaren berri, harekin kontaktua izateagatik.
- Ehuneko % 16k adierazi zuen senide eta ezagunen bitartez jakin zuela.
- % 5ek administrazioaren baten aholkuari jarraituz jo zuen Arartekoaren erakundera.
- Inkestatuen % 20k beste bide batzuen bitartez jakin zuten (Internet edo besteren bat).

Zer iritzi duzu Nafarroako Arartekoaren erakundeak eskainitako arretaz?

- Inkestatutakoen % 53k “oso ona” zela esan zuen.
- Inkestatutakoen % 33k “ona” zela esan zuen.
- Gainerako % 7ak, berriz, “hala-moduzkoa” zela esan zuen.
- % 6k “txarra” edo “oso txarra” zela esan zuen.
- % 1ek ez zuen erantzun.

Ikus daitekeenez, inkestatutako 10 pertsonatik ia 9k oso balorazio positiboa egiten dute erakunde honek kexen iza-pidetzearen gainean emandako arretari buruz.

Beste pertsona batzuei gomendatuko zenieke Nafarroako Arartekoarengan jotzea?

- Inkestatutakoen % 82k baietz adierazi zuen.
- Inkestatutakoen % 13k ezetz adierazi zuen.
- Inkestatutakoen % 5ek ez zuen erantzun.

Ikus daitekeenez, 10 herritarretatik ia 8k Arartekoarengana jotzea gomendatuko liokete beste pertsona bati.

Nola balorutzen duzu Nafarroako Arartekoaren bulegoan jasotako informazioa?

- Inkestatutakoen % 39k “oso ona” zela esan zuen.
- Inkestatutakoen % 43k “ona” zela esan zuen.

- Inkestatutakoen % 7k “hala moduzkoa” zela esan zuen.
- Inkestatutakoen % 4k “txarra” zela esan zuen.
- Inkestatutakoen % 4k “oso txarra” zela esan zuen.
- Gainerako % 4ak ez zuen erantzun.

Ikus daitekeen moduan, inkestatutako 10 pertsonatatik ia 8k jotzen dute jasotako informazioa ona edo oso ona dela.

Zer moduzkoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik prozesua amaitu den arte igaro den denbora?

- Oso luzea: % 4
- Luzea: % 7
- Arrazoizkoa: % 53
- Laburra: % 19
- Oso laburra: % 12
- Ez du erantzun: % 4

Ikusten denez, 10 herritarretatik 8k uste dute kexa izapidetzeko denbora arrazoizkoa, laburra edo oso laburra izan dela.

Uste duzu Arartekoak bidalitako idazkiak argiak eta ulergarriak direla?

- Oso argiak: % 36
- Argiak: % 38
- Ulegarriak: % 15
- Ez dira oso argiak: % 5
- Ez dira batere argiak: % 4
- Ez du erantzun: % 2

Beraz, inkestatutako 10 pertsonatik 9k uste dute jasotako idazkiak argiak eta ulergarriak direla.

Arartekoak esku hartzeak arazoa konpontzen lagundu duela uste al duzu?

- Bai, oso baliagarria izan da: % 28
- Bai, nahiko baliagarria izan da: % 26
- Ez, ez da oso baliagarria izan: % 15
- Ez, ez da baliagarria izan: % 22
- Ez du erantzun: % 8

Ikus daitekeenez, inkestaturiko 10 pertsonatik 6k uste dute Araratekoa oso baliagarria edo nahiko baliagarria izan dela bere arazoa ebazteko orduan.

Arartekoak zure kexari buruz hartutako erabakiarekin ados zaude?

- Erabat ados: % 31
- Ados: % 22
- Ados, neurri batean: % 18
- Ez nago ados: % 7
- Ez nago batere ados: % 14
- Ez du erantzun: % 8

Inkestatuen hamarretik zortzik adierazi du ados dagoela, guztiz edo zati batean, hartutako erabakiarekin.

Hartutako erabakia edozein dela ere, 0 eta 10 bitarteko eskalan nola baloratuko zenuke informazio-bulegoak zure arazoaren gainean izan duen esku-hartze globala?


0	6%
1	2%
2	1%

3	4%
4	4%
5	5%
6	3%
7	5%
8	27%
9	15%
10	21%
Ez du erantzun	6%

Herritarren balorazioaren batez bestekoa 7,2koa da. Moda 8 da (% 27) eta ondoren 10a dator (% 21).

Ondoriozta daitekeen bezala, 10 herritarretatik ia 7k 8 eta 10 arteko nota ematen diote Arartekoaren erakundearen esku-hartzeari. 10 herritarretatik soilik 2k ematen diote 5etik beherako nota erakundearen esku-hartzeari.

325



10.1. KEXAK IZAPIDETZEKO BATEZ BESTEKO EPEAK

IZAPIDETZE-DENBORAK (egunetan)	2008	2009
Kudeatutako kexen kopurua	779	1.069
Hasieratik herritarrak hartze-agiria jaso duen arte	1,2	1,8
Hasieratik kexa izapidetzeko onartu den arte	9,2	11,4
Hasieratik kexa itxi den arte	67	74,4

Ondoriozta daitekeen bezala, kexak izapidetzeko batez besteko epeak 7 egunetan egin du gora. Igoera horren arrazoia da 2008an baino 290 kexa gehiago (% 37) izapidetu direla.

eranskina

2009

eranskina

2009

ERANSKINA

I. ERAKUNDEAREN 2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37.3. artikulua haxe xedatzen du:

Txostenak eranskin bat ere izanen du. Eranskinaren hartzailea Nafarroako Parlamentua izanen da. Eranskin horretan, erakundearen dagokion aldiko aurrekontuaren likidazioa agertuko da.

Nafarroako Arartekoaren 2009ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta, honako hau adierazi beharrean gaude:

1. 2009ko ekitaldirako hasierako kredituek 1.240.633,04 euro egiten dute. Guztizko kopuru hori bat dator behin betiko aurrekontuarekin edo aurrekontu bateratuarekin, 2009ko ekitaldian ez baitzen 2008ko ekitaldiko kreditu-soberakinik gehitu.
2. Gastuen aurrekontuaren egoera-orriak erakusten du aitorturiko betebeharrak 1.032.259,79 euro egin dutela gora; horrek esan nahi du aurreko aurrekontu bateratuaren % 83,20ko betetze maila izan dela.
3. 2009ko ekitaldian, 2008koan ez bezala, 2010eko ekitaldian gehitzekoak diren kreditu-soberakinak sortu dira. 2009ko aitorturiko betebeharrak eta 2010eko ekitaldiko aurrekontuari gehitu zaizkion soberakin hitzartuen baturak 1.033.121,99 euro egiten du; hau da, aurrekontu bateratuaren % 83,27.

4. Diru-sarreraren likidazioaren egoera-orriak erakusten du aitorturiko eskubide garbiek 1.240.360,49 euro egiten dutela; hau da, % 99,98ko betetze maila izan da.
5. Aurreko magnitude horietatik, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (208.100,70 euro) lortzen da. Hain zuzen ere, magnitude hori bat dator 2009ko ekitaldiko finantziazioko superabitarekin, zeren eta, jada adierazi dugun bezala, ez baita gastaturiko krediturik izan, diruzaintzako soberakinarekin finantzatutakorik; izan ere, kontuan izan behar da 2009ko ekitaldian ez zela 2008ko ekitaldiko kreditu-soberakinik gehitu.

2009an zehar eginiko gastuek, eragiketa korronteen araberako (I. kapitulutik V. kapitulura) eta kapitaleko eragiketen araberako (VI. kapitulutik IX. kapitulura) gastuetan sailkaturik, honakoa egiten dute:

Eragiketa-mota	Behin betiko kredituak	Onartutako obligazioak	Egikaritzaren %
Eragiketa arruntak	1.117.153,72	933.539,54	83,56%
Kapital-eragiketak	123.479,32	98.720,25	79,95%
GUZTIRA	1.240.633,04	1.032.259,79	83,20%

Eragiketa korronteen aurrekontu-betetzearen mailak % 83,56 egin zuen; kapital eragiketen betetze-maila, berriz, % 79,95 izan zen.

Behin betiko kredituen aldean itundutako kredituen ehunekoari dagokionez, % 83,56 izan zen eragiketa arruntetan; kapital-eragiketetan, berriz, % 80,56raino igo da, 2010eko ekitaldiari gehitzekoak diren kreditu-soberakinen ondorioz.

Eragiketa-mota	Behin betiko kredituak (1)	Kreditu hitzartuak (2)	(1)/(2)
Eragiketa arruntak	1.117.153,72	933.539,54	83,56%
Kapital-eragiketak	123.479,32	99.582,45	80,65%
GUZTIRA	1.240.633,04	1.033.121,99	83,27%

Bestalde, 2009ko aurrekontuko agindutako ordainketek 955.896,74 euro egin zuten; horiei gastuen erresultak gehituz gero –hain zuzen ere 76.363,05 euro, 2010eko ekitaldira pasa direnak–, 1.032.259,79 euro egiten dute guztira; hau da, 2009ko ekitaldian aitorturiko betebeharren guztizkoa.

Ondoren, gastuen aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta diru-sarreraren aurrekontuaren egoera-orria aztertuko ditugu.

A) GASTUEN EGOERA

331

Lehenbizi, gastuen kapitulu ekonomikoen arabera, hasierako aurrekontuaren, behin betiko aurrekontuaren eta aitorturiko betebehar garbiak zehaztu ditugu:

Gastuen aurrekontuaren likidazioa 2009ko ekitaldia

KAPITULUAK	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
1 Langileen gastuak	738.849,54	738.849,54	606.158,13
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	337.200,00	339.804,18	292.090,96
4 Transferentzia arruntak	38.500,00	38.500,00	35.290,45
6 Inbertsio errealak	92.700,00	99.582,45	98.720,25
7 Kapital-transferentziak	15.000,00	15.000,00	0,00
8 Finantza-aktiboak	6.000,00	6.000,00	0,00
9 Finantza-pasiboak	12.383,50	2.896,87	0,00
GUZTIZKO OROKORRA	1.240.633,04	1.240.633,04	1.032.259,79

1. KAPITULUA. Langile gastuak

Aurrekontu bateratua 738.849,54 eurokoa izan da, hots, gastuen egoera orriaren % 59,55. Bestalde, aitorturiko betebeharek 606.158,13 euro egiten dute. Horrenbestez, 1. kapituluaren betetzea edo aurrekontu-betetzea % 82,04koa da, aurrekontu bateratuarekin alderatuz gero.

2007ko martxoan, Francisco Javier Enériz Olaechea Nafarroako Foru Komunitateko Ararteko izendatu zenean, beste kontusail bat sortu behar izan zen, “Ararteko ohiarentzako ordainsariak” izenarekin, kargua utzi zuen aurreko titularrari 2007ko apiriletik 2009ko martxora bitarteko aldian dagozkion ordainsariak ordaindu ahal izateko. Horri dagokionez, adierazi beharra dago 2009an zehar ez dela kontusail horretan betebeharririk aitortu.

Adierazi beharra dago, batetik, gelazain lanpostua hutsik dagoela 2009ko urriaren 28tik, eta, bestetik, aldi baterako kontratazio administratiboak egin direla zerbitzuaren beharrak betetzeko.

2. KAPITULUA. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Ondasun eta zerbitzuen gastu arrunten behin betiko aurrekontuak 339.804,18 euro egiten du, gastuen aurrekontuaren % 27,39 hain zuzen. Aitorturiko betebehare garbiek, berriz, 292.090,96 euro egiten dute: % 85,96 betetzea erakusten dute, beraz.

Kapitulu honetako gastuak izan dira erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak izan direnak (bulegoko materiala, eraikinen, makineriaren eta ekipoen mantentzea, komunikazioak, aseguruak, garbiketa, hornidurak...), eta jarduera orokorreki eta zabalkundekoei dagozkienak.

4. KAPITULUA. Transferentzia arruntak

Behin betiko kredituak 38.500 eurokoak izan dira; hots, gastuen aurrekontuaren % 3,10; betetze-maila, berriz, % 91,66koa izan da. Kapitulu honetan sartzen dira praktiketan diharduten ikasleei dagozkien kopuruak, gehienbat Nafarroako Unibertsitateko Praktika Juridikoko Eskolarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Universidad-Sociedad Fundazioarekin sinaturiko lankidetzak hitzarmenekin lotutakoak.

Gaur egun, hiru bekadun dihardute erakunde honetan; horietatik bi herritarrei gaztelaniaz laguntzeko eta hirugarrena erakundera euskaraz jotzen duten herritarrei euskaraz laguntzeko.

6. KAPITULUA. Inbertsio errealak

Aurrekontu bateratua 99.582,45 eurokoa izan da, eta, hortaz, kapitulu honek gastuen aurrekontuaren % 8,03 hartu du. Exekuzioa % 99,13 izan da.

Honakoak izan dira erakundeak 2009an egin dituen inbertsio nagusiak: lehenengo solairuko zorua aldatzea eta beheko solairuko komunak berritzea, egun dauden oztopo arkitektonikoak deuseztatzeko, Oztopo Fisikoei eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea garatzen duen 154/1989 Foru Dekretuari jarraituz.

B) DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak islatzen du diru-sarrera horiek, funtsean, Foru Ogasunetik jasotako transferentzien ondorio direla; izan ere, ekitaldiko diru-sarrera guztien % 99,99 egiten dute.

Sarrera-aurrekontuaren likidazioa 2009ko ekitaldia

KAPITULUA	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
3 Tasak eta bestelako sarrerak	100,00	100,00	39,30
4 Transferentzia arruntak	1.114.299,54	1.114.299,54	1.114.299,54
5 Ondareengatiko sarrerak	150,00	150,00	38,65
7 Kapital-transferentziak	125.983,50	125.983,50	125.983,00
8 Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	100,00	0,00
GUZTIZKO OROKORRAK	1.240.633,04	1.240.633,04	1.240.360,49

334

Gastuen aurrekontu-likidazioaren xehetasunak 2009ko ekitaldia

1. KAPITULUA: Langileen gastuak	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Arartekoaren ordainsariak	75.519,25	75.519,25	74.329,92
Ararteko ohien ordainsariak	60.415,40	60.415,40	0,00
Aldi baterako langileen ordainsariak	299.005,25	299.005,25	291.946,39
Funtzionarioen ordainsariak	171.997,90	175.660,58	148.538,76
Kontratutako langileen ordainsariak	13.957,58	14.015,53	5.973,50
Gizarte Segurantza	119.331,92	119.730,46	75.480,10
1. kapituluaren funtsa	7.767,26	3.648,09	0,00
1. kapituluaren guztizkoa	747.994,56	747.994,56	596.268,67

2. KAPITULUA Gastu arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Hari musikala	0,00	0,00	0,00
Programen eta lizentzien errentamenduak	11.000,00	11.000,00	10.354,78
Eraikina konpondu, kontserbatu eta mantentzea	27.500,00	19.768,64	19.768,64
Instalazioetako makinak eta tresnak konpondu eta kontserbatzea	8.500,00	7.806,41	2.687,47
Prozesu informatikoetarako ekipamenduak konpondu eta kontserbatzea	11.700,00	20.124,95	20.124,95
Bestelako ibilgetu materiala konpondu eta kontserbatzea	1.000,00	1.000,00	0,00
Bulegoko material inbertariaezina edo arrunta	15.000,00	15.000,00	14.511,30
Bulegoko ekipamenduetarako materiala	0,00	0,00	0,00
Prentsa, aldizkariak eta aldiak behingo argitalpenak	4.000,00	4.000,00	2.903,40
Telefono bidezko komunikazioak	16.100,00	16.100,00	14.925,03
Posta bidezko komunikazioak	22.000,00	22.000,00	10.600,30
Aseguru-primak	6.500,00	6.500,00	5.492,80
Arartekoa	2.000,00	2.000,00	1.403,31
Arreta sozialak eta protokoloa	5.600,00	5.600,00	5.178,17
Arartekoaren bidiaia ofizialak	7.200,00	7.613,97	7.613,97
Jarduera orokorrak eta hedapenekoak	30.000,00	30.000,00	28.563,26
Bilerak eta hitzaldiak antolatzea	10.000,00	0,00	0,00
Liburuen argitalpenen eta bestelako argitalpenen gastuak	35.400,00	30.462,08	21.863,16
Informazio-agentziak	0,00	0,00	0,00
Oposaketak eta autatze probak	100,00	100,00	0,00
Garbiketa-zerbitzuak eta komunak	14.000,00	14.000,00	13.129,80
Prestakuntza ikastaroak	5.200,00	5.200,00	2.627,00
Euskarazko itzulpenak PAOrako	20.000,00	20.000,00	11.522,96
Bestekalo lanak	65.000,00	79.937,92	79.937,92
Horniketak	10.000,00	10.000,00	8.162,44
Ordezkoak	0,00	0,00	0,00
Garbiketarako eta komunetarako materiala	1.900,00	1.900,00	1.318,18
Jantziak	0,00	0,00	0,00
Bestelako gastuak	500,00	500,00	211,91
Dietak, lokomozioa eta bidaia-gastuak	6.500,00	9.190,21	9.190,21
Egindako lanen kalte-ordainak	500,00	0,00	0,00
2. kapitulua guztira	337.200,00	339.804,18	292.090,96

4. KAPITULUA Transferentzia arruntak	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Partikularren kalte-ordainak eta gastuak	1.000,00	1.000,00	0,00
Beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenak	37.000,00	37.000,00	34.790,45
Irabazi asmorik gabeko erakundeetara egindako transferentziak	500,00	500,00	500,00
4. kapitulua guztira	38.500,00	38.500,00	35.290,45

6. KAPITULUA Inbertsio errealak	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Eraikinak	15.000,00	86.446,67	85.584,47
Inztaazioak eta makinak	1.000,00	0,00	0,00
Bulegoko altzariak	7.800,00	1.856,08	1.856,08
Informazio-rpzesuetarako ekipamenduak	15.000,00	3.142,47	3.142,47
Liburuak eta bestelako argitalpenak erostea	8.900,00	5.119,19	5.119,19
Aplikazio informatikoak	45.000,00	3.018,04	3.018,04
6. kapitulua guztira	92.700,00	99.582,45	98.720,25

7. KAPITULUA Kapital-transferentziak	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Kabekideen komunitatearentzako kapital-transferentziak	15.000,00	15.000,00	0,00
7. kapitulua guztira	15.000,00	15.000,00	0,00

8. KAPITULUA Finantza-aktiboak	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Etxebizitza-maileguak	3.000,00	3.000,00	0,00
Soldata-aurrerapenak	3.000,00	3.000,00	0,00
8. kapitulua guztira	6.000,00	6.000,00	0,00

9. KAPITULUA Finantza-pasiboak	Hasierako aurreikuspenak	Behin-betiko aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak
Jasotako fidantzak eta gordailuak	100,00	100,00	0,00
Ustekabeko gastuak	12.283,50	2.796,87	0,00
9. kapitulua guztira	12.383,50	2.896,87	0,00

GUZTIZKO OROKORRA	1.240.633,04	1.240.633,04	1.032.259,79
--------------------------	---------------------	---------------------	---------------------

2001 - 2009KO AURREKONTU-BILAKAERA

BEHIN BETIKO KREDITUAU

KAPITULUAU	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
1. Langilleria-gastuak	215.498,90	415.686,90	452.286,00	537.200,00	528.955,63	574.658,73	700.525,45	747.994,56	738.849,54
2 Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	123.207,48	258.948,52	261.948,00	312.698,96	333.039,75	384.962,24	365.054,55	316.764,30	339.804,18
4 Transferentzia arruntak	12.020,24	25.398,24	25.200,22	32.000,00	22.577,15	20.596,36	27.332,76	34.871,56	38.500,00
6 Inbertisio errealak	84.141,69	62.076,11	112.173,92	64.095,02	54.820,58	60.953,09	71.239,62	116.000,00	99.582,45
7 Kapital-transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	64.710,14	199.325,30	186.327,39	20.000,00	15.000,00
8 Finantza-aktiboak	0,00	0,00	8.907,00	9.247,63	0,00	0,00	0,00	6.000,00	6.000,00
9 Finantza-pasiboak	0,00	0,00	100,00	852,37	0,00	0,00	0,00	100,00	2.896,87
GUZTIRA	434.868,31	762.109,77	860.615,14	956.093,98	1.004.103,25	1.240.495,72	1.350.479,77	1.241.730,42	1.240.633,04

II. ERAKUNDEAREN LAN-TALDE ORGANIKOA ETA LANGILEAK

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren urtarrilaren 19ko 02/09 Ebazpenaren bidez, 2009rako Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren plantilla organiko hau onar zezan eskatu zitzaion Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Lanpostua	Kopurua	Erregimen juridikoa	Maila	Izendapen librea	Batera-ezintasuna	Lanpostua	Mailako osag.	Osag. espezifiko.
Esparruko arduradunaren laguntzailea	1	C	-	X	-	-	-	-
Idazkari orokorra / Aholkulari teknikoa	1	C	-	X	-	-	-	-
Aholkulari teknikoa	3	C	-	X	-	-	-	-
Arartekoaren idazkaria	1	G	-	X	-	-	-	-
Kudeaketa administratiboko teknikaria	1	F	B	-	35	28	-	20
Administrariak	3	F	C	-	-	41,68	12	-
Atezaina	1	F	D	-	-	32	15	-

F: Funtzionarioa

C: Arartekoaren bulegoko behin-behineko lanpostua - izendapen librea

G: Kabineteko behin-behinekoa - izendapen librea

Plantilla organiko hori Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2009ko ekainaren 22an eginiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zen.

Bestalde, 2009ko abenduaren 31n, Nafarroako Arartekoaren bulegoan 10 langile ari ziren lanean, honela sailkatutik:

Jarduneko funtzionarioak	3
Kontratu administratiboa dutenak	1
Behin-behineko langileak.	6

Honakoak dira aipaturiko pertsonen izenak:

Esparruko arduradunaren laguntzailea	Juan Luis Beltrán Aguirre
Idazkari orokorra Aholkulari teknikoa	Pilar Álvarez Asiáin
Aholkulari teknikoak	José Ignacio Echeverría Echeverría Inés Monreal Azcárate Carlos Sarasíbar Marco
Arartekoaren idazkaria	Laura Leibar Aldama
Kudeaketa administratiboko teknikaria	Jorge Balduz Gil
Administrariak	M ^a Antonia Echeverría Beloqui Celina Echeverría Uhalte Mar Laínez Gil

339

Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin izenpetutako hitzarmenen indarrez, 2009an, honakoak izan ziren gure erakundeko hiru beka-postuetan praktikak egin zituzten pertsonak:


- June San Millán García
- Alejandro Ruiz García
- María Medina García
- Julen Mimentza de Irala
- Estíbaliz Álava Alonso
- José María Iraizoz Real



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

0

9



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa